


Beñat Karrika

ARMENDARITZE HAUR BEGIEZ



AUSPOA

950.-

90-K.Z.

9898

645-128/69



EUSKALIZAINDA
Arabake Ordezkaritza

ARMENDARITZE HAUR BEGIEZ

Auspoa Liburutegia
210

Auspoa Liburutegia
EDITORIAL AUSPOA

Plaza Santa María, 2 - Tolosa (Gipuzkoa)
Tfno. (943) 67 12 82

Beñat Karrika

**ARMENDARITZE
HAUR BEGIEZ**

Auspoa Liburutegia

© Auspoa Liburutegia (Tolosa - Gipuzkoa)

Fotokonposatzalle: Rali, Bilbao

Inprimatzalle: Gráficas Lizarra, S.L., Estella (Navarra)

ISBN 84-7158-142-6

Depósito Legal: NA. 1.333-1990

Armendaritzeko
herri miresgarriari:

Gizona herri batetik
ken daiteke.
herri bat ez daiteke
gizonaren bihotzetik ken.

Beñat Karrika
(Beñat Mendisco, Mendeala 15,
Euskadi karrika, Angelu, 64600)

BEÑAT GURE ADIXKIDEA

Urte multxo bat badu Beñat Mendisco, gu denen aspaldiko ezagun eta kidea, *Herria* astekariaren familiaratu ginuela.

Adixkidantzak bezenbat, beharrak gintuen haren ganat ereman. Eta ez baitezpada, orduko ustez, idazle baten beharrak.

Diruzain on baten beharretan gertatua zen *Herria*, Andre Ospital ez-ontsa jarri zelarik. Ez ginuen segur karrika egin Beñat Karrikarekin: orratza bezala xuxendurik ezarri zizkigun erakasle ohi horrek gure konduak.

Eta ez hortan gelditu.

Laster hartu zituen alabaina *Herria* kasetaren arak. Ikusi nolakoak ginen etxe hortakoak: denak herri hunen zerbitzariak eta denak urririk ari, nun ere baita huts bat tapatzeko eta harat jo, hasi zen Beñat ere, bere betiko apal haren gainetik, laguntza batzuen eskainka: idatzizkoak hauk, bere diru konduetz bestalde...

Bai-eta, nahi baginuen, bazituzkeela zenbait oroi-tzapen xahar kondatzeko, Armendaritze bere hau-rreko herriaz...

Baietz, segurki. Zer erranen zioten besterik Pia-rres Lafitte eta E. L. batzuek, berak ere egundainotik borondate onez eta borondate onekoen artean ari izanak euskararen sailean? (1).

Has eta has, egun hau eta bihar hura, hemen dauzkatzu, irakurlea, astetik asterako lan iraunkor baten ondorioak. Eskerrak Antonio Zabala adixkideari, bere herri literatura harroi aberatsean leku bat eskaini bai-tauku, Beñaten artikulu argi eta garbiak hor agertzeko.

Gehiago ere egin dauku gure zorionezko *Auspoa* editorialak: ikusirik Iodixago ager zitakeela liburua, eta asmatu ez ahal zela hortan agortua Armendaritze-ko iturri xahar hori, bidea eman dio oraino Mendis-co jaunari, luzamen bat nahi bazion eman liburu horri, bere kasetalaritzako artikuluez bestalde.

Hemen daukagu beraz dena den. Liburu huntaz gehienik baliatuko direnak, Armendaritzeko herrita-rrak hain segur, xaharrak eta gazteagoak, atsegin iza-nen baitute hauek ere jakitea.

Urrunagokoak ere bai, ez da dudarik. Lehen ezar nitzazke gaurko euskara ikasleak. Hauentzat du libu-ru hunek balio handia. Ez du gure mintzairak egun-daino holako jakin gosea ezagutu, baldin eta beste batzu gosez hiltzen ari badira ere gure euskara maite hortan.

(1) Lan hoiengatik emaiten 1983-ko abendoaren 15-ean hasi zen *Herria* astekaria, bere 1731 zenbakian, eta 1984-eko abendoa-ren 13-an finitu, 1781 zenbakian.

Egon erne zuek aldiz, ikasleak; zuek bereziki, “eus-kara batu” batzuetarat zoaztenak, erlea ezirat bezala, jakizue badirela mailak eta bideak hortaratzeko. Bide segurenatarik bat, gure herrietako hizkuntza bere ohan-tzearen erdian, erran nahi baita herrietako gertakari eta ohidurez orhaturik.

Azkenik, norentzat liburu hau? Zu eta ni bezala-ko herritar xoilentzat, irakurlea: asti orduetan maite baitugu gure etxeko loreen erdian ahusatzea, goxa-tzea, xoratzea, hor dugulakotz aurkitzen bizi hunen hoberena, maite dugun herri hunen bihotza.

Bai, eskerrak zuri, Beñat, zure laguntzaz!

Emile Larre

HERRI MAITATUA

Urteak jin, urteak joan, Armendaritze lehenagoko hura dago: kafira handi baten pare; eta ni kafira hortarik neguko hotz handietan ohetik bezain nekez jalgitzen.

Bortz urtetarik hamabi urtetaraino Armendaritzen bizi izan naiz, horko elizan egin komunione ttipia eta handia —enetzat biak berdin handi ziren—, horko eskolatik zertifikata iragan; hameka urteko mutiko baten-tzat etsamina horrek ere izari bat hartzen! Ez da herririk hoinbertze maitatu dudanik. Dударik gabe, zazpi urte horiek ene izpiritu bihotzetan biziki barna sartu ditaizke. Hoinbertze gertakari, ixtorio, jende ahan-tzi, eta nolaz duela hirutan hogoi urtekoak hoin *orai-ko* agertzen zaizkitan, harriturik nago.

—Behar huzke horiek izkiriatu!

Horra zer entzun dudan hamar eta hamar aldiz, horiek kondatu-ta. Eta futxo, nihauri haurkeria batzu baizik ez direla iduritzen. Nola nahiz, ez ditaizke

haur behako xoil batzu baizik. Haurrean, jendeak eta gertakariak, *diren* bezala hartzen ote ditugu?

Dena den, oraino bizi diren armendariztar zonbaitek beren haur denbora erreberritzeaz atsegin hartuko dutelakoan, eta ere gazteago diren zombaiti nola bizi ginen jakiteak plazer eginen diotelako esperantzian, orduan erabiltzen ginuen mintzaira berean, oroitzapen horien xortaka ixurtzera ausartatuko naiz.

Nihor izendatu gabe ez ditzazket gertakariak aipa. Urte horietan ez baitut nihoren ganik demendreneko etsaigo ez gaixtakeriarik jasan, iduritzen zait ene haurkeriek ez dezaketela nihori minik egin.

ERRABOTEA

1923 zen. Bortz urte nintuen... Primadera zitaken. Banba! Arrabots izigarri batek zelai guzia inarrosi zuen. Errabotea dena betan, lur ikara batek zimentuak arraildu balazkio bezala, plazako alderat erori zen.

Jakin zazue berria laster hedatu zela:

—Errabotea erori! Errabotea erori!

Zorigaitz handi batek herri guzia jo zuela iduritu zitzaitan.

Aitari, lanean ari zen tokirat, berriaren heltzerat lasterka joan gintzaizkion.

—Haurrik bazena pilotan ari? —galdegin zaukun berehala.

Eta guk:

—Ez; ez zuxun nehor!

—Hobe, Jainko maitea! —erranik, berriz lanari lotu zen.

Armendaritzeko plaza Euskal-Herriko pollitenetarik dela, denek ba ahal dakite: herriaren izarikoa,

eliza eta errabotea alde batetik, eta beste hiru aldeta-rik etkez inguratua, herritarren elgarretarazteko egin gela baten pare.

Bainan plaza hura bera, errabotea zabal zabala lurrean, zer gauza hitsa! Lepoa mozturik hila iduri zuen.

Igandetako mutiko eta gizon gazte pilotarientzat ez zela atsegingarri, bixtan dena. Bainan haurrentzat nahi gabe ezin saminagokoa! Ez ziren, ez, erraboteaz nahi bezenbat baliatzen: igandetan ez zuten harat hurbiltzeko paradarik, eta eskola egunetan etxerat laster itzuli behar, etxeko lanen giteko.

Halere, hemendik hamar minuta, handik oren laurden bat, ausikiño batzuen egitera heltzen ziren, etxe aintzinetan xoriak pikorka artzerat menturatzen diren bezala. Aldiz, ortzegunetan, tenorea baino biziki lehenago bazoatzin katiximarat! Eta katiximaren ondotik—berrarik ez zen beti tenore berean bururatzen—oren erdi batez bazela han pilotari eta oihu!

Errabotea lurrean, euskaldun herri bat ez daiteke bizi. Berrikitan jakina dut, denborarik galdu gabe errabote berri eder bat eginarazi beharrez, Mendiburu Iribarneko harginek aintzinatu prezioaz solastatzeko, kontseiluko gizonak elgarretaratu zirela. Denbora hartan, sei eta zazpi mila libera arte hortan, errabote eder bat egin zitaken naski. Hortarik ezagun da geroztik frantses diruak nolako itzulipurdia egin duen. Aldiz, Armendaritzeko errabote ederra beti hor xutik!

Geroztik armendariztar pilotariek trinket eder bat badute beren eskuko; bainan erraboteek badute beti, eta ukanen ere, beren arrakasta.

Agur armendariztar pilotari handi eta ttipi guzieri!

Agur *Herria*-ren irakurle fidel eta pilotaren sustatzaile Etcheverry jaun errientari! Agur Urruty-Durruty Euskal-Herri guzian ezagutuak direneri!

Bainan bainan, errabote eder hortan pilotan ari ikusi dituztan haur heiek ez ote dute euskara ikasi? Ala dute ikasi orduko ahantzi?

BARDOTX

Armendaritzen Bardotxez oroit denik badea? Gai-xo gizona! Gutarik bakotxari gerta daitekena, burutik ahuldua zen. Urtean bizpahiru aldiz herrira agertzen zen, erregebide bazterretako etxetan geldituz. Nik ez nuen oraino hurbiletik ikusia.

Egun bero batez, amak plazako Etxemendian egoiten zen amasori mezu baten heltzera igorri ninduen. Amaso xaharra etxetan josten ibiliz bizi zen; eta primadera hartan osagarria makurturik, lanetik gelditua, etxen zagon.

Karrikatik Etxemendira joaitea, sei urtetarat zoan mutiko batentzat, ez zen halako balentria. Erregebidean ibil zitakeen beribilen beldurrik gabe. Orduan Armendaritzen ez zen, aste undarrari buruz Barberainerat biltzen ziren beribilez eta merkatuetan zabilan Erguyren jendeketako autobusaz bertzerik. Bainan nik laster eginago eta erauntsia handiago eginez jarraitzen zitzaizkitan zakur debru haiek? Bide guzia bere zaukaten antzara taldeatarik, hisuka, ni iretsi beha-

rrrez bezala oldartzen zitzaizkitan arra heiek? Eta Bardotx? Ni bezalako haur porrozkarentzat zer kezkek!

Bidarteko ondoraino zakurrik ez antzararik ikusi gabe goxoki ibili eta bat-batean, Mehaberriko parrean, Bardotx hor ene aintzinean! Erregebideak arroilari hurbilenik ukan zezakeen hegian, harriturik gelditu nintzen, aintzinerat ez gibelerat ezin eginez, lastozko xapelaren pean nituen bilo ondo guziak xixtaka ari zitzaizkitala.

Zinturarik gabeko galtza zahar batzu bi eskuez goiti atxikiz, espartinak herrestan, sokorri baino traba gehiago egiten zion makila bat beso pean, bonet zilokatu batetarik bilo zuhail batzu ateratzen zitzaizkiola, eni ohartu gabe ere iragan zen, urrats bezenbat murmurika eginez.

Nola deitzen zen? Nundik heldu zen? Norat zoan? Ez dut egundaino jakin.

Jende guzia hartaz urrikaltzen zen. Ez zela errex hari amoinaren emaita! Xutik zagoeno, zer gerta ere, eskuetaratz zerbaiten emaitako irriskurik ez zita-keen har! Beraz, bizkarrean zabilan zaku zaharrean, ogi xerra zonbait biltzen zuen.

Ikusirik ez zuela malezia mikorik, izialdura eztitu zitzaitan eta ene bidea segitu nuen.

Amasok baratzeko mahuri zonbait jan arazirik, etxerat itzultzean, apezetxe aintzineko aterbe goxoan, oihal zuri batez estali mahain baten aintzinean jarri-rik, nor ikusi nuela uste duzue? Bardotx, eta gelaria saldaren zerbitzatzen ari zitzaiola!

Ixtant bat beha egon nindakion, eta kulleratra salda iretsi bezenbat murmurika botatzen zuela ohar-
tu nintzen. Bainan apezentzat herabe izanez, Goity

jaun erreter saindua edatekoarekin ateratu zenean, handik urrundu nintzen; eta geroztik Bardotxentzat ez nuen demendreneko beldurrik senditu.

Urteak joan ondoan, Ebanjelioko pobreak aipu zirenetan, Goity eta Bardotxen itxurak begien aintzinerat heldu zitzaizkitan: “Gose nintzen eta jatera eman zinautan!”.

Jainkoak aspaldi bere ganat deituak dituen erreter sainduak eta burutik ahuldua zen eskale gaixoak, han nunbait zeruetan elgar hatzeman dukete.

ADORAZIONEA

Armendariztarrek Adorazioneko besta sasoinik ederreanean ospatzen zuten. Arto egiteko artetik bazoa-zin meza-bezperetarat. Orduko haur batentzat ez zen bakarrik eliza besta, bainan denbora berean ikusgarri bat.

1923-ko Adorazione eguna oraino gogoan dut. Ene lehen Adorazione eguna zelakotz ote? Begien, beharrien, sudurraren asean bildu nuen.

Aditu behar ziren bi galeriak betetzen zituzten gizon heien kantuak, ala latinez, ala euskaraz! Armendaritzen baziren orduan xantre paregabe batzu: lehen lehenik Elizetxeko hiru aita-emeak. Igande eta besta, egun bat huts egin gabe, botz ozen gozo batez ofizioak biziki edertzen zituzten. Frangotan aditu dutana:

— Nihun ez da Armendaritzeko xantreak bezalakorik!

Ahal zutelarik hiru xantre horieri juntatzen ziren hiruzpalau herritar ere ezagutu ditut. Besteak beste,

gizon bizi, zintzo baten oroitzapena utzi dautan Mendiriko Dominixe.

Adorazione hortako bezperak biziki ederrak hatzeman nituen. Engoitik aspaldi kendu usaia... piru batek argi andana gaitza buruz hartzen zituen. Ez dakit zerekin perekatua zuketen, bainan *Magnificat* hasi aintzinttoan, Mañe Elixabehereko giltzainak su eman zionean, gar berde-hori-urdin batek, batetik bestera xirrixtaka iraganez, argi heiek guziak pitzarazi zituen. Insentsu keak botatu usain ona lagun, argi heiek guziak dantzan eta hamar bat apez kantuz inguruan, zer aldare aintzin ikusgarria!

Argiak pizteko denboran, Goity jaun erretora, xantreen kudeatzea gatik, galeria kaskorat igan zen. Ez dezaket erran *Magnificat* zenbat botzetan hasi zuten. Geroztik jakina dut Dartayeten musikatik ari zirela. Kantua miresgarriki zoalarik, nundik eta nolaz harrizkola debrua horzkaduran sartu ote zen? Bat-batean ixiltasun handi bat egin zen, eta emazteak, orduan burutik aztaletaraino gordetzen zituen kaputxina erhi batez beharri sahetserat baztertuz, elgarri soka hasi ziren. Ez ziren horiek hanbat seinale onak! Goity gaizoa, kantua bururatu gabe, bixi bixia jautsi zen, eta geroztik ez dut Dartayeten *Magnificat*-ik aditu. Ez zela makur handia gertatu iduritu zitzaitan eta bezperak ederki bururatu zirela hatzeman nuen.

BURU-XABALA

Haatik, eliza barne argi hartarik jalgitzean, zer denbora beltz pizua! Serorategiko izkinerat heldu orduko, euri uhar bat gaitzak hatzeman ninduen. Emazteak oraino kalostrepean solasean ari ziren, eta gizonek euri uhar denborako ostatu plazan bazuten, edo Elizagaraiian, edo Elizetxean, edo Elizalarrean. Baina jakin zazue erregebide alderat idekirik zagon Suharteko aterbea, neskato eta haurrez zaluxko muku-rru bete zela. Hi, hi, hi eta ha, ha, ha, hango irri-oihuak!

Hor, bada, nihork idurikatzen ez zuen gizon batek ere bere aterbe mikoa merezitu zuen. Gure artean, haren izenik ez jakinez, *Iholdiko kurriera* edo *Buru-xabala* deitzen ginuen. Nago haren bizi bidea zer zitakeen. Zaldizko karro batekin ibiliz, Iholdi eta Armendaritzeko letrak bildu eta Mehaineraino bederen heltzen zituela iduritzen zait. Mihi gaixto zenbait zioten arratsari buruz zaldi zaharra zeharka ibiltzaile bilakatzen zitzaiola.

Horra Dalès orduko jaun errientak, geroxago aipa-

tuko dutana, armendariztarrez egin liburuan eman dion luma ukaldia: “zeiharka begiratzaila, bainan zoin zirtolaria! Komisionen xuxen egilea, bainan zoin pagaraztailea!”.

Egia erran, ene gisa, ez zen gizon ederren heietarik, eta bereziki frango behako bitxia zuen: zuk uste ezkerreko lagunari ele emaiten zuela eta zuhauri mintzo zitzaizun. Suharteko aterbe hartan esnea ere biltzen baitzuen, ohartu nintzen haurrak nekez hurbiltzen zitzaizkiola. Bainan *Dalèsek* dion bezala, debeku izpi bat ukanik ere, mihia ez zuen sakelan atxikitze-koa. Halere, bekoz beko erraiterat menturatuko ez zitzaion neskato trufari batek, multzo batean izaitetik biltzen den ausartzia lagun, gure *Buru-xabalari* atera zion, denek entzuteko gisan:

– Norat debru so egiten duk, mutikoa?

Eta harek berehala:

– Hi... hi... itsusiz, bazterrerat!

BESTABERRI

Adorazione ondoko gau batez, kleron soinua sukalderraino aditu ginuen. Irrati eta telebixtarik ezagutzen ez zuten haurrentzat, kleron aire baten aditzea ere zerbait bazela!

Lasterka, kontraborta deitzen ginuen etxe bazterrerat jalgi ginen. Ez zen dudarik: *Idigarai* Bestaberriri buruz ezpainen zaluarazten hasia! Gogotik ufatzen zukeen Idigaraitik Karrikaraino hain ongi adiarazteko. Ixtant bat ixildu zenean, urrunetik beste kleronari batek ihardetsi zion.

Harrizko alki baten ganean jarririk, argizari-xuritarat, xoratuak atxiki gintuzten. Herriko arrabots guziak, ala ezkila dorreko oren, ala zakur erausi, ala apo hixtu hits, kleron aire heiekin batean beharrietarat heltzen zitzaizkigun, gauak eta urrunetik aditzeak ekartzten duten goxotasunarekin. Ene lehen Bestaberriren haiduru, zainak airean, jo harat, jo hunat, ezin egonak burutik oinetaraino beretua nindabilan.

Azkenean etorri zen egun handia! Bainan beti

zorion handiegiak berekin derabilan itzal debrua! Goizetik euria, eta nolako euria! Uharra uharraren ondotik, meza aintzineko plaza itzulia ezin egina, gainerat errabotea beti lurrean... besta hitsaren mentura! Bainen lehen aldikotz elizan sartze haren ikusteak, asma ez dezakezuen heinean bihotza bozkariatu zautan.

Auzoan mutil zen Gilen suisa aintzinean, makilariak bere makila apaindua itzulikarazten zuela, kloronek eta Fauxtinen orkeztrak eman airen pikoak beren urratsez eta kuxkuil soinuuz xuxen markatuz, oilar, lantzier, zapur, aintzindari eta beste, nik nahi baino lehenago mahain sainduraino heldu ziren. Meza denborako harat-hunat, kantu, soinu, manuetarik ene begi-beharriek ez zutela deusik galtzerat utzi! Zorigaitzez, prosesionea ezin jalgi zen.

Eguerditan bazkaltiarak baginituen eta harriturik egon nintzen zoin emeki jaten zuten. Bezperetako tenorea ez zena bada etorriko! Ahal ukan eta, erloia-oren orratz bare heiek zoin gogotik ez nituen aintzintzen lagunduko!

Dударик gabe, aita-ama gaixoak urrikaldu zitzaizkitan, ezen besteak mahainean utzirik, oren bat goizegi elizarat heldu nintzen. Bestaberriko beztituak deitzen ginituenak, ttur... ttur... ttur... heldu ziren plazarat, dena oihu eta keinu, itxuraz goizean baino omore hobean. Azkenean, denak elgarretaratu zirenean, zombait plaza itzuli egin eta, berriz ene begiak ase ez zetzazkeen elizan sartze hura! Bezperetan, mezan baino alegrantzia eta olde gehiago bazela senditu nuen. Bereziki, banderak firurikatuz eta kantu eta musika aldizkatuz eman *Magnificat* eta hamairu *Benedicamus* heieri beha arratsalde guzia zoin gogo-

tik egonen nintzen! Gauza hoberenek ere bururatze bat ukanki!

Bezperen ondotik, bospasei itzuli eginik, Bestaberi joan zen erretoraren, auzapezaren, axuantaren eta errientaren etxetarat. Bixtan dena, udan uliak behien ondotik bezala, haurrak punpeka haren gibeletik. Arno gorri xorta batez zintzurra busti eta, jo mutxikoak, xarmantinak, hegi eta beste dantza jauzi!

Ez nagoke Dalèsek, jada aipatu dutan liburuan, ongi ezagutu dutan oilar batez diona ezarri gabe: “Bere huzar jauntzi ederrean, urrezko broderi eta kuxkuilez apaindu galtza eta espartin xurietan, sartu da dantzarien artean. Miresgarrizko zalutasunarekin, espartin hegaldunek lurra doi doia hunkitzen diotela, huts bat egin gabe, bere dantza jauziak burutik buru eman ditu”. “*Il a des pieds intelligents*” erranez bururatzan du bere ateraldia.

Gisa hortako Bestaberi onhartzan ez duten zonbait aditu dukezue. Beren haurtasunean ez dukete bihotzean senditu besta horrek uzten zaukun zoriona!

Lehenago ez zitakeen hori Euskal-Herrian bakarrik egiten. Gerla aintzinean, Savoie deitu eskualdean, Bestaberriz ikus zitakeen zapur eta beste. Eta gainerat, telebixta leiotik ez dituzta nihaurek ikusi, gogoan atxiki ahal ez dutan izeneko Europa xoko batetako beila batean, apezpiku, apez eta beilariak, aintzin eta gibelkako urrats ber beretan? Gure girixtino urratsetan ere hala gabiltzala erakutsi nahiz behar bada!

Beti, Euskal-Herriko gazteek zintzoki ospatu gisa hortako Bestaberririk nik ez dut ahalaz huts eginen.

ZERTIFIKATA

1923-ko Bestaberriren ondotik, ez ginen etxen arreba Marik iragan behar zuen zertifikataz baizik mintzo. Denbora hartan, herri arteko ala ttipietan, etsamina koxkor horrek gertakari baten pareko izaria hartzen zuen. Eta egun oroz, gure artean, andere Boubée errientsaz zen solasa. Zoin erakasle ona zitakeen! Urteak iragan ondoan, ene arreben kaierrak eskuetarat erori zitzaizkitan, eta espanturik gabe erran dezaket adin hartako haurren ganik miresgarriagorik ez dudala ezagutu.

Egiazki anderea zen! Gainerat euskaldun garbia, euskaraz gogotik mintzo, eta nago zuzena ukanez ez ote zuen euskara baliatuko frantsesaren erakusteko. Bestalde, errotik langilea zen. Ez zuena aski ikasi gabe eskolatik gelditu neskentzat igandetako eskola asmatu! Bere ama Maimiterekin bizi zen, eta bada- kit xahartze ederra eraman duela Armendaritzeko plazan.

Beraz, 1923-ko urte hortan, Armendaritzetik lau

ziren etsamina hortarat agertu: neskatoetan, Legartoko Jeanne —nola utz dezaket agurtu gabe?—, Barberaineko Olga eta ene arreba. Hiru neskentzat, mutiko bat: Dalès jaun errientaren semea. Artetik erran dezadan, ez nuen orduan amesten mutiko hori, hil aintzin, erraiteko maneran egun guzietz ikusi behar nuela Baionako karrketan, bere aitak bezalako bonet “pitxerduna” buruan, hura bezalatsu bezi, hura ikusten nuela iduritzen baitzitzaitan!

Dakizuen bezala, orduan ez zitakeen telefonaz berririk ibil. Arratsalde apal arte ez ginuen deus jakin. Bainan orduan, Jeanne eta Mari, zerua irabazi balute bezain airos, jin zitzaizkigun erranez:

—Denak iragan gituxu!

Ama, alaba bezain zoriontsu! Frantses mikorik ez zakien; Irisarrin serorek euskaraz egiten zuten ortzegunetako eskolan ikasia zuen euskaraz irakur eta izkiri-riatzen. Bainan ama bat nolaz egon daiteke bere haur baten zoriona beretu gabe?

AMASOREN HERIOTZEA

Hoinbeste gertakari airosten ondotik, bazterrak laster histu zitzaizkitan. Haur baten bihotzean oihartzunik gabeko burraso auhenik entzun ote duzue? Nihork salatu gabe, banakien Etxemendiko amaso, amaren ama, biziki gaizki zoala. Amak eta Oihanburuko Dominika izebak aldizka beilatu zuten.

Eta bestela airostu behar ninduketen Dominika arrebaren komunioea, Andredena Maria eguna, Armendaritzeko bestak, ilun iragan zitzaizkitala hitz dautzuet. Oroitzapen guti utzi dautate.

Haatik, arreba Dominika bere kominiant jantzi xuritan amasori ohe aintzinerat agertu zitzaiola oroit naiz. Ohatu xahar gaixoarentzat, nork erran ez zenez iguzki arrai baten pareko zerbait gelan sartu?

Andredenamari-kari, ene ogi buruzkin buketarekin bezperetan izan nintzen. Denbora hartan, armen-dariztar haurrek gisa hortako buketak elizaren erdian metatzen zituzten, eta prosesionen denboran eskuetan erabiltzen.

Armendaritzeko bestetan aldiz, erran nahi baita Andredena Maria ondoko igandean, besten airostasunaren aldean, nahigabearen ziztakoa barnago senditzen ginuela iduritu zitzaitan. Musikariak Etxemendiko edo Zopaxuritegiko aintzinean jartzen ziren, eta arrabotsa eztitzea gatik hetsi leihoen gibelean amaso lur erromes huntarik emeki emeki bazoan... Beharrik, Legartoko Dominika etxekandere zenak gutaz arta hartu zuen. Ez zen lurlean hura baino emazte on, gozo, haurkinagorik. Gurekin hogoi ta hamekan arizanez, besta arratsaldeak arras arinki iraganarazi zauzkigun.

Azkenean, 1923-ko Agorrilaren 27-an, besta ondoko igandekari, musikari eta dantzariak trenpu hobereanean ari zirelarik, nik ezagutu dutan amaso bakarrak bere arima Zeruko Aitari itzuli zion.

ANDERE ERRIENTSA

Lano batek bestea haizatzen! Ene seigarren urteburua eta urriaren lehena hurbiltzen hasi baizitzaizkitan, ez nuen gehiago kezka bat baizik: eskolan abiatze debru hura.

Frantsesez hitz bat atera ez zezakeen haur baten-tzat, eskolan abiatzea ez zen batere gertakari ttipi bat. Askaria zoin nekez iretsi nuen! Arrebak heldu nin-duen Dalès andere errientsaren aintzinerat.

Andere hori armendariztar andana batek oraino gogoan dukete. Ene lehen erakaslea izan delakoan eta bere azken egunetaraino atxikimendu hunkigarri bat erakutsi daualakoan, laburzki bada laburzki, aipamen bat zor diot.

Nor zen Dalès anderea? Erakasle ona, gauzen barna ikertzailea, emazte zintzo bat.

Bazterrak, eta bereziki Armendaritze inguratzan duten mendixkak, musika, kantuak biziki maite zituen. Ez izanik ere fededunak deitzen ditugun heietarik, elizako kantu ederrak ni baino botz xuxenagoko zon-

baiti kantarazten zituen. Elizak aire goxoenaz inguratu solas garratzekilako *Dies irae dies illa*-ri beha, eskua bihotzaren gainean emanik egoiten zen. Bestalde, bihotz ona zuen. Erretreta hartu eta karitate egile taldeez arta hartuz zuela bere biziko zorion handiena ezagutu, gogotik zuen aitortzen. Gaixoa! Zerbait jasanik joana dela lur huntarik! Lehenik bere alaba, oraino haurra, galdu zuen.

Mundu huntan gertatzen ez denik ez omen baita, gurekin domino jokoan ari zen aldi batez, neska maitagarri horrek atara zaukun bataioaren gutizia bazuela eta gurekin katiximarat joan nahi zuela. Uste dut gisa hortako entsegu bat ere egin zuen. Eta Linette gaixoa, nahikundezko bataioan ikuzirik, Zeruko Aitak bereganatu zuen. Ama batentzat, zer bihotz zimikoa! Senar idazle aipatua berriz, oraino arras gazterik min biziak eraman zion.

Bainan emazte dohakabeak karreatu kurutzetan dorpeena ez oté zuen bere semearen bizi maniera ikustea izan? Landesetan errient zelarik eta aita familiako, bitxitu zitzaion. Baionako karrketan nork ez du kurutzatu, jo harat, jo hunat? Azkenean, ama hil baino zenbait hilabete aintzin, hura ere min biziak eraman!

Erran dezaket Dalès andereak bere nahigabe guziak harrigarriko kalipu batekin jasan dituela. Duela hiru urte, Eguberri iriko arratsalde batez, oren erdi bat telefonan atxiki eta Armendaritzeko berriak xeheki erabiltzea gatik, ikusterat joan nindakion hitzemanarazi zautan. Ez nintzen guti harritu, handik bi egunen buruan berriz telefonatu zautanean, sukaldean eroriko bat egin zuela eta ixter hezurra hautsi zitzaio-

la. Bere ustez biziki ongi zolan eta laster elgarretaratu beharrak ginen. Zorigaitzez, gure arratsalde goxoa iragan aintzin, besten zerbitzuko bere bizi luzea eman duen emaztea, betiereko bakean sartu zen.



Beñat Karrika 1923-an, sei urtetan, Armendaritzeko eskola "ttipian".

IRAKURTZEN IKASI

Haur ttipien eskolarat, mutiko eta nesken eskolen arteko aterbe ilun batetarik heltzen zen. Ni bezain trixte iduritu zitzaizkitan oilasko eta lapinen artetik iragan nintzen. Alki apal batean jar arazirik, bihika gorri xuri perde beltzekilako ustai bat eskuetarat emanik, errientsak egun guzia bake osoan utzi ninduen. Zinezko lana, biharamuneko!

Hizkieri uste baino errexkiago ohartu nintzen eta hilabete baten buruko, hizki larri eta alimale buruekilako liburu ttipia merezitu nuen.

Erakasle ona nukeen, ezen Eguberriko bakantza bezperan, liburu handiarekin igorri ninduen. Etxerat lasterka heldu orduko, ene lehen lana amari paia baten irakurtzea izan zen. Alegia dena konprenitua.

—Biba xu! —erranik, aitari buruz igorri ninduen.

Gaixo aita, bazukeen eni beha egoiteaz besterik egiteko! Halere, abere-orgak geldiarazirik, akuliari kontra, irriño batekin beha egon zitzaitan. Ene paia bururatu nuenean, behi adarrari esku batez lotuz:

— Uste duxia! Hoin fite leitzen ikasi! —erranik utzi ninduen.

Ene bihotza, zorionak gainditurik, panpaka hasi zitzaitan. Ez nuela geroztik libururik zokoetan ahanzen! Begien aintzinerat heldu zitzaizkitan irakurgai guziak iresten nituen. Aitak, hamar urtetan, Donapaleuko fraiden kolesioan irabazi bi *Sainduen Bizia* izeneko liburu ederreri zonbat inarrosaldi ez nioten eman!

Aitortu behar dut haatik, ene arreba Mari baitan, etxean berean, bigarren errients paregabe bat banuela.

KATIXIMA ETA OTOITZAK

Eskolan abiatzeaz geroz, katiximarat ere joan behar. Amak liburu ttipi bat erosi zautan, baina liburu horri etxekotasun izpi bat hatzeman nion. Lehenik, ez zena dena euskaraz!

Katixima liburu ttipia dena euskaraz, eta gainerat lehen zatia ni lotsaraz ez nindezaketen otoitzez egi-na. Alabainan, ez nituena gau guzietz aditzen? Barrukiko lanak bukatzen zirenean, haurrak bizkarraz su alderat, burrasoak ximinei paretan zagon Mariaren itxurari buruz, harriaren gainean belauniko, ukondoak kadiraren gainean, ama gidari, denek elgarrekin arratseko otoitza erraiten ginuen. Maiatz eta urrietan ama gaixoa emendio batzuetarat ausartzen zen: edo bizpahiru hamarreko, edo latinezko litania luze heiek...

Alta, latina frantsesa bezalatsu zakien. Baina huts zombait eginik ere, beharri kilikez ez zuen zeren griña! Haatik, arrats batez, idurikatzen ez ginuena gertatu zitzaikun. Goseak otsoa oihanetik aterarazten duen bezala, adinari doakion beharrak gazteak etxe-

tik jalgi arazten zituen, eta beren gisako ihizirat bazoatzin, izpiritua erne, bihotza bero. Heien artean kurios zonbait ere gertatzen... eta berdin han hemenka barrandan ahusatzen!

Ama kartsutasun handienez latinezko litanietan han harat zoalarik, "*Refugium peccatorum*"-en ondolik, xurrutategi xilotik norbaitek, harrigarritzko oihu saminean, "*Ora pro nobis...i...is!*", guk baino lehena-go ihardetsi zion. Nihork ez dezake asma *oremus*-erat zoin nekez heldu ginen!

Barrandaria ama ezin adituz ez zitakeen biziki nekatu, frango botz garbi eta arina baitzuen... Otoitz berezi bat egin-eta:

— Araiz gure Jainkoak entzun gitik! —atera zaukun aldi batez, xurrutategi xiloko gertakaria iretsia ez zukeen haurride batek ihardetsi zion:

— Oixu, ez baxitu entzun, ez duxu guti elkortia!

Dena den, jada gogoz banazkien otoitzen irakurtzeak ez zautan lanik eman; eta, nihoren laguntzarik gabe, euskara irakurtzeari ohartu nintzen. Harrigarriki herabetsu izanik ere, zoin gogotik nindoan Goity jaun erretor sainduaren euskarazko katiximarat!

OMIASAINDU

1923-ko Omiasaindu bezalakorik ez nuen ordu arte ezagutu. Armendaritzeko usaia beste herrietan ere ba ote zen? Bezperetarik jalgi eta, armendariztarak, familiaka, nor bere etxeko hil-hobiaren aintzinean, emazteak begitartea salbu kaputxinaz gordeak, gizonak boneta eskuetan, otoitzean hasten ziren,

Haurrak, arrosarioak ukaraitik dilindan, batetik bestera bazoazin. Zaharrenek bazakitela lehenik norat joan! Herabe izpi batekin hurbiltzen ginen, eta ardurarik etxekandereak manatzen zuen hamarreko bat... edo biga... edo errekiek andana bat. Otoitzaren luzetasunari zoakion saria biltzen ginuen: sos bat, edo biga, eta zombait aldiz bost sos. Orroit naiz ikaran hurbiltzen nintzala, norbaitek oraino ez nakien otoitz zombait galdegin beldurrez!

Batzuek denek bixtan beren emaitza eskaintzen zautaten. Beste batzuek berriz, aintzinetik sakelari ezarriak zituzten sosekarik bat esku petik ahurrera gordeka bezala emaitzen, erranez:

— Ontsa duxu! Baduxu aski erranik!

Hauieri Agur Maria zenbait gehiago emaiten nioten!

Etxetik atera aintzin amak erraiten zaukun:

— Egizue otoitz Ama Birjina gogoan, eta ez sosa!

Ez ditazkela batean bi nagusi zerbitza... ebanjelioan irakur ditakeen egia handienetarik!

Zonbatetan ez zitzaizkitan, Mariaren itxura ezti haren orde, Napoleon III-garrenaren itxura zaukaten sos beltz handi heietarik bat, edo erdian xiloarekilako sos xuri heietarik bat, begien aintzinerat heldu!

Geroxago jakin nuen Goity jaun erretorak ez zuela usaia hori begi onez ikusten. Bainan holako usaia baten kontra, nor mentura zerbaiten erraiterat?

Beti, Jainkoak berak dakien Agur Maria eta erre-kien andana erranik, hiru liberaz goiti bildu nituen, eta ordu arte bazterretik so egona nintzaion joko debru batetarat ausartatu... Bai... “kaxkian” hasi!

KAXKIA

Armendaritzeko errabote berri ederra mutiko gazteentzat izanez, zenbat igande arratsalde kaxkian iragan ote ditut? Etxemendi eta Urruzpuru aintzinetako harri heiek eleketa balakite!

Bospasei lagun elgarretaratu eta, bakotxak bere jokoa ezarriz, sos guziak alde bererat metatzen gini-tuen; eta, bost urrats urrunagotik, bi soseko beltz handi bat meta hari buruz botatzen. Gehienik hurbiltzen zitzaionak jo meta... eta itzuli sos guzien jabe. Ez uste ukan gauzak beti errexki zoatzila: batzuetan ahurrarekin edo, denen ahurrak desberdinak izanez, mokanesarekin, meta eta botatu sosaren arteko bidea izartu behar!

Gainerat, sos itzuliak batzuek besteek baino laster-rago ikusten... eta biltzen! Begiak erne atxiki eta boterea erakutsi behar! Ez zen beti errex irabazdun ateratzen. Bainan limonada baten doia, erran nahi baita hemezortzi sos, baztertzen nuenean, Jan Piarre Elizagaraiko nagusi xaharraren ganat banindoan las-

terka. Ez zen oraino edarien hormaren gainean atxikitzeke usaiarik, bainan Jan Piarrek zoin freskorik zauzkan soto xokoan!

—Limonada bat nahi nikezi —erran eta ixil-ixila soto ilun hartara sarrarazten ninduen; eta han, kani-ka bat erhiaz zapatuz idekitzen ziren limonada botoil heietarik bat husten nuen. Zintzurra xixtatuz zoan edari haren goxotasuna! Bestalde, adin hartan ostatu batean sartzea bera ez ote zen gizontzea?

Haatik, behin ene gizon itxura laster zapartatu zitzaitala! Sototik itzultzean, ez nuena, erraiteko maneran nihoiz ostatuan sartzen ez zen aitarekin buruz-buru egin!

Sugeak bentzuturik Jainkoaren aintzinean buluzirik agertu lehen burraso heiek bezain ezdeus gelditu nintzen.

—Zer hartu du Beñatek? —aitak galdegin.

Eta Jan Piarrek ihardetsi zion:

—Bô!... Limonadaño bat!

Oi mirakuilua! Ni gaizkitu gabe, hain maite zuen Kaiet Etxarteko lagunarekin aita solasean hasi zen. Gaixo aita!

UHALDEA

1923-ko uraste edo uralde hura bezalakorik armen-
dariztarrek egundaino ikusi ote dute? Eskolako taula
beltzean irakurtzen ari ginelarik, hitzak ezin ikusizko
heineraino denbora ilundu zitzaikun eta harrigarriko
euri uhar azantza aditu ginuen. Bat-batean, baratze
alderat beti hetsirik zauden leihoen arteketarik, ez
euria, bainan ura gela barnerat sartu zitzaikun. Hau-
rrak elgarri soka, Dalès anderea iziturik zuritua, ez
zen irri egitekorik.

Lau orenak gabe jalgi ginelarik, zer ikusgarri laz-
garria! Zelai guzia uretan, eskola aintzineko erregebi-
deak erreka baten itxura hartua: ziri, egur, abar, untzi
zahar eta denak berekin zeramatzan, hiliki ezdeus
batzuen pare. Ura zenbatetaraino iragana ote zen?
Beharrik, eskola erregebidea baino metra bat gorago
egina zen. Ez nintzen guti harritu, ur hori lohitsu
hartan xakur xuri ttipi bat igerika johan ikusi nue-
nean, itxura guzieren araberez galdua eta denetaz debal-
de utzia.

Usaian gertatzen ez zena, burrasoak heldu ziren, batzu oinez, besteak abere orgekin.

Han zen ere gure familiak hain maite zuen Mendiondoko Jeanne, Elhinatik jautsia, bere seme Kaieten eta Oihanburuko iloben bila.

Bainan zerek buruan jo ote zuen errienta, gaztigatua zuen Kaiet kasu hartan jalgitzerat ez uzteko? Jeannen behakoa zerua bezain beltz bilakatu zen, eta aski kexatu eta euskaldunek eskapatzerat uzten duten adar luzeekilako haren izena, beharri luzeekilakoarena, eta gero... segidako harena, ahoan bilorik gabe, Dalèsi igorri zizkion. Erdaldun guzien gisa, Dalèsek ere hitz horiek zituzkeen euskaraz lehenik ikasiak, ezen berehala konprenitu zuen Kaiet libratzea hobe zuela.

Beharrik, aita ere etorri zitzaikun, eta hiru anai-arrebak orgetan ezarririk, tafla... tafla... belaunetarainoko urean zoazin behien aintzinean, Karrikako zubiraino aski aise heldu gintuen. Bainan hango uraren oldarra! Behiek urrats bat gehiago ez egin nahiz, zubiaren hegiak nuntsu zitaizkeen akuliarekin miatu eta ene konkolotx eramaiterat entseatu zen, bainan gutik egin zuen urak ez baigintuen biak berekin eraman! Iragan bide hoberik ba ote zen aita iker eta iker ibili zen, eta futxo ez hatzeman. Iluna heldu, euria ere jauts ahala... Zer egin?

Aita gogoetatua zagolarik, Legartoko etxekandere Dominikak baratzetik oihu egin zaukun:

– Zaurte hunat! Gaua hemen iraganen duzue!

Eta Karrikako lasto meta ondotik, uraren arrabots izigarriaren gatik, ama ere aditu ahal ginuen:

– Ez gutaz griña! Zoazte Legartorat!

Beraz, bera nunbeitik etxerat helduko zela, aitak Legartorat heldu gintuen.

Ene kezka! Alta ez nuen zeren izi. Hango haurrak baino maiteagorik ez nuen; Dominika baino emazte hoberik ez zela, jada errana dut. Gainerat, Jakes nagusiak ez ninduena katiximarat johan nintzen ortzegun goiz batez, bere zangoen gerizagailu zaukan estalgiaren erdiaz ene belaunak gorderik, Bidarteko bide kurutzeraino zaldizko karrosan eramana! Ez ninteen nihun Legartoan baino hobeki eror. Bainan ordea, ez bainuen oraino etxetik kanpo gaurik iragan!

Legartoko sukaldean, zombait mendi xokotako eskolatan baino haur gehiago bazen: gu hiru anai-arrebak, eta etxeko zortziak, Elena ez baitzen ene ustez oraino sortua. Zer kalapita ahal zen? Supazterrean beroarazi eta, Dominikak deneri afaitera eman zaukun, eta gero jostetan hasi ginen.

Xoko batean, gerrena gibel aldearen azpian emanik, behakotik iduri izpiritua nunbait alhan, Jakes arto bihitzen hasi zen.

Batek hola nahi, besteak hala, nor, nun, norekin etzanarazi karkulak zoatzilarik, aita sartu zitzaikun erranez:

—Urak sartu dira!

Erresorta batek altxarazi banindu bezala, brau! xutitu nintzen. Legartoko haur maiteak aldiz, arras kexu: aldi bat usaiaz kanpoko zerbaiten mentura gertatu eta... ttutt! Urak emana, urak joan!

Auzoko familia paregabea eskerturik, gau beltzarekin bainan bihotza arin, oraixtian ur salbaiak bere tu zubitik etxerat bildu ginen. Ene zoriona!

AMIDALAK

Buru hausterik gabeko mementorik ezagutu duen norbait gutartean ba ote da?

Eskolarat heldu eta lerroan jarririk, eskuak, lepoa, beharri ziloak andere Dalèsi erakutsi behar ginituen. Garbi bazauden, laudoriorik ez; bainan hanbat gaixtoago zikin aire zituenarentzat!

Goiz batez ez zitzaikuna gure andere bipila, ahoa idekiarazi eta kullera ttipi batekin mihia zapatuz, lepoa eskuin eta ezker bihurtikaraziz, zintzurrari behaka hasi! Gure zintzur zolan zer mila debru xekatzen ote zuen, arras gogoetatua nindagon. Haurrek segeretuak nunbaitik zilatzen... laster jakin ginuen amidalak zituela partida.

Horra nola amidalen sapak, sukarrak edo modak herri guzia jo zuen! Mutiko mehats txar bat zinen? Amidalak! Ardura marranta? Amidalak! Kokaluxea edo oilar-kantua, gorriña, gripa biltzen zinuen? Amidalak... amidalak... amidalak! Ihiztariak erbiaren ondolik bezala, egiazko mediku ala basa mediku, amida-

len ondotik zabiltzan. Futxo, ezin ukatua! Ahoa idekarazi eta hantxet, zintzur zolan, zerbait ezagun... dudarik gabe amidalak!

Hain xuxen, zintzurra arras minberakorra nuen, eta noiz nahi ezin iretsizko heineraino hesten zitzaitala iduritzen zitzaitan. Oiloen moskoa bortxaz idekarazirik haixturrekin biapiaren mozten ama ikusia bainuen, harritua nindagon halako zerbait eginen zautatenez. Zintzurreko min bat baino gehiago jasan nuen nihori salatu gabe.

Azkenean, xekatuaren bortxaz, amidalak moztearen beharretan zen bat hatzeman zuten: Gaineko-Mehaburuko Felix! Beraz, eritasun debrua kartierrean sartua nuen. Goiz batez, erregebidean, amidalen motzarzterat aitarekin johan, Felix gaixoa ikusi nuen. Giberat noiz ikusiko nituen, zenbat aldiz behatu ote nuen? Eguerdi ondoan oinez heldu zirela ohartu nintzenez, zainak sosegatu zitzaizkitan. Bitima batek eritasun debrua bentzutu ote zuen?

Moda, jin bezala joan zen; eta ni ene amidalekin, erran nahi baitut ene zintzur minberarekin, gelditu.

IRATXIPIKO LEONI

1923-ko urtea bururatzean, ene arreba Iratxipiko Leoni dendariarekin josten ikasten abiatu zen. Aldi bat baino gehiagotan egon naiz Armendaritzeko herriarentzat zer suerte ona izan zen Leoni bezalako neskato gazte bat gertatzea.

Ene ustez osagarri eskasez, Bordeleko izeba baten ganat igorri zuten, eta han dendaltza eta musika errortik ikasi zituen. Herritar eta auzo herritar, zenbat petikorako neskato ez da Iratxipian ibili josten ikasten! Eta, josten bezala, beste zenbat gauza on ez dute ikasi! Astirietan, arreba heldu zitzaikun han entzunez ahoa beterik, ezin ixildua. Hari beha, zer eta zer ez dut nihaurek ere ikasi; hala nola oraino gogoan ditutan kantu pollit batzu: “Zauri, gaua heldu da” edo “Itsas bazterrean” edo “Jaun bele” edo “Gerlatik itzuli gudaria”.

Oroz gainetik, Leonik bazukeen liburutegi bat ez txarra. Adin eta adimendu arau, liburuak neskato gazteeri prestatzen ziozkatzen. Mezarat eta bezpereta-

rateko bidean, ttıl... ttıl... ttıl... arreben eta auzoko neskatoen gibeletik, nik ere heiek irakurtuetarik ahamen zenbait biltzen nituen. Adin hartan ez denak konpreniturik ere, ohartu nintzen *roman* edo ipuiberri horietan, gauzak hastean hala-hola zoazila, erditsutan biziki gaizki, eta mirakuiluz bezala biziki ongi bururatzen zirela.

Bestalde, aprendizeri kondatzeko, beti ixtorio luze bat bazuen Leonik gogoan, eta ezkongaien arteko trabek, nahigabeek, adin hartako bihotz beratzak hunkitzen, hausten! Mokanes zorbait sakeletarik aterazten, eta berdin hipako zenbait adiarazten! Noiztenka laguntzerat jiten zen emazte batek, Juana Sallagoityk, ixtorioaren gora-beherak errexki jasaiten zituzkeen, bainan hamalau hamabost urteko neskato heien hipakoak nekez. Memento hitsenean Leoniri erraiten zion:

— Ez dixi balio idurikaraztea! Berdin horiek biak liburua bururatu aintzin elgarretarako dituxu. Orai berean ezkontarazkitxu!

Bestalde, Leonik zuen elizako organoa jo egiten, eta neskato gazteeri kantuz erakasten.

Bixtan da Dalèsek ez zezakela holako neskato bat bere liburuan aipatu gabe utz. Horra bestek beste zer dion:

“Ce n’est pas une couturière, c’est une artiste! A l’église, elle évolue entourée de ses élèves comme une reine de sa cour”.

Goity bezalako apez bat erretor... Elizetxeko aita semeak bezalako hiru xantre... Leoni bezalako musikari bat kantuen gidari... ez zela parrokia gaizki!

Leonik ez duke egundaino asmatu zoin barna sar eta zoin urrun heda zitazkeen haren erakaspak. Ez baitzen ohore gose heietarik, otoi barka diezadala omenaldi labur hau.

BUHAMEAK

Nolaz jarria ote zen ene baitan buhameen alderako beldurra? Ez ninduketen alta iziarazi behar. Suhuskune Etxeberrian ginelarik, urte guzietz Madalenako beilarat zoan buhame leinu batek, gau bat gure etxean iragaiteko usaia hartua zuen. Bertz bat oretx iretsirik eta belarrean lo eginik, goizalderat bazoatzen xoriak bezain alegera.

Bainan 1924-eko urte hastean Armendaritzerat etorri ziren heiek ez nituen batere begi onez ikusi. Gaineko-Mehaburuko eta Karrikako pentze zolarainoko erregebide bazterrean, hamar bat karrosa, emeki emeki, bat bestearen ondotik, lekuratu ziren. Ez aztaletarainoko zaia bitxi batzuez beztituak ziren nesken ganik, ez heiek bezalako biga jasanen zituzten galtzekilako mutikoen ganik, ez hesietan karakoilketa zabiltzan emazteen ganik, ez eta ere bertz zahar batzue-ri joka ari ziren kauter bizardunen ganik, ez nuen demendreneko aiherkunderik senditu. Halere, esko- larat eta katiximaratekoan heietarik egin ahala urrun,

eta burua ardura gibelerat itzuliz iragaiten nintzen. Ez zituzten nik nahi baino lehenago lekuak hustu!

Aldiz, lekukotuak ziren eta etxez etxe zabiltzan buhame zenbaitek ez ninduten batere izitzen. Xingarrrez aberats ginen sasoinean, Mehainetik etortzen zitzaikun armendariztar zenbaitek oraino gogoan dukete Juana buhamia.

—Hela! Juana buhamia hemen dela! —atetik oihu egin eta, begitarte zabal eta gozo batekilako emazte azkar bat, gainetik idekitzen zen zare beltz bat besotik, hamekak eta eguerdi artean sukaldean sartzen zitzaikun. Tenore hartan ez zitakeen nihor jaterat gomitatu gabe utz. Zonbaiten ganik baia nekez biltzen balinbazen, Juanarekin gomitaren errepikatze beharrik ez zinuen! Gure jendakia parte bat Donoztiri, Amoroitze eta Mehainen izanki eta, hiru herri horietako berri nihork ez zakien Juanak baino hobeki.

Gustuan bazkaldurik, zare beltz hartan xerriki puska zenbait sartu eta:

—Gaixo jendeak! Jainko Jaunak suerte ona emanen dautzue! —bospasei aldiz errepikatzen zaukun. Jendeeri, kabaleri, bazterreari, zarerat sartuaren araberrako edertasun, eta haurreari araberrako prestutasun, hatzemaiten zioten.

Damurik zen bakan etortzen!

JUVENAL FRAIDEA

Hameka orenetan, eskolatik landa, katiximarat lasterka gindoazin. Otsaileko astelehen batez, jaun erre-toraren ordain fraide bat hatzeman ginuen. Juvenal erraiten zioten eta kartierrean ahideak bazituela uste dut. Ez zen katiximaren egiterat etorria, bainan fraide-gai keta zabilan. Lehen aldia nuen fraide bat ikusten nuela eta haren arropa eta papoko hegal bitxi heien aintzinean arras kezkatua nindagon.

Luzaz fraideek eremaiten zuten biziaz mintzatu zitzaikun. Gogoan atxiki nuena, haren arabera ez zirela batere malurus, bainan ez zautan heien ganate-ko gutiziarik bihotzean sortarazi. Paper zakutra bat oñoña bazaukan bere alki ondoan. Fraide egin nahi zinuela erranez, oñoña doblea bil omen zinezakeen. Bakotxak bere aldian beharrirat erran behar zion handitu eta zer egin nahi zuen. Sei urtetan, nolaz jakin nezakeen zer egin gogo nuen?

Etxeko kolidor mutur batean amak hatzemaiten

ninduen Goityk bezala egin nahiz mezaren erraiten. Behin galdegin ere zautan:

— Apez egin gogo duxia?

Kabaletan maiteena astoa bainuen, “Asto martxant nahiago dixit” ihardetsi nion.

Beraz, Juvenal fraideari gauza bera ihardestea nuela hoberenik jin zitzaitan gogorat. Ene aldi jin zelarik, egin ahala beharri zilorat eta egin ahala apal ihardetsi nion:

— Asto martxant!

Haren behakotik berehala senditu nuen ez niola halaxet kausitu.

— Alo! —erran eta murririx murririxa oñoña batekin utzi ninduen.

Zonbait lagunek erranak karnet ttipi batean izkiri-riatzen zituela ohartua nintzen, bainan ene ihardespenak ez zuen gisa hartako ohorerik merezitu.

Zonbait denboraren buruko jakin nuen fraide bat Uhaldean izan zela, eta hango ni baino zaharragoko mutiko batek fraide-gai joan nahi zuela. Eta gure laguna joan Armendaritzetik! 1932-ko urtean Baionan hatzeman nuen Elanderen jendeketako autobuserat etorria, armendariztar zonbait bere begiez ikusi nahiz. Zoin harrigarria den haatik guretzat sorlekua-
ren ganako lokarria!

Gure mutikoa arras kezkatua iduritu zitzaitan. Baionarat etsamina baten iragaiterat etorria zen, eta egin zuen hutsaz harriturik zagon. Zezenak aipu ziren izkiribu batean “toros” izkiriatua zuen, frantses moldean izkiriatzeko orde. Lehen aldikotz gogoan erabili nuen zein errexagoa den gure hizkuntza: euskaraz,

gatus... gatu! “O” aditu eta “o” izkiria, “o” eta “au” eta “eau”-ren artean hautatzeko buru hausterik gabe.

Oraino bizi balinbada, Uhaldeko fraideak ahantzia duke orduko kezka, handiagorik ukan baituke. Nik ez baitut hura arras ahantzia, bihotzetik diot: agur!

ELIXABEHEREKO MAÑE

1924-eko urtea arte biloa amak mozten zautan; bainan eskaler zenbait egiten zituelakotz, handik goiti Mañe Elixabeherekoaren ganat igorri ninduten.

Nor zen Mañe? Gizon xahar, zintzo eta ixil bat, parrokiako giltzaina. Zenbat eskukaldi ez du egin bati eta bertzeari! Makurtu zerbaiten xuxentzeko ez zela gai erraiterat ez zitakeen mentura. Zure erlojak orenak oren erdietan jo egiten zituen? Hitz erdi bat erran orduko heldu zitzaizun etxerat, eta zuhaur ohar-tu gabe ere zer egin zuen zure erloja zentzuratzen zen. Pilota ukaldi batek lunetak bi zatitan ezartzen zauzkitzun? Oren batez entseatuko zen bi zatiak elgarretaratu beharrez. Hots, Armendaritzeko xitxuketaria zen.

Aste egunetan Elixabehereko aita-sumeak arozte-giko lanetan laguntzen zituen. Igandetan, aldiz, meza nagusi ondoan, bilo moztaille bilakatzen zen. Arozte-giko erre eta burdin usain heiek arras goxo zitzaizkitan, baina bilo mozteko mekanika zerekin xorroxten

ote zuen? Iduritzen zitzaitan ez zituela ene bilo ondoak mozten, bainan bai errotik ateratzen. Etxetik joan aintzin, amak errana:

— Biloa moztean ez zaxula burua higi.

Ezpainak tinkatuz, eskuak artean ezarri eta bi belau-nak elgarri josiz, izerditan, lana noiz bururatuko zuen kezkatua egoiten nintzen.

Sobera izertzen nintzenean, mozteko mekanika, haixturak eta orrazea ingudearen gainean utzirik, ahamen baten bila joaiten zitzaitan. Ez zela haixturren aldi nik nahi bezain laister jiten! Azkenean, “La! Horra!” aditzen nuenean, bost soseko xuri bat ahurrerat emaiten nion, eta burua itzuli gabe aroztegitik banindoan, hilabete baten bakearekin.

Aldi batez, haatik, ez dakit ez untsaz ala mekanika lanpustuaren gatik, abantxuño alditxartu nintzaion. Bere kontra atxikiz, mateletan zartaka hasi zitzaitan. Zer nuen partida ohartu zitakeen eta bere lana haixturrekin bururatu zuen. Etxerat xurixko sartu nintzeen, ezen amak galdegin zautan:

— Ez xirea untsa?

Eta tormenta zoin nekez jasaiten nuen salatzerat nolazpeit menturatu nintzen.

Gaixo Mañe! Oraiko ene biloaren mozteko, haixturak eta... bixta ona aski lituzke! Oro hura bezalako zerbitzu egile izanez, mundu hau parabisu bat liteke.

DOMINIKHA HAIXTOI

Eskolarat gogotik nindoala jada errana dut, bainan ez uste ukan ortzegunak hastio nituela. Lehenik, kati-xima aintzin eta ondo, pilotan ar zitakeen; eta gainerrat, hilabeteko ortzegun batez, dendaria etxerat heldu zitzaikun. Ez nuela ortzegun berezi hori bi sosetan saltzekoa! Dendaria Dominika Haixtoikoa ginuen, eta Dominika Haixtoi ez zen nor nahi.

Itzala bezain ixil, argitu orduko etxean ginuen, eta denborarik galdu gabe lanari lotzen zen. Katiximatik itzuli eta supazterrean jarririk, amarekin erabiltzen zituen berrieri beha loriatua egoiten nintzen. Aditu behar ez nuen zerbaiten aldi heldu zelarik, amak abarketa igortzen ninduen. Ez nuela bidean denborarik galtzen!

Hainbeste berri aditu eta heietarik bat baizik ez dut gogoan eta hura salatuko dut.

Gauaz Dominikak lo guti egiten zuen, eta egun guzia jarririk iragan behar baitzuen, lanerat joan aintzin oinez itzuli bat egin behar zuen; Karrikarat jin

aintzin plazan gaindi ibili zen eta, hilarrietan iragai-
tean, iduritu zitzaion elizan argi bat bizirik ahantzia
zutela. Atea ez arras hetsia izanki eta egin ahala ixilik
barnerat behatu zuen. Zer ikusi zuela uste duzue?
Goity jaun erretora aldare aintzinean belauniko, bi
besoak zabaldurik, otoitzean...

— Ez naiz batere harritzen — zion amak erran.

Eguerdi heldu zenean, Dominikak, bi begiak hetsi-
rik, jan aintzineko otoitza egin eta bere apairua eme-
ki emeki bururatzten zuen. Ez zela saldari kullera
betez lotzen! Hurruparik ez zinion, nahirik ere, adi-
tuko. Halako jale pollitik ez dut ene bizian ezagutu.
Zer jarraibide ona Karrikako haurrentzat!

Dalèsen etxean ere ibiltzen zitakeen, ezen horra
zer dion bere liburuan: “Anjelus entzuten duenean,
jatetik gelditzen da, eta bere otoitza egiten du. Sain-
du baten begitartea du. Bazkaldu eta berehala lanari
lotzen da, eta arratsaldeko anjelus arte ez gelditzen.
Gutiago irabazirik ere, harekin kurutze seinalea egi-
ten duten lekuak laketago zaizkio”.

1930-eko urtean, kolesiora joan nintzelarik, Haz-
parnen bikario zen Etxebazterreko seme apezaren
gelari zen, eta ez kartierreko apez gazteak, ez gure
dendari ohiak ez ninduten ahantzi. Noiztenka, lauak
eta erditako josteta denboran, Mailluquet gure apez
zaintzaleak, paper batez untsa inguratu botoila bate-
kin, bikarien egoitzarat igortzen ninduen. Botoila hura
biziki arina zela iduriturik, aldi batez inguruko papera
pollikiño baztertu nion: botoila hutsa zen!!! Delgue
apez maitagarriak eta Dominikak arratsaldeko askari
on bat egin arazirik itzultzen bainintzen kolesiorat,

jokoari ohartua nintzela ez nuen nehoari erakusterat eman.

Milesker Mailluquet eta Delgue apezari, eta Dominika gaixoari!

BI GERTAKARI TRIXTE

1924 urteko lehen zatian, bi gertakari trixtek Armen-
daritze inarrosi zuten.

Negu erditan, orai naski aise bentzutzen dutena, bainan orduan dorpe zaukaten izurrite bat mutikoen eskolan sartu zen: meninjita. Eritasun debru harek bi mutiko betan jo zituen. Bat Frantxoa Etxegaray, bere bizi guziko ondorio txarrarekin utzi zuena eta bihotzetik agurtzen dutana; eta bestea, Peio ene anaia.

Frangotan han edo hemen holakoa eri handi zela aditua nuen, bainan eri handi izaitea zer zen orduan egiazki jakin nuen. Bederatzi urteko mutikoari oinaze izigarria oinetarik zango sagarretarat, zango sagarretarik belaunetarat, gero bizkar hezurrerat, eta azkenean bururat igan zitzaion. Haren oihuak kanporat adi zitazkeen eta sukar-ametsetan hasi zen. Gainerat, belau-nak kokotsari josi zitzaizkion. Larre Irisarriko jaun mediku zaharrak laster ezagutu zuen meninjita eta haurren herbaildura zituela.

Anai-arreberi bizi-moldea aldatu zitzaikun: esko-

larat ez ginen haizu eta ez ginuen eriarri hurbildu behar. Astean aldi batez ganberako atea ideki eta ezkaratz zolatik keinu batzuen egiteko baimena bai- zik ez ginuen. Burasoentzat zer kezkak eta zer lanak! Gau guzia eria beilatu behar eta egunaz lan egin! Goizetan medikuak Peioren bi zangoak pollikiño beren usaiako egon-moldean ezartzen zituen eta gero arta- tzen zuen. Izigarriko kanfre olio usaina hedatzen zitzaikun etxe guzian. Gero, mainatzeko askarik ez uka- nez, xurru batean intzaur ostoa barnean egosarazi ur epelean, mihisen barnean, eria behar zen oren laurden bat atxiki.

Zonbait asteren buruan, ez dakit mainutik jalgi- tzean edo zer gisaz, hirugarren eritasun batek anai gaixoa jo zuen: errefriak! Eta goiz batez amak, niga- rra begian, naski azken orena hurbildua zela erran zaukun. Abantxuño egun guzietz etortzen zitzaikun Goity jaun erretorak ere gauza berttua zion. Larre medikuak aldiz harritu gintuen: eria ikertu eta amari erran zion:

— Nik orai dizit esperantza! Errefriak beste bi eri- tasunak ezeztatuko ditizi!

Sudur oneko medikua zitakeen! Harek erran beza- la, anaia emeki emeki hobekitu zen eta azkenean sendatu.

Primaderan aldiz berri izigarri bat herrian hedatu zen. Maiatzeko igande egun eder batez, hemeretzi urteko mutiko gazte bat, Mendigaraiko Domingo, hila hatzeman zuten. Iholdiko bide bazterrean zuten pen- tze batetako pasu baten tapatzerat zoalarik, lurrean herrestan zagon eletrika piru bat hunkitu eta han berean erre zen.

Deputatuen berritzeko bozkak baitziren, bozkatzerat eta elizkizunetarat zoazinen artean ez zen beste solasik. Beraz, elektrikak gizona erre zezakela ohar-tu nintzen. Ondoko egunetan, Dalès andereak eskolan errepikatu zaukun lurrerat erori eletrika pirurik ez zela hunki behar. Karrikan ez ginuen holako lanje-rrik eta gogoan erabili nuen beharrik ene irakurtzeak supazterreko sugarraren argitan egin nitzazkela!

OGI JOILEAK

Beharrik, 1924 urteko bigarren zatia enetzat lehen baina airosagoa izan zen.

Lehenbizikorik, Dominika arrebaren zertifikata dut gogoan. Aintzineko urtean, Legartoko Jeanne, Barberaineko Olga eta Mari ene arreba; eta 1924-eko urtean, Legartoko Marzel, Barberaineko Karmen eta Dominika ene arreba... Hiru etxe horietako haurrek iduri zuten elgarri jarraiki beharrak zirela! Beti, hiruak Iholditik beren paperñoarekin etxerat itzuli ziren; geroxago hiruak Ameriketara gaindi ibili ere, eta hiruak oraino bizi eta agian luzaz biziko ere.

Oroitzapen ona utzi dautan bigarren gertakaria izan zen ogi joitea. Geroztik, ogi joite pilika bat ikusi ditut, bainan hura lehena nuen. Zer besta! Bezperan, panpalin ederrenekilako ustaiak lepotik, marrega ederrak bizkarretik, lau idi eta behi pareek batusa eta bapur pizu heiek Karrikako pentze patarrari gora tiratu behar! Noiztenka hatsa hartuz, muturretik haguna zariotela, nolazpait heldu ziren etxe sahetserat. Gero zen han Karrikan etzan behar zuten mekanizierren-

tzat lana: batusa eta bapurra plomuan eta haxean ezarri arte zonbat eskukaldi, izerdi eta sakre!

Gau hartan, gu gabe has ziten beldurrarekin, lo guti egiten ginuen. Goizeko hiru orenetan mekani-zierrak bapuraren beroarazten hasten ziren. Zer egur eta ur andana ez zuen mekanika alimale debru harek iresten! Auzoak heldu ziren xixpa bizkarrean, alege-
ra, dena oihu eta irri karkaila. Lau orenetan bapurra-
ren xixtua joarazi behar eta lan hura ez nuela nihori utzi nahi! Herri guziari adiarazi nahi nion xixtu sami-
na, zoin luzaz joarazi nuen!

Ixtant batez batusaren burrunba eta lastoaren errauts izigarrien erdian, mokanesa lepotik, espal emaile, las-
to eramaile, zaku iragaile eta lasto meta egile karras-
kan lanari lotu ziren. Ene lana, edaterat emaita eta...
so egitea. Lanaren artetik eta ondotik zer askari eta
bazkari airosak! Ixtorio xahar, irri, eskarnio, oihu,
kantu eta berdin bertsu oker aire batzu! Azkenean,
ezin egona loturik eta akidura ahantzirik, denak
dantzan!

Oihanburuko oseba Manez sustatzaile, zazpi jau-
ziak, hegi, xarmantinak, mutxikoak eta nehola ere
basoa xutik utz ez zezakeen baso dantza... Ez zen
gelditzerik. Lehenago euskaldun gazte zenbait Ahur-
tin egoiten omen baitziren kaskoinaren ikasteko, Mane-
zek kaskoin dantza batzu kaskoina baino hobeki ika-
siak zituzkeen, ezen mahainaren inguruan, hala lanean
arizan gizon heieri "*Yan petit*" dantzarazi baitzioten.

Ez dakit xuxen laborariet orai nolako bizia dera-
maten; naski ez orduan bezain dorpea. Aitortu behar
dut urte hartako ogi joileen elgertasunetik jalgi goxo-
tasuna ene bihotzean sartu zela.

BESTAK

Noizbait etorri ziren Armendaritzeko bestak ere, ene lehen bestak! Herriak itxura berri bat hartu zuela iduritu zitzaitan: etxeak gisuz xurituak, etxekandereak lantsu, haurreri eta gazteeri ezin egona lotua.

Igande goizean etxea kofoin baten pare bilakatua zen. Ahide andana bat gomitatuak izanki eta ezkaratzeko mahain luzea dafailaz estali behar eta mahainetakoak deus ahantzi gabe ezarri; ama, maionesa ezin kausituz kezkatua; jo harat, jo hunat, batek hau eta besteak hura falta!

Luzexko hatzeman nuen mezaren ondotik, musikkak plaza ingurua egin zuen eta gero jo dantza jauziak. Ni etxerat itzuli orduko, izebak han ziren oñoña paper zakutra batzuekin, eta osaba-kusiak heldu paltoa sorbaldatik dilingo, jada ezin ixilduak. Bazkari luze harek ez zuen bururatzerik!

Enetzat besta pilota partida zen. Lau orenak joak eta ikaran nindagon, plazarat heldu gabe partida has zadin beldurrarekin. 1924-eko pilotariak ez ziren nola

nahikoak: alde batetik Arze eta Antchagno, eta bertetik Leonis eta oroitu ahal ez naizen izeneko pilotari on bat.

Harrigarriko borrokaldia egin zuten eta doi doia astiriko partida trenkatu. Haatik, Mendiriko Domini-xeren kundatzeko moldean ez nuen deus konprenitu. Taula xilokatu bat eskuan, xiri batzu bazabiltzan xilo batetik bestera, batean aintzin eta bestean gibelerat. Aitak erran zautan kintze eta jokoka ari zela, luzeko jokoan bezala. Zenbait herritan gisa hortan kundatzeko usaiak 1924-eko urteraino iraun zuela aurtent jakina dut, *Eskutik*-ek erranik.

Partida erditsutan, sei botoil eta arratz bat berekin zakartzan xiberotar bat pilota plazaren erdirat sartu zen. Botoil bat buru gainean eta arratza eskuz joz, musikak eman "*mont'la d'sus*" airean dantzan hasi zen... eta botoila xutik egon! Eta gero bi botoil... hiru botoil... sei botoiletaraino heldu zen. Azkenean, berak botatu bonet bat seigarren botoilaren lepoan kokaraziz, azken "*mont'la d'sus*" emaiten zuen. Zer esku zartak eta bi soseko andana ez zituen bildu!

Egundaino jakin ote du eskarniatzaile bat Armen-daritzen ukan zuela? Battitta Hitta, Serorategiko seme gazte maitagarri eta jostagina. Mauletar dantzariak bezain buru gaina xabala zukeen, ezen botoilak buru gainean mutxikoak dantzatzen zituen!

Aitortu behar dut nihaurek ere botoil zenbait hautsi nituela gordeka, heiek bezainbat egin nahiz.

BESTA ASTELEHENA

Gaizki bururatu behar nuen besta astelehena alegeraki hasi nuen. Bezperan hain ongi bazkaldu eta auhaldu gizon heiek tripa salda eta tripakia zoin gogotik iretsi zituzten! Ez zen mirakuilu, gisa hartan askaldu eta, hilen mezan airoski kantaturik ere!

Meza ondoan pilota partida: ez banaiz urtez tronpatzen bederen, alde batetik, Lagrenade eta Laborde apezak; bestetik, Euskal-Herriko errabotetan zenbait partida eginik 1974-ean hila den Mathieu garruztarra, beste amikuztar bat lagun. Laborderen paso bortitzak eta Mathieuren jo gozo segurra errotik gustatu zitzaizkitan.

Partida erditsutan, Laborde apezak bere indar guziaz jo pilota batek, mutiko bat matel hezurrean kausiturik, lurrerat bota zuen. Mutiko ezazola! Erraboteari datxikola den murruxkaren gainetik zagon partidari begira! Bi hortz hautsirik, murruxka bezain xuri eramán zuten.

Ez zen asteleheneko bazkaria ere berehala buru-

ratu! Azkenean, ahideak, bakoxta bere bixkotxa partearekin, denak besarkatu ondoan, joan ziren plazarat eta arratsaldeko pilota partida hastetik buru ikusi ahal ukan nuen; hironazkako partida: Laffitte apezka Lagrenade eta Labordekin, eta Xala goizeko bi amikuztarrren lagun. “Biba beltzak!... Biba xuriak!” han entzun zitazkeen oihu eta esku zartak!

Ilun-zeinuetako, bi anaiak, bihotza izpi bat ilun, sukalderat sartu ginen, eta etxea hutsa hatzeman. Burrasoak landarat joanak ziren. Horra nun bat-batean ilunpe hartan buhamesa bat sartzen den: Maria buhama! Harriturik, urrats baten egiteko zangoak gai ez izanez, supazter xokorat bildu ginen. Gure buhamesa galdeka hasi zitzaikun:

- Zer jan duzue eguerditan?
- Oilo eta oilaskokiak!
- Nun dira undarrak?
- Ohaskan!

Ohaska ideki eta barnean ziren jateko guziak zaku batean ezarri zituen. Egia erran, handik joan zadin, ahal eta gehiago ere emanen ginion gogotik. Jalgitzerat abiatu ondoan, gure emazteki debrua itzuli zitzaikun eta berriz galdeka hasi:

- Zer edan duzie?
- Arnoa!
- Nun da arnoa!
- Armairuan!

Eta armairuan erdikala gelditu lau botoil arno beretu zituen.

Ahal ukan ginuelarik, landarat joan ginen berriarren salatzerat:

- Eguerdiko undar guziak buhamiak ebatsi ditixi!

Aita ohoinaren ondotik abiatu zen, bainan amak gibelarazi zuen erranez:

– Ez dizi balio ondotik ibiltzea; heiek ere jan behar dizie!

Aitortu behar dut ez nuela ohointza amak bezain aise iretsi, eta Juana buhamia maitatu bezain Maria buhamia hastiatu nuela.

ERRIENTA

Zazpi urte bete orduko, 1924-eko urriaren lehe-
nean, mutikoen eskolarat aldarazi ninduten. Andere
Dalès utzirik, Dalès errientaren ganat joan nintzen
herabe izpi batekin. Ez zena herriko bizardun baka-
rra! Alta ez zen gizon gaixtoa: erakaslea eta olerkaria,
eta beraz haren bi alderdiak aipatu behar!

Gauzak diren bezala erraiteko, erakasle baino oler-
kari hobea zela uste dut. Ageri zuen lau murrue-
n artean egoitea ez zitzaiola laket. Gramera edo karku-
la taula beltzean erakutsi baino nahiago zuen gure
izpiritua ingurumenari idekarazi. Harritua zagon nolaz
ez ginen holako edo halako gauzari ohartu. Beti,
harek ateratuak enetzat berri izanez, loriatua beha
egoiten nintzaion.

Orduan bekan ikusten zena, zuzena zukeen hei-
nean, kurri ibilarazten gintuen, eta ikustekoa zen haur
lerroen bazterretik johan, begiak argi eta urratsak
bizi. Bakotxak bere aldian behar zituen bere kartie-
rreko berezitasunak erakutsi. Zer eta zer ez zaukun

ateratzen egun guzietz gogoeta bat eginarazi gabe begien aintzinerat agertzen zitzaizkigun gauza xume batzuetaz?

Hala nola eletrika nola heltzen zitzaikun piruetan, lurra nola egina zen alasaka, zenbat gisetako lanoak bazabiltzan, mendi, mendixka, zelai, haranen berezitasunak... eta beste.

Gainerat ingurumenari josia zitzaion ixtorioa ere kundatzen zaukun. Elhina kaskoan Soult eta Harispe marexalek ezarrarazi bi kanoien tokia erakutsi eta nun zezakeen Napoleon eta angles-españolen arteko guduka han baino hobeki erakuts? Damurik, ez zaki-keen Elhina lur pean dauden arbasoek etsaieri ihar-dokitzeko egin lan harrigarrien berri!

Eskola barnean aldiz, denak lurrean jarrarazirik, ibilketetan bildu buztinarekin lehenagoko gazteluen itxurak eginaraztea maite zuen. Ez zen haatik ohar-tzen han hemenka, gaztelu murru-arte baino, abere-orga gehiago ateratzen zela!

Erran behar dut hurrek gaina frango errecki har-tzen ziotela. Hala nola oren bata aintzinttoan pilotan xixka baten egitea laket baitzitzaioten, zeinua aditurik ere biziki nekez uzten zuten errabotea. Suharteko aterbe izkinan ezarri barrandari batek, Dalès noiz ateratzen zen behar zuen salatu. Eta gaizo gizona! Elixabehereko murru izkinarat heldu orduko, denak punpeka Xotildeiko artekatik eskolarat sartzen ziren, eta eliza paretetako sailduak bezain prestu errieta itzuli beha egoiten. Ez zuela Dalèsek bere samurgoa ixilik aise iresten!

Zonbat eta zonbat oroitzapen ez zaizkit heldu gogorat, bainan idazlari-olerkaria aipatu behar.

OLERKARI ETA IDAZLARI

Dalés jaun errientak bere bizian zonbat liburu izkiriatu ote ditu? Bere andre zenaren arabera, berrehun bat omen. Ez liburu tarro eder heietarik, gastuen ordaintzeko dirua bil doi ari baitzen. Haren idazki gehientsuak, frango agerkaritan irakur zitazkeen olerki edo poesiak izan dira. Haren ariman oihartzunik ukan ez zezakeen zerbait ba ote zen?

“Beharra senditzen dutanean, ez nagoke izkiriatu gabe” dio berak, eta “izkiriatzeko gutizia ase-zak!” bere buruari manatu eta:

*“Hire pairuen deitoratzeko
ta itxaropenen kantatzeko,
hire gogoeten salatzeke
ta amodioen goraltzeko,
hire barnea kanporatzeko,
har paper ta lumak bitarteko”.*

Olerkiaren musika galarazi gabe, nolaz dezaket jasta bera euskaraz eman? Hautatu bi pertsu hauiek

ez dira harek izkiriuetan hoberenak, baina Armendaritzek sortaraziak. Huna arto opilaz eginetarik bat:

*“Vivifiante odeur de la métère antique,
Toi qui dus réjouir nos pères harassés,
Tu sais exhaler l’âme intime des passés
D’où sourd un bruit lointain et charmeur des
cantiqes”.*

Eta “Gernikako arbola” aditu eta egin pertsueta-rik beste bat:

*“Plus proche la voix grandit
et voici qu’elle exalte
l’arbre d’indépendance
où tout Basque fait halte
pour évoquer le Dieu,
les manes des héros.
Vers les monts et le ciel
dans l’auguste silence
l’hymne de liberté s’envole,
toujours plus gros de douce illusion
et d’ardente espérance”.*

Oi gure baitako desbide bitxiak? Olerkari goxo bezain idazlari xorrotxa zen. Zenbait aldiz iduri luke ez zuela luma batekin izkiriutzen, bainan bai ixkilima batekin. Hamalauko gerla denboran bere inguruan zituenak, izan ziten jeneral, kaporal ala soldado xume, polliki karramiskaturik ezarri ditu. Nolaz nahi zinukete armendariztarrak bere gisa utz zitzan? Beharrik ez zuen liburutto hori 1939-eko urte arte agerrarazi! Aintzineko oroitzapenetan aipatu laudorioez bestalde, zonbat xixtako! Erretor ala auzapez, pietun ala kurrier,

botiges ala laborari, dendari ala aprendiz, dantzari ala kantari, zahar ala gazte... nor eskapa haren ixkilima punttari? Hemen ere jasta baizik ezin eman eta horra gutienik xixtatu eta "l'ascète" deitu duen Goity jaun erreteraz ateratu hiruzpalau lerro:

"Agurtuz iragaiten da, bainan ez sekulan gelditzen. Ez da nehorekin solastatzen. Eskuindar auzapeza eta ezkertiar notaria berdin urrun dauzka. Ez du egundaino baso bat arno onartu. Nor mentura liteke eskaintzerat bera? Jainkoaren ospetasuna oroitarazten baitio, laborariak maitatu baino gehiago miresten du".

Haatik, ene iduriko, besteak itxuren arabera zituen jukatzen, eta liburuttoa bururatu aintzin berak ere aitortzen du:

"Bost urte Armendaritzen naizela eta hemengo jendeak ezagutzen ote ditut? Ez, ezen heien ongi ezagutzeko behar liteke heiekin jan, lan egin, bizi".

Deus guti izkiriatu du bere baitan sartu gabe eta aitormen zombait egin gabe. Besteak beste, Armendaritzez egin liburua bururatzean, Elhina zolan lanoak hatzeman zuen ibilketa bat aipatu eta:

"Aintzinean lanoa, gibelean lanoa, gainean lanoa... Ene izaitea ere lano pean! Nundik heldu naiz? Norat 10a? Zer enezake eman izaitearen mixterioa zilatzeke?".

Ez dut uste gizon horren nortasuna armendariztarek ongi zilatu duten. Hobekixago ezagutaraztea merezi zuela iduritu zait.

KOMUNIONE TTIPIA

Zazpi urte betetzeak mutikoen eskolarat joaitez besterik ekarri zautan. Abenduaren hastapenean Goity jaun erretoa etxerat etorri zitzaikun eta amari erranzion:

—Nahi balinbaduzue, lehen komunionea Beñati Eguberriz eginaraziko diot. Aintzineko zortzi egunetan, behar dituen argitasunak nihaurek emanen diozkat apezetxean.

Eta beraz zortzi egunez zer artarekin ez ninduen argitu! Arkatz edo kraiun bat errien artean eta paper ostoz xuri bat aintzinean, ene izpiritu ahula noradino heltzerat ez zen entseatu! Emeki emeki, haur baten meneko eta oraino gogoan dauzkatan hitz xume batzuen bidez, erakutsi zautan komunionea zer den; paperean egin marrazkiez erakutsi ere ene bizi guzia hautu bat izanen zela; gauza ttipi ala handietan, bi bidetarik bat hautatu beharko nuela. Banakiela bi bidetarik zoinek deraman arima Jainkoaren ganat!

Geroztik zenbat aldiz ez dut gogoan erabili, ni

bezalako haur txar batetaz gisa hartan arta hartu zuen apeza ez zitakeela parrokiatz guti kezkatua. Dotzena bat urteren buruan, min biziak errautsi zuen. Hil aintzineko igandean, bere ordainaren ahoz, herriari jakinarazi ziola bere oinazeak, azken hatseraino, armendariztarrentzat Zeruko Aitari eskainiko zituela erran zautatelarik, ez nintzen batere harritu.

1924-eko Eguberriz, beraz, ene lehen komunio-nea egin nuen. Orduan Armendaritzen ez zen gauerdiko mezarik. Goizean goizik, ene ustez bost orenak irian, zetozen fededunak elizarat. Goityk galdegin bezala, amaren ondoan entzun nuen meza, amarentzat ere egun handia zelakoan. Meza denbora guzia ostia haren aiduru iragan nuen, eta azkenean amaren ondoan mahain sailduan belaunikatu. Zer Eguberri ederra!

Etxen ez zen gomiatu bazkaltiarrik, ez apaindura kezkarik, ez eta ere present idurikatzerik. Nolaz zita-keen ene izpiritua egun hartako gertakaritik bazter? Ene komunione ttipia ez ote den ene biziko handiena izan?

Ordu arte Goityren ganik urruntzen ninduen herabearen orde, atxikitasun bero bat sortu zen ene bihotzean apez saildu harentzat. Aitortu behar dut ez naizela aldi bat Armendaritzen iragan haren hobiaren aintzinean gelditu gabe, ez harentzat otoitz egiteko, baitakit nun dagon, bainan bai haren laguntza eskatzea gatik. Agian ikus arte, jaun erretor saildua!

ZOBAT

Jainkoak berak daki 1925-eko lehen eguna zoin nekez igurikatu nuen, ez baitezpada burrasoek urde gizenaren hiltzeko urtats hautatua zutelakoan, baina bai bereziki urde hiltzailea *Zobat* zelakoan. Aitaren gazte lagun eta adixkide, haren beste izenik ez dut aditu. Dakitana, haurtasuna Armendaritze Bazterretxean iragana zuela eta hamar urte bete orduko mutil ezarri zutela. Aitak zion hura bezalako gizon alegera, jostakin eta joko egilerik ez zuela ezagutu.

Argitu orduko ate aintzinean ginuen. Kafe eta ondokoak klik iretsirik:

—Hea! Goazen hobendunaren xeka! —manatu zuen.

Aintzineko urtetan, urdea hiltzean, ez ninduten hurbiltzerat utzi. Peko ate gibeletik so nindagolarik, Zobatek ikusi ninduen eta oihu egin zautan:

—Errak to! Zer uste duk: ala hi gabe zerrama gisa hau atxikiko ahal dugula? Haugi hunat eta buztanetik lot!

Putrunarena ez egin nahiz, kurrinka saminen ez

entzuteko erriez bi beharriak tapaturik, hurbildu nintzaioten. Urde gaizoa etzanik ikaran ganibet ukaldia-
ren beha ikusteak burua itzularazi zautan. Aldiz, larru
karrakatzetik konportetan dilingo ezartze arte hartan,
Zobaten ixtorioeri beha, loriatua egon nintzen. Zer
irri karkailak ez zituen eginarazi! Ni bezalako haur
xume bati gehienik gusta ziezazkioketenetarik biga
kundatuko ditut.

Mutil tipi zagon etxe batean, arrats batez, supaz-
terrean basa-jaun ixtorio bitxi batzu kundatzen entzun
zituen. Biharamuneko astirian, ardiak bordan sartu-
rik, sukaldean sartu zen ikara batek hartua, eta lurrean
zalapartaka hasi, “Basa-jauna! Basa-jauna!” murmuri-
katuz.

Etxekanderea, iziturik, ur benedikatuz ihizatzen
hasi zitzaion, eta hura ordian marrumaka:

— Basa-jauna! Basa-jauna!

Nagusiak, ezagutzen hasia baitzukeen, emazteari
erran omen zion:

— Lepoa joka nezake, baso ttipi bat edarik ur bene-
dikatuak baino ondorio hobea lukeela!

Eta hala hala gertatu! Basa-jauna ez baitzitateen
Satanen arrazakoa, edaria iretsi eta mutila xutitu!

Handik ondoko astearte ihauteri goizean aldiz,
kausera solas-aldi baten ondotik entzun omen zuen
etxekanderea erraiten:

— Ez dut astirik ukanen!

Nagusiarekin mahasti lanerat joan eta ez zitzaion
gogoeta bat baizik heldu burura: “Zer! Zobatek astear-
te ihauteri kauserarik jastatu gabe iragan behar duela!”

Hamarrak eliza dorretik aditzean, nagusiak igorri
zuen etxeko lan zenbaiten egitera, eta erran zion:

— Etxerakoan, idortu xirrimendu horiek eramazkik bizkarrean.

Zalu zalua bere xirrimendu haxea sukalderat eraman zuen, eta etxekanderearen oinetarat botatu:

— Ori, nagusiak erran du kauseren egiteko direla!

— Zer iragan zaio buruan! Orai baita tenorea! —zion kexu kexua ihardetsi etxekandereak.

Zer gertatu behar zen izpi bat kezkatua egon zen eguerdi arte. Nagusia sartzen ikusi eta ixil ixila sukaldeko ate gibelean barrandan jarri zen. Bere andrea kauseren egiten ikusi eta, nagusiak:

— To! Kauserak! Uste nuen ez zinuela astirik! —erran zion.

— Zer derasazu? Ez duzu Zobatekin igorri komisionea? —etxekandereak ihardestearekin, nagusiak, lepoa bihurtzikatuz, aire etsitu batekin:

— Mutiko tzar horrek debrukeria baizik ez du gogoan!

Handik hamar urteren buruan, etxe hartako seme baten ganik jakin nuen ez zirela Zobatek asmatu ixtorio batzu, bainan bai egiazki gertatuak.

1925-etik harat, Zobaten ordain, aitaren beste adixkide batek zaukun urdea hiltzen: Pelo Haranburukoak.

XEDARRI

Gure haur denboran, fakturra pietuna deitzen ginuen, dudarik gabe oinez zabilalakoan. Armendaritzeko pietuna, iholdiarra, Xedarri deitzen ginuena. Besotik eskurat eta eskutik besorat... haren kanak zabiltzan joan-jinak! Iduri zuen bere itzulia hunenbeste denbora egiteaz norbeitekin pariatua zuela.

Orduko pietunek ez zaukaten oraiko fakturren karga bizkarrean. Eta gainerat Karrikan ez zuen usu ibiltzerik, ezen gure kaseta bakarra, *Eskualduna*, amak kalostrepean erosten zuen, eta arrebek edo kusiek igorri letra zonbait zituen noiztenka. “Hela!” erran orduko eta “Aintzina!” igurikatu gabe, sukaldean zen.

Ez zen arno kolpe bat eskaini gabe utz zitakeen gizona. Amak galdegiten zionean “Baso bat arno hartuko duzu?”, beti ihardespren bera zuen:

— Ez dakizu Xedarri sortu zela egarri?

Amak basoa betetzeko artean, bizkarretik hankarat helarazi zaku beltz hartan aztaparka hasten zen, egundaino konprenitu ahal ez dituztan mixteriozko

kondu batzu murmurikatuz. Noiz eta ere sendi baitzuen basoa betexea zitakela, zaku beltza berriz bizkarrerat igorri eta:

—Xo! Xo! Sobera ixuri dautazu! —erranez, kexatuarena egiten zuen.

Ez zen, ez, *brixt!*, edale heietarik. Emeki egin zezakeen gauza bakarra... zombait xorta ixurtzerat utz beldurrez baso arnoaren artarekin altxatzea, eta basoa barna leihoko argia begiztatzea.

—Zer arno huna duzuen! —erranez, hiru kolpez basoa husten zuen.

Ondotik haatik ez zuela denborarik galtzen! Urrun heldu beharrikako letra bat gertatzen balinbazitzaion eta etxe hartako haurrak eskolan ibilki, eskola atea, *brau!* idekitzen zuen; eta, erhi bat kaxketa hegirat heltzeko jestua eginik, letra jabearen ondotik zabilan.

Nik ez dakit nundik debru bildua zuen *Kalixtro* izen goiti bitxia! Jakin zazue ez niola nik holakorik erranen, izen goiti batekin harrigarriko ixtorioa gertatua baizitzaitan. Ene ustez Goitixo izeneko gizon bat kurutzatzean, egin nion:

—Jinkoak tizila egun on, Goitixo!

Erran banion... erran nion! Bi zangoez lurra joz, bota zautan:

—Ago! Ago! Ezarriko hut ba nik beheiti so!

Hortarik asma dezakezue Xedarriren izen goitia ez zela nik pentsatua.

Beti eskolako mahainen artean letra baten jabearen bila zabilalarik, haur bati "*Kalixtro*" erraiten entzun zion.

Mahain gainak bere zaku beltzarekin xahutuz, bi

jauziz ondorat joan zitzaion eta gaitzeko mazelakoa eman zion:

— To, hori Kalixtoren partez!

Dalèsek ez zion deus erran eta geroztik haurrek biziki urrunetik baizik ez zuten Xedarri Kalixtorentzat hartzen.

MARGERIT

Ene haur denboran, orai bentzutuxea duten eritasun izigarri batek hunkitua hiltzen zuen. Bularretakoa deitzen ginuen. 1925-eko urtean eritasun debrua auzoan sartu eta bederatzi haurren ama, Legartoko Dominika etxekanderea, jo zuen.

Arto egiteko itotsemaiten ari nintzen batez, agoniako zeinuak landarat entzun ginituen. Behiak geldiarazirik, lurrean belaunikaturik, aitak otoitz egin zuen. Berak ama ezagutzeko suerterik ez ukan eta nork zakien harek baino hobeki haurrentzat zer zorigaitz ikaragarria zen ama baten galtzea?

Maiatzaren 25-ean, orok hain maite zuten Dominika hil zen. Bixtan da, utzi zuen lagunarentzat ez zitakeela bihotz ximiko txarra! Bainan Karrikako haurrek amaz gabetu bederatzi haurrak, gehienak hamalau urte eta gazteena hemezortzi hilabetetan, zauzkatzen bereziki urrikari. Ama baten galtzea ez ote da lehen aldikotz bakarrik jasan behar den nahigabe dorpea? Karia huntarat bizi diren zortziak agurtzen

ditut: lehenik bere haurdientzat bigarren ama bat agertu den Jeanne, eta gero Marzel eta Mari, Mari-luixa eta Klementin, Arno eta Xobur, Elena... Bainan bat falta eta, orai kondatuko dautzuetan bezala, hura enetzat ez nor nahi izana!

Ene eta Margeriten arteko adixkidantza nola sortu zen ez dezaket erran. Bainan erran dezaketana, halako adixkidantza barnakor guti gertatu ditakeela lur huntan. Ahizpa ttipia zaintzerat emaiten ziotelarik, etxe ondo heietan behi zain banindagon, ene ganat lasterka, haurra besoetan, etortzen zitzaitan. Elena gaixoa aldizka konkolotx irria jauzarazi arte punpeka ibiltzen ginuen. Elgarretartzeko arrazoin eska-sean, harek Legartoko baratetik eta nik Karrikako lasto metaren ondotik, oihal mutur edo mokanes bat eskuin eta ezker erabiliz, elgar agurtzeko usaia hartu ginuen. Ahal ginuelarik, eskolatik etxerateko bide zuzena laburregi hatzemanetz, Elizalarreko aintzinetik eta pentze landen artetik, ahal eta emekienik kurrutuz, bi-biak etxerat heltzen ginen. Ez Legartoan ez Karrikan, ez zitakeen batek besteari ezin salatuzko zerbait iragan.

Azkenean, egin nezakion emaitzarik handienaren egiten hasi nintzaion. Larunbatetan amak jatekoa labean erretzen zuen, eta asteko behar zen ogi eta arto opilekin batean, ahotik ezin utzizko gordin-xuri sagarra barnean, guretzat opil ttipi bedera. Hiru orenetako josta denboran jateko bazena bixkotxa hobeagorik? Gostaia gusta, ene opila gordeka Margeriten tauler sakelan ezartzen nuen. Eman opilaz oroitu eta ez zitzaitala barnea kurruskaka hasten erran baneza, gezurra liteke. Bainan harek opilaren jatetik ateratuko

zuen atsegina, zenbatez ez zitzaitan opilaren gostua baino goxoago!

Oi bitxikeria! Ene ustez gu bien arteko segetua, nork salatu ote zion amari? Igande goiz batez galdegin zautan:

— Zer dakoxu, xure opila Margeriti emaiten?

Gorritzen ari nintzela senditu nuen eta zintzurreko koropilo batek hitz bat baizik ez zautan jalgitzerat utzi:

— Ba!

Amak ez zautan gehiagorik erran, bainan gaizki egiten nukeela eta denek jakinen zutela... eta gisa hortako gogoeta beltzetan iragan nuen aste guzia.

Larunbata etorri zenean, bazkaldu eta opilik aipatu gabe eskolarat abiatu nintzen. Amak “Xauri hunat!” erranez deitu ninduen, ohaska doi-doia ideki eta bihotza pekoz gain ezarri zautan gordin-xuriarekilako opila eskurat eman zautan.

Kanporatekoan berriz deitu ninduen, ohaska handi handia ideki eta bigarren opil bat eman:

— Oixu hau Margeritentzat!

Negurt-azue orduan ene bihotza gainditu zuen zoriona! Harentzat hobe zitakelakoan, Margeritek ez du egundaino jakin nolaz nituen geroztik bi opil baten orde.

Gaixo neska! Aipatu eritasun izigarriak jo hura ere hamasei urtetan eta bere ama zenaren ganat ereman zuten hogoi urtetan!

Zonbaitek baitiote hil eta lur huntan gehienik maitatuak jinen zaizkigula gure xeka, egia balinbada, ene azken orenak jo eginen duelarik, otoi, Margerit, xauri biderdi!

XURIKO

Handiak deitzen ginituen bakantzak ez ziren bi besoak kurutze egoiteko asmatuak! Bi anaiak mendian behiketa ginabiltzalarik, asto xuri bat urrunera ikusi ginuen. Zer suertea! Oso xuria ote zen? Oraiko lunetekin behatuz, behar bada gris aire bat hatzeman niezoke. Hurbildu gintzaizkonean, erakusterat eman zaukun esku hutsetaz axola gutixko zuela. Beraz, behar zena etxetik ekarririk, askitto errexxi etxerat bildu ginuen.

Gero ziren lanak! Nun gorde? Ixilik egonen dea? Noiz erabiliko ahal gaitu? Gure karkulak laster egin ginituen: barruki sahetseko aterbean, orgen artean ezar; gose ez den alimalea ixilik dagolakoan, larrukienez ase; aitamen etzan aldi denboran gainean ibil.

Lehen egunean, jan eta jan arizanik, orro bat ere ez zaukun atera. Oren bata eta biak arte hartan, sagardoi eta behien edangiaren artean zonbat itzuli ez ginuen egin! Aldizka gainerat iganez haatik, ongi

jan eta laneko gogo gutixko zuelakoan batek Xuriko akulatu behar baitzuen.

Iholdiko eiherezainaren bi asto beltzak zakuz kargaturik kontrabortaratzeltzen zitzaizkunean, ikaraginauden elgar senditu eta hiruak orroaz has ziten beldurrez. Bainan gure asto pollitak ez zaukan berezitasuna kolorean bakarrik... Adimendutsua ere zitakeen, ezen asto beltzen xarameleri aldi batez ere ez zuen ihardetsi. Edo bestenez, gu guziak bezala, izpi bat razizta zitakeen eta bere baitan egin zukeen:

— Mutiko txar bat oren erdi batez ibiltzean trukasean bizi izanki eta zer behar dut zakuz kargaturik egun guzia leher eginak dabiltzan asto beltz zozo horietarik?

Beharrik, ez zitzaion Xurikori nehor ohartu.

Eguerdi bero batez, ni gainean asto gaixoa harat-hunat zabilalarik, anaiak buztan pean egin perekua ez zitzaion batere gustatu... Katxotu, ba, katxotu gure Xuriko! Ordu arte kabala bati ikusi ez nion gisan, aintzineko bi zangoen gainean xutituz, gibeleskoekin xuberotar dantzariari ikusten ahal dizkiegun frisa batzuetan hasi zitzaikun... eta ni zeru-lurren arteko xori despeditu!

Egundaino ez naiz hain goradanik erori; eta nola erori? Uzkonoz harri mutur baten gainerat! Ene papoa lehertuz, lauhazka espekatu zitzaikun oldarrean. Ez dakit Xurikori hurbiltzerat bera nor mentura ziezaiokeen!

Beti, ni asto gelditu, nehorri sala ez niezaiokeen uzkornoko minarekin.

Handik berrogoi urteren buruan, bizkar hezurre-

tik arranguratu nintzanean, artatzaile batek galdegin zautan:

– Haur edo gazte zinelarik, ez duzu eroriko handi bat egin?

Berehala ihardetsi nion:

– Bai, jauna, bai! Zortzi urtetan, kabaletan hobekienik artatu dutan ikustate gabeko asto batek goraxko despeditu ninduen, bera baino astoagoko baten hatzemaiterat.

Gertakari guziek beren gisako erakaspena uzten! Holaxet ikasi nuen, beltz ala xuri, asto adimendutsuena ere sobera kitzikatu eta... astotzen dela!

Laster jakin ginuen asto gaixoa iholdiarra zela... Agian, agian, egun eder heietan, jabea ez zen Xuriko behartu.

LUNETAK

Goiz batez, Karrikatik jalgitzean, mendiak urrun-
du zirela iduritu zitzaitan eta Legartoa eta Etxeberria
lano batez inguraturik bezala agertu! Eskolan Dalès
laster ohartu zen taula beltzean ez nezakela irakur,
eta burrasoeri erraitera etxerat etorri zitzaikun. Nigar
egin nuen! Armendaritzen, Mane Elixabehekoaz
bestalde, nor zitakeen lunetekin? Lagunak nitaz trufa
ziten beldur nintzen.

Haatik, Baionarat joaiteko, ama Ana Erguy jende-
ketako beribil zainaren hitzartzen izan zela jakinik,
ene atsegina bazen zerbait. Lehen aldikotz beribil
batean behar nuela ibili!

Gauaz lo guti egina, askaria nekez iretsia, eta
autobus luze hartan abiatzeak egin zautan farrasta
miresgarria! Gaixo enuxenta! Etxebazterreko ondorat
heltzean, senditu nuen barneko hisdura bat, eta Hele-
tatik Baiona arteko bide guzian, burua berinatik kan-
porat ateraturik, amak esku batez kopeta atxikiz, bar-

nean nituen eta ez nituenen botatzerat entseatu nintzen.

Karrikako erreka txarra baizik ez ikusirik eta Baionako ur handiak hainbestetaraino ninduen harriarazi, nun ene barne nahasdura pixka bat ahantzi bainuen.

Bainan katedraleari buruz gindoatzilarik, etxe bate-tako hirugarren estaietik emazte batek bere burua bota zuen eta dohakabea gure oinetarat erori zitzaikun. Doi doia xutik nindaukaten zangoek ez zuketzen deus beharragorik! Zer oihuak! Eta zer jendeketa ez zen bildu!

Ene barneak ez baitzuen bazkaririk galdatzen eta Burukoa begi artatzailea bost orenetako hitzartua ukanez, baginuen harat hunat ibiltzeko astia.

Eguerdi ondoan, Baionan zauden arrebak gure ganat etorri zitzaizkigun, eta B. A. B.-ko treina harturik Miarritzerat jo ginuen. Mugarik gabeko itsaso zabalaren ikusteak zer ukaldia eman ahal zautan! Plaia handitik portu zaharrerat heldu orduko lekukotuxea nintzen. Bainan gure aintzineko harroka punta bate-tarik ez zaukuna gizon batek bere burua urerat botatu! Goizean emaztea leihotik eta orduan gizona harrokatik... Oihu bat espekatu zitzaitan; bainan arrebak, besotik hartu eta urari buruz itzularazirik, erran zautan:

— So egixu hunat, xoxoa! Mainatzaile bat duxu!

Eta egia erran, nik itoa naukan gizona bazoan Armendaritzeko urhaste hartan ikusi xakurra bezala!

Kofoi ttipi baten barne horma milikaturik, *Dames de France* magasinako igaitekoan goiti eta beheiti ibilirik, kautxuzko pilota berri bat sakelan, Burukoaren ganat eraman ninduten. Bat batean lausotu nintzela

eta ene bizi guzian lunetak ekarri beharko nituela aditurik, Erguy'ren autobuserat itzuli ginen.

Bitxikeria! Etxerakoan ez zitzaitan barnea nahasi. Beti trukesia zerbait behar... Mentaxuriko patarrean autobusa zitzaikun hatsantu, uzkerka hasi, eta Elande gidaria kezkatu. Aldiz, Ana Erguy ez zen batere durduzatu eta oro jautsarazi zituen: zaku-paketak emazte kalakarieri, eta gizonak sorbaldaz eta besoez pusa-ka, oihuka, moturra lagundu! Indarka ari zen gizon batek Elanderi oihiu egin zion:

– Egarrtua dukek! Ene xahakotik emakok xirrista bat!

Ene gibelego emazte batek berriz:

– Bere koskan autobus hau ez ahal zaiku gibelka abiatuko?

Azkenean, autobus, jende, paket, zaku... denak patar kaskoraino igan ginen, eta gehiagokorik gabe Armendaritzeraino heldu ere.

Ez! Ez nezakeen gisa hortako egun bat ahantz!

SUA

1926-ko otsailaren gau batez, ikusgarri xoragarri bati beha oren miresgarri bat iragan nuen: Elhina sutan zagon! Mendiaren inguruan gar alimale haiek dantzan Karrikatik behatuz, zer gauza ederra! Iduri zuen Elhinari norbait urrezko zinta baten ezartzen ari zitziola.

Dalès jaun errientak haatik ez zuen hitz aski idorrik su emaileen gaitzesteko. Halere ondoko ibilketan otetxen erditik iraganarazi gintuen; eta nork bil lapin matel hezur bat eta nork xori korpezur bat errabiatuak arizanik, zangoak, eskuak eta begitartea ederki beltzaturik itzuli ginen.

Ez nakien orduan mendi erretze hori aspaldiko usaia bat zela eta Pyrene izena bera usaia hortarik heldu dela. Grekotar zorbait Marseillan barna gure eskualdetan sartu zirelarik eta mendiak sutan ikusi, “su-mendi” edo beren hizkuntzan Pyrene deitu zituzten... omen!

Orduan ez nakiena ere, mendia sutan biziki hurbilagotik ikusi behar nuela. Arrats batez, sukaldeko

leihotik, amari leinuru bat iduritu zitzaion. Jalgi eta... gure etxegibeleko mendixka sutan! Hegoak garrak bazamatzan zeruan gaindi, lanoak gorritzen zituztela, bainan ere pindarrak firurika Karrikako teilatuaren gainetik. Ate-leihoak hetsarazirik, eta zer gerta ere kanpoan egon gintezen erranik, pala eta xixpa bizkarrean su hiltzerat joan zen aita. Bulta bat egon ginen ikaran, lasto metari so, sua noiz lotuko zitzaion.

Azkenean, zainak nagusiturik, Lekunberriko sahetsetik suari hurbildu gintzaizkion. Argi hartan gizon heiek lerroan suari pala eta ostoil ukaldika ikustearekin, ene zainak sosegatu zitzaizkitan. Ez, ez zitakeen su bat, nahi bezain handi izanik ere, gizon andana hari nagusi! Hortaz ez zitazkeen su hiltzaileak ni bezain segur, ezen kontrasuia piztu behartu baitzitzaien. Bi su pareta heiek bat besteari buruz karraskan joanik elgar jo zutenean, ikaragarriko gar bat lurretik altxatu zen, eta erregailu eskasean hil.

Handik ondoko batez, ez ginela guti harritu, bazkaiterat gomitatu "oilar" batek su hura nola piztua izan zen salatu zaukunean!

Armendariztar lau gizon, izpirituketa zoazilarik, zigarreta baten egiteko mendi hartako bidexka baten bazterrean jarri ziren. Heietarik bat ohartua baitzen izpiritu ondarkina untzi zolan pulunpaka zabilala, lurre-rat ixuri zuen; eta, sua lotuko zitzaionez ikustea gatik, supiztekoarekin su eman. Zorigaitzez, su hartu ba, eta hegoak garra nahi baino urrunago eramanean.

Aitak atera zion berehala:

— Debruen bisaia! Ez duk harrigarri ni baino lehenago han baitzinezten! Zer samatserat karreatzeko prest utzi ote andana errearazi zinautaten!

UZTAILAREN HAMALAU

Aintzineko uztail hamalauak bezala, 1926-koa mahainean ginuen ospatu. Ez uste ukan 1789-ko Iraultzak eta *Bastille* famatu haren hartzeak gure buru-muñak demendrenekorik beroarazten zituztela! Bainan egun hartan aitak usaian baino bazkari hobea galdegiten zuen. Zertako ote? Behar bada soldado iragan hiru urte heietan hobekiago jateko egun haren beha egon zelakoan.

Dena den, oilaskoa garbituxea ginuen, eta mahainean egoiteaz aserik bi anaiak kalapitan hasiak baiginen, aitak etzanaldirat igorri gintuen.

Xokoko ganbera deitzen ginuenak bazuen harrizko alki apal bat, eta lo egiteko orde, haren gainean jokia metatu eta karraskan kaxkian hasi ginen, ez bi soseko porroxka batzuekin, bainan egunari eman zitzaizkion hogoi eta berrogoi soseko zilarrezkoekin, eta azkenean bost liberako pizu heiekin.

Ahulenarentzat suerte ona! Denak irabazi niozkan! Komunionekeo bilduak zituen sos zilar ederrez

ene sakela hanpaturik zagon. Suertea itzuliko zitzaio-lakoan, gelditzen zitzaizkion bi sosekoekin segitu ginuen. Azken sosa joan niolarik, anaia kexatu zitzaitan... Egia erran, ez zuen arrazoin eskasa! Eta nik, iziturik, bi sosekoa ahoan gorde eta... iretsi! Eta sos debrua zintzurrean kokatu!

Gero ziren lanak: ezin mintza, hatsa ezin hartuz korrokan hasia. Ohaska gainetik lurrerat erabiliz, aita sosaren jautsarazterat entseatu zen, bainan debaldetan! Azkenean, Larre Irisarriko medikuaren hitzartzen izanik, burua sorbaldatik dilingo atxiki ninduen, tua ez nezakelakoan irets. Hots etxe guzia pekoz gain ezarri nuen!

Noizbait etorri zen medikua, eta sukalderat heldu zenean, gaitzeko oka batean odol opil batekin ene bi sosekoa bota nuen. Larrek, opil hartarik ateratu sos xuriari beha eta beha, burrasoeri erran zioten:

— Beharrik, xiloarekilako sosa zuen iretsia! Xilotik hartu du hatsa. Bestela, hila izanen zen!

Orduan frantses gertakari aipagarrienak noizkoak ziren gogoan behar baiginuen atxiki, errientak galdegiten zautanean:

— Uztailaren hamalauetan?

Goratik ihardesten nion:

— *Bastille*-aren hartzea.

Ahapedik aldiz:

— Eta sosa zintzurrean kokatzea!

ITOTSEMAITEA

Eskola denboran bederen, Armendaritzeko haurrek itotsemaitea zoin maite zuten!

Erran dezaket nik ere bakantza handietako arbi egitetan ez nuela lan hori batere hastio. Usaian biziki denbora ederra egiten zuen, bainan ere biziki bero. Beraz, goizean goiz jeikirik, aita brabanarekin, anaia idien gidari eta ni lauzkako behien aintzinean, iraulden hasten ginen. Haize freskoaren pereka mateletan, xorien xaramelak beharrietan, ene akulu luzea eskuetan, ildo erreken hegiz hegi loriatua nindoan.

Etxetik ez urrundurik ere, harat-hunatetan denborarik ez galtzeko, amak askaria landarat ekartzen zaukun. Hitz dautzuet sei orenak eliza dorretik aditu eta so bat baino gehiago egiten nuela noiz ikusiko ote nuen etxetik jalgitzen! Zazpiak eta zortziak arte hartan iragan memento hura baino goxoagorik ene bizian ezagutu ote dut? Kabalak ipuruetan alhan utzirik, erreka uraren murmurika beharrietan, gu agurtuz aldaskaz aldaska zoazin mari-andderek ikusgarritzat,

itzalpean zagon piarrotaren gainean jartzen ginen. Zare gainean estalitako ezarri oihal xuria amak baztertzen zuenean, tomate-biper eta xingarretik ateratu usain paregabea! Lur itzuli berriarenarekin nahas oraino ere sudurrerat heldu zait!

Bainan eskola itotsemaitea baino maiteago ukanez, arto egitetan ene etxen egonaraztea ez zen errex. Maiatzeko egun eder batez, beraz, bi haur baizik ez ginen eskolan! Dalèsen samurgoa! Lehenagoko Ortzai-zeko bezperetan bezala, han zirenek han ez zirenentzat egin erasiak jasan behar! Gainerat hameka ore-netako katiximan bakar bakarrik gertatu nintzen. Goity jaun erretorak besotik hartu eta galdegin zautan:

— Zuk, Beñat, katixima badakizu?

Berehala ihardetsi nion:

— Ba, jauna, ba!

Eta ene baitan egin nuen:

— Etxerat utziko hu!

Ez zen hortarik ari! Sankristiarat eramana ninduen, eliza atorra jantzi zuen, kurutztea hartu eta bi-biek kurutzearen bidea hasi ginuen. Jakin zazue hamalau estazioneak ezin zintzokiago iragan ginituela: bat erientzat, beste bat lanean ari zirenentzat, bestea xahar ezinduentzat eta besteak nik dakita norentzat eskainiz!

Jendez hanpatua izan balitz bezala, eliza huts hartan Goity jaun erretora eta mutiko txar bat “Oi kurutztea” eta “*Stabat Mater*” aldizka kantatuz... armendariztarrek asma ote zezaketen memento hartan halako bitxikeria bat?

Gure kurutzearen bidea eguerdiko bururatu ginuen,

eta erriaz kopetan kurutze bat eginik erretorak utzi ninduen.

Ettxerat heldu orduko, egun hartako gertakaria kon-
datu nuen.

—Gaixo apez saindua! —zautan amak erran.

LARRUZKO PILOTA

Ene hurtasunean pilota baino jostagailu maitagarriagorik ez dut ezagutu. Zer nahiren kontra jo pilota... edo pilotaren iduriko zerbait.

Baionako piaia hartan arrebek erosi kautxuzko pilota gorri pollita ezkaratzeko ate arteketarik barrukirat eskapatu zitzaitan eta ez nuen berriz eskuratu ahal. Dolu ukan nuela, bixtan dena. Bainan adinean aintzinatua eta erraboteari kontra kautxuzko pilotak egin azantza hilago kausitzen nuen. Ene buruan ez zabilan gehiago gogoeta bat baizik: klaska bizia adiaraziko zautan larruzko pilota batez jabetzea!

Kaxkian irabazi eta eskuin eta ezker bildu dirua hamar aldiz kundaturik, ene herabeari lepoa bihurturik, Lukugaray pilota egilearen ganat jo nuen. Erretzeko beroa baitzen, untutsik, atorra eta buru has, lanean ari zen.

—Larruzko pilota bat nahi nuke —atera niolarik, ez dut bakan baizik norbeiti ikusi bota zautan urri-

kalmenduzko behako bitxia bezalakorik. Zer pentsatu ote zuen memento hartan?

Beti, biak tratuan hasi ginen. Ene ahur txarrari behaturik, buruan hazka, erran zautan:

– Hogoï libera gostako zaik.

Akort nintzela aditzearekin, urrikalmenduzko behakoa uste gabeko bilakatu zitzaion.

– Heldu den ortzeguneko eginen deat –erranik utzi ninduen.

Ondoko ortzegunean, beraz, amak biharamuneko marluzaren bila Elizagarairat igorri eta lehenik Elizalarrerat jo nuen. Lukugarayek ene aintzinean punparazi pilota begiez jan nuen! Hogoï libera ordaindurik, mundu guzia irabazi banu bezain alegera, eskuina ezkerraren kontra pilotan hasi nintzen, eta eskuak hanturik, ongi izerturik gelditu. Marluza beso pean esku batez atxikiz eta besteaz sakelako pilota perekatuz, etxerat sartu eta ama harritu zitzaitan:

– Zer arizan xira hola izertzeko?

Ene segeretua ez nion salatu, bainan harek zila ez zezakeen segereturik ba ote zen? Handik laster, ene larruzko pilotari ohartu zitzaitan eta aitari erakutsi zion. Erran dezaket ez nuela amarentzat beldur handirik, bainan aita ene buru berokeria nola hartuko ote zuen, arras gogoetatua nindagon. Ene pilota berria ahurrean tinkatuz, eskapatzerat utzi zuen hixtu ezta aditu, egin zuen irri goxoa ikusi eta ene baitan egin nuen:

– Debru xoxoa! Balio zian hala kezkatzea!

Lagunak bekaiztiak atxiki nituen. Halako gauza arraroa sakelan, ez nituela adixkideak eskas!

MENDE BERRIA

1927-ko urriaren lehenean, Armendaritzeko haurrentzat aldakuntza: errientea hegaldatu zitzaikun. Dalès jaun-andereak Jurançonerat izendatu zituzten.

Abere-orgarik gabe alda nola egin zitakeen ikusi beharrez, eskolako josta lekurat jo nuen: langile batzu Pabetik etorri kamiun handi baten barnerat muble sartzen ari hatzeman nituen... eta Dalès berriz, hixtuz, xoria bezain alegera!

Haren ordain Courtade jauna igorri zaukuten. Ez errient berriak, ez Armendaritzeko mutikoeak, ez zute-la urte hartan eskolako lanetan leher egin!

Bainan bainan 1927-ko urritik 1928-korat zonbat aldakuntza eta bitxikeri! “Urte erhoak” deitu dituztenak hirietan aspaldi ezagun zitazkeen; aldiz Armendaritzen ez. Eta horra nun eztei batzuen karietara ohartu nintzen hiritik etorri neskato gazte batzu herriko emazteak baino gainetik beherago eta azpitik gorago beztu zirela; ohartu ere heietarik bat, ileak gizonek bezelatsu moztuak, zigarreta ketan bi errien artean, zapeta aztal luze hertsu batzuek haizu utzi urrats

xehe batzu eginez, andere espos lagun bazoala elizarat! Mende berri bat herrian ezin sartuz ari zitakeen!

Igande batez, berriz, bezperetatik jalgi eta autobus luze bat plazarat etorri zitzaikun. Gehientsuek *departementala* deitu zuten; bakar batzuek, aldiz, *portemantoa*. Arrosako garatik Donapaleukorat egun guzietz ibiliz, Iholditik Armendaritzeko itzulia behar zuen egin. Hiru beribil zauzkan herriarentzat ez zen berri-tasun txarra! Gainerat, batek bestea ekartzen, herritarren zerbitzuko telefona Elizetxean ezarri zaukuten. Mende berria Armendaritzez jabetzen ari zen!

Bestakari aldiz, kanpoko eta barneko berotasunak asmarazi pilota partida bitxi baten fama hedatu zen: Bordamariako Manezek Xala pilotaria buruz-buruka desafiatu zuen, Xalak haatik pilota ixtapetik joz! Erretzeko bero batez egin zuten beren partida. Ikustekoa zen errabote zabal hartan Xala punpeka, pilota bere zango laburren azpitik itzuliz. Bizi bada, ez izanik ere orduan bezain zalu, partida hartaz oroit daiteke. Herriko hoberenetarik izanik ere, Manez gaizoak partida galdu!

Besta haietan, musika aire berri bat aditu orduko, mutiko gazte zenbait putarka, aztalak elgar jo araziz, aldi bat burura ez zezaketen dantza bati lotzen ziren.

Emazte batek atera zuen:

— Norat ari ote gira?

Ondoko lagunak, berriz:

— Hori, Xarleston omen duxu!

Eta besteak:

— Nungo Xarlex erran duxu?

Itxura guzien arabera, mende batek ezin hilez eta beste batek ezin sortuz lanak zituztela!

MISIONEAK

Bost urtetarik, Euskal-Herriko parrokiak komentu batzuen pare bilakatzen ziren.

Hamabost egunentzat Hazparneko misionestegiari jaun erretorak bi apez galdegiten zizkion. Gure erretora bera misionest ohia ginuen. Osagarri eskasez zuten Armendaritzeko xoko polliterat izendatua.

Aita Duhalde eta Aita Athor etorri zitzaizkun, eta gure ustez ez ziren beste apezak bezalakoak. Usaiako jantzien gainetik bizkarreko bat bazaukaten, eta lepetik dilindan kurutzefika bat. Hitz dautzuet kurutzefika haren lokarriak azkarra behar zuela izan, gisa hartako tiraldieri ihardokitzeko!

Aita Duhalde suhuskundarra zen, apez luze bat, mintzatzaile luzea ere, bainan zoin ezti eta kartsua! Ez zen mintzatzaile miresgarri haietarik, bainan gauzen emeki eta xumeki argitaratzailea, orduko laborariek behar zuten bezala.

Aldiz, Aita Athor, ene ustez segurik landibartarra, ttipittoa, bizia, mintzatzaile goxoa. Gero Heletan era-

nan baitzuen bere erretorgoako kargua, heletarrerri ez zela harentzat deus gaixtorik atera behar!

Urriaren 15'etik bururaino, aste egun guzietz, goizeko mezan, eliza bai gizonez eta bai emaztez bete-xea zagon; bainan arrats guzietz, zazpiak eta erditako koka ahala bete. Etxe zaina, ezindu xahar edo haur ttipiegi zonbait salbu, armendariztarrak gau guzietz elgarretaratzen ziren.

Bideak ez orai bezala mundrunastatuak izanez, Karrikatik ikusten ginituen, mendixkeri beheiti eta xoko guzietarik, lanterna argiak lagun, jendeak elizarat johan.

Hameka orenetan, beraz katixima tenorean, gure aldi!

Alta erran dezaket Goity jaun erretorarekin ere arras gastatuak ginela; bainan haiek berri izanki eta bi misionesteri beha xoraturik ginauden. Konferientziak deitzen ginituen haiek zaizkitan paregabeak!

Aita Duhalde aldare gainetik mintzo, eta noiztenka Aita Athor beheretik, *brixt!* xutitu eta harek erranen jaukitzen hasten zen. Beharrik, predikua hasi aintzin Aita Duhaldek erraiten zuen hura zela Jainkoaren izenean mintzo, eta behereko hura debruaren abokat bezala. Aita Athorrek bizpahiru hitz jalgi orduko, gizonak galerietan irriz hasten ziren. Norbaitek sinetsarazi behar guri bi misionestak aintzinetik hitzartuak zirela!

Landibarren gertatuaren arabera, ez zitakeen Athor ere beti debruaren abokat bezala mintzo.

Predikatzen ari zen batez, galerietan aditu omen zuen norbait goraki murmurikan, eta gizon debrua ez ixiltzen! Pazientzia handiko gizona baitzen, deus

erakusterat eman gabe, bere mintzaldia ahal zuen bezala bururatu zuen. Haatik, ohartua zen nor zuen partida: *Manakate* edo holako zerbait deitzen zuten gizon berezi bat! Noizbait ixilduko zelakoan, misio-nesta, prediku ondoan, jo harat, jo hunat, zainak airean bazabilan. Bainan eske denboran, erdian xiloa-rekilako bi soseko xuria erortzerat utzirik doluz, *Manakate* beti murmurikan ari! Denak okaztatzen hasiak eta, mugarik gabeko pazientziarik ez baita, erriaz erakutsiz, Aita Athorrek oihu egin zion:

– *Manakate*, kanporat!

Eta debruaren abokatak galerietarik:

– *Manakate* kanporat? Ez, jauna! Pagatua dut!

Nolaz iragan zitazkeen Armendaritzeko misionek ere Aita Duhalderi gisa hortako zerbait gertatu gabe?

Astirietan elizarat tenorez heltzeko jendeak ernatzen ziren. Arratsalde apal batez, Piarrex hatzeman nuen orgabide batean, orga iratzearekin etxerat buruz johan. Malezia gabeko gizon bat zen, bainan bizia, beti kezkatua, berehala jauzia! Uste gabean, orga errota lur hil lohitsu batean sartu zitzaion. Behiak ere gelditu! Hasi zen oihuka, putarka, behieri joka, bainan hauiek urrats bat ezin egin. Sakreka, lohian sartu errotaren itzulikarazterat entseatu zen, bainan debaldetan! Behiek uko egina zioten. Azkenean, desatellatu eta “Kakin dezala!” erranik, orga iratzea han berean utzi eta etxerat jo zuen.

Nunbaitetako hala beharra! Duhaldeen prediku gaia arrats hartan zer izan zela uste ote duzue? Ele lizunak, sakreak eta holako; ez zitakeela Jainkoaren ize-na nola nahi erabil, ez eta ere debrua lagun galda.

Ongi baino hobeki behatzailen baitan erranak sarra-

razteko, Krixto parabolez baliatzen zen bezala, misio-
nest gaizoak La Fontaine frantses olerkariaren alegia
bat hautatua zuen. Zoin ote? *Le charretier embourbé*
izenekoa! Papoko kurutzefikari lotuz hasi zen emeki
emeki alegiaren kondatzen:

— Gizon bat heldu zen orgak gaineraino karga-
tuak, eta bide bazterreko arroila batean errota sartu
zitzaien. Zaldiari azote ukaldika, oihuka, sakreka, baz-
ter guziak zeramatzan, bainan debaldetan. Han ira-
gaiten zen gizon batek erran zion: “Gaixo gizona!
Zure oihu eta sakreek ez dauzkitzute orgak hortik
ateratuko! Hobe zinuke pala batekin arroilako ixtilak
lehenik baztertzea, eta gero lorietan jalgiko zare!”.
Horrela egin eta orgak arroilatik jalgi!

Prediku ondoan, jendeak elizatik ateratzen hasi
zirenean, Piarrexek bixi bixia galerietako eskaleretarik
sankrixitirat jo zuen, eta Aita Duhalde erri batez
erakutsirik:

— Jaun misionestari nahi niozke bi hitz erran.

— Segurki, gaizo gizona! Zato xoko huntarat, ala
kofesatu nahi zinuke?

— Ez, jauna, ez! Nahiago nuke jakin salatzailea
nor dutan!

Hori aditzearekin, ez zen misionest gaizoa guti
harritu:

— Bainan ez daut nehork deusik salatu!

— Bixtan da, jauna! Zuk apezetxetik ikusi ene orgak
arroilan sartuak. Uste ez baduzu ere, zure entzuterat
jitea gatik dut iratzea han utzi!

Orduan zuen Aita Duhaldek ulertu zertsu zita-
keen gizonaren kasua. Egundaino ez zion sinetsarazi
ahal ukan, La Fontaine debru harek bi mende lehe-

nago ikusia zuela bere orga iratzearekin! Gaizo Piarrrex! Oraino, etxerakoan ere, nahi zuenari errepikatzen zuen:

— Salataria nor ditakeen pentsu dut ba! Bainan ez du beste mundurat eramanen!

BASA MAREXALA

Gaizo gizona, zer ateka gaixtotik atera gintuen misione denborako larunbat arrats hartan!

Aitak bazaukan miga bat miressgarria, etxen ikusi dutan migarik ederrena. Ernaritu zenean, beha ginauden nolako aratxe ederra eginen ahal zaukun. Bainan denborak beteak eta behia ez erditzen! Hamar, hama-bost, hogoi egun pasa eta aratxerik ez ageri! Aitak amari erran zion:

—Naski markatzean hilabetez enganatu xira ba!

Amarentzat zer afruntua! Harek, lunetak sudurra-
ren puntan, postetako almanakan zintzoki markatzen
haziak noiz erein, zerrama aketzean noiz izana zen,
behia noiz estalarazia zen, eta enganatu zela aditu
behar!

Hogoi eta hamar egun erditzeko tenorea iragana
zela eta beti aratxerik ez ezagun.

Bainan goraxago erran dutan bezala, misione den-
borako larunbat arratsean, elizatik etxerat itzuli eta
behi gaztea erditzerat zoala hatzeman ginuen. Hau-

rrak oherat joan eta aita eta behia nola penatu ahal ziren!

Usaiaz kanpoko harat hunat eta arrabotsek jatzarrazazi gintuzten, eta jeiki ginen. Guk uste aratxe pollit bat behar ginuela ikusi, eta amak erran zaukun:

— Gaixo behia! Ume untzia bota dixi eta aratxea hila duxu. Aita Sohokaiko nagusiaren bila joana duxu.

Sohokai ginuen beraz basa marexala. Arras gizon eskolatua, jakintsuna eta jestutsua zela iduritu zitzaiztan. Amari bertz bat ur erakitarazirik, bere tresnak su garrean iraganik, marrera garbiak behiaren azpian ezarrazirik, lotu zen lanari. Ez bait zen oraino eletrikarik Karrikan, guk argiak atxik! Nola izerturik ez zen arizan bere operazione gisa hartan! Azkenean, behi gaixoari ume untzia lekuratu eta hari bat orratzean iraganarazirik, hasi zen urratuen josten. Behi gaixoak noiztenka auhen zombait botatzen zituen.

Bi orenen buruko, ez zezakeela gehiagokorik egin, eskuak artoski ikuzirik, tresnak ur erakitan garbiturik, kafea eta ondokoa plazerekin iretzi zituenez ez dut erraitearen beharrik.

Oren bat egon zen aitamekin solasean orduko gertakariez, hala nola *Action Française* egunkariaren eta orduko Aita Sainduaren arteko eztabadez. Etxen *Eskualduna* astekaria baizik ez ikusten, eta lehen aldikotz nuen aditu izen hortako egunkari bat bazela.

Biharamuneko, behia hobeki zoala iduritu zitzaizkun, eta laster sendatu zen; bainan harek aratxerik ez gehiago eman. Beraz, aitari saldu behar ukan zitzaion. Aski dolurekin hiru mila liberetan despeditu zuen.

Horiek hola, Sohokaiko nagusiak nolaz bildua ote zuen gisa hartako jakitatea?

AMAÑO A ETA HERRIKO MUTILA

Beharrak zer ez du egin arazten! 1927-a arte, telefonatzeko, armendariztarrek Iholdiko postarat joan behar zuten. Bainan telefona herrian aurkiturik ere, nor menturatuko zen tresna bitxi hari hurbiltzerat bera? Familian norbait hiltzen zenean, mezulariak zaldiz igortzen ziren herriz herri ahideen abisatzerat. Haur ukaitetan, ezinbertzean baizik ez ibiltzen medikuaren ondotik, eta nungo emagintsa galdegin? Beharrik bazen herrian berean basa emagintsa, amañoa deitua, eta Armendaritzeko amañoa Etxexuriko etxe-kanderea zen.

Gaixo emaztea! Bere bizian ez zitakeen alfer ego-na. Arrunt konkortua zagon. Hura bezala bi plegutan zabilzanentzat, errainak galduak zituztela zioten. Zon-baiten arabera segurik, boketak eginaren bortxaz omen zen amañoa hala bilakatua. Halere, galdegin bezain laster etortzen zen, beso baten azpian, oihal beltz baten barnean, behar zituen puska guziak ezarririk, eta beste besoaz makila baten gainean bermatuz.

Haur ukaitetako ateka gaixtoetan zonbat emazte lagundu ote ditu? Sortu eta bizpahiru egunen buruko haur ttipia bataiarazi behar, eta haren beztitzeko eta elizaraino eramaiteko ohorea amañoarentzat zagon.

Egun gertatu balitz bezain ongi orroit naiz, eliza bidean, Legartoko Elena ttipia besoetan, aitatxi amaxien aintzinean, amañoa kurutzaturik. Emazte paregabea! Ene aintzinean gelditu zitzaitan, eta arropa xuri batez erdi gorderik zagon begitarte ezti pollita begien parrerat altxatu zautan erranez:

— Xauri! Xauri! Neska pollit huni musu bat emoxu!

Gaixo Elena! Egun hartaz orroitu eta zure adina erran dezaket xuxen! Legartoko bederatzigarren haurrari ene musurik goxoena kopetan eman nion.

Amañoaren ondotik, nola utz haren senarra aipatu gabe?

Herriko mutilgoa egiten zuen. Bi behi joaredunek errota handi batzuen gainean zagon kesa ttipi bat harrigarri emeki tiratzen zioten.

Haien joareen soinu ezti pollita! Apo hixtuaren goxotasuna zaukan soinua! Etxen, aldi bat baino gehiagotan, baso batean kanibet bat harat eta hunat erabiliz, arizan gira soinu bera entzun beharrez.

Eskolako korralean metatzen ziren zikinak, herriko mutilak behar zituen handik kendu.

Lehenik, erriaz zapatuz bete pipa handi bat tabako, gustu hoberenean erre behar zuen, higitu gabe ausnarruan zauden behieri begira. Gero lanari lot, beti ezteki. Tupustel eta zikin zombait altxatu eta erdiak erortzerat utziz, karga handirik gabeko palatra kesa ttipi hartarat husten zuen. Halere, kesa noizbait betetzen zitzaion!

Orduan bazoan, berdin eztiki, korralaren beste muturrerat, eta han barreatu tupustel-zikinak palaz pollikiño joz, ixtilaren barnean sarrarazten zituen. Berriz piparen bete tabako erre eta bazoan etxerat, joareen musikari zoakion urratsean.

Igandetan ere bazuen bere gisako lana: herriko *oihua* haren gain zen. Mezaren ondotik kalostrapean kaputxinaz gordeak emazteak kalakan, gizonak aldiz familiako hobiaren aintzinean otoitz bat eginik errabote eta eliza artean solasean, ez zen handik nehor urruntzen *oihua* aditu arte.

Hamar bat minotaren buruko, erraboteari datxi-kola zagon murruxka baten gainerat iganik, Etxexurik bere predikua hasten zuen, boneta burutik kendurik:

— *Oihu* egin arazten dute!

Gaitzat bazituen Herriko Etxeko abisu, banko, zerga biltzaile, saltzaileen dei eta holako.

Artetan haatik gerta zitakeen alegeragoko zerbaite ere, hala nola:

— Holako etxeko jaunak jakin arazten dautzue bi eta lau zangorekilako azkonak mahastian ibili zaizkiola, eta beraz zepoak hedatuko dituela.

Hari so landatuak, zombait gizon ikusgarriak ziren, ezkerreko eskuan kardoizko mitxa ketan, eta eskuinekoan sua igurikatzen zuen zigarreta.

“Bi zangorekilako” azkon haiek irri karkaila zombait jauzarazten zuten, baina Etxexuriren ezpaine-tan ez zen demendreneko irriñorik ezagun.

Behin, Legartoko Jakesek berriz *oihu* eginarazi zion:

— Legartoko Jakesek *oihu* eginarazten du langileak mahastian abiatuak dituela. Jakinarazten diote hementik harateko lanak berak aise egin ditzazkela!
Zer ximiko pollita!

MUTIKOAK NESKATOEN LEIHOETAN

Moda hola zen: neskekin solastatzeko, haien gela leihoetarat joan behar!

Ez baitzuketan malezia handirik, eta behar bada denbora haietan gela batean neskato bat baino gehiago aurki baitzitakeen, edo oraino gau beltza dena irrisku zelakoan, maizenik biranazka zabilzan. Larunbat arratsetan irri egiteko zer parada ederra!

Haurra izanik ere eta, egia erran dezadan, neskatok mutikoen balentriak elgarri kondatzen entzunik, nik ere jakiten nuen Armendaritzeko leiho zonbaite-tan nolako bitxikeriak gertatzen ziren. Ordu arte leiho krisketa edo zerradura haietan nuen sinestea hegaldatu baitzitzaitan, geroztik ahalaz murruari kontrako xokoa hautatzen nuen lo egiteko.

Beraz, holaxet jakin nuen ekaineko gau batez etxe batean zer iragan zen.

Zonbait egunen iragaiterat hiritik etorri bi neska-ren leihorat bi mutiko gazte ausartatu ziren. Gela beherean izanez, ez zuten leihorat heltzeko zurubi

beharrik ukan. Lehenik leihoaren karrakatzen hasi ziren... Bainan oihartzunik ez ageri! Gero, otoitzean:

– Idekaxue, otoi! Hotzak hilak gaudexu!

Ez baitzen haien otoitza ekaineko arrats beroari eman zena, erantzunik ez. Beharria leihoari kontra atxikiz, iduritu zitzaieten barnean irriz ari zirela. Neskatok botzetik eskaleak ezagutuak zituzketen.

– Leiho txar hauiek errexki jauzaraizak duzkek! –erran eta gontzetarik atera zituzten.

Gainerat, beroaren gatik berinak idekiak izanki, bainan burdinazko barra debru haiek han!

Aitortu behar dut barra haiek nik ere hastio nituela. Aldi batez, ene buru txarra haien artetik kanporat atera nuen; eta gero, gibelerat ezin eginez, zernahi ikusi! Xaunaz pereka, burua xuxenean edo zeharka entsega, bainan bortxatuz minartzen! Aitak hantxe oren laurden baten lana aurkitu zuen.

Are gutiago bi mutiko haien buru handiak zitazkeen haien artetik barnerat sar. Orduan lausenguka: haiek bezalako neska pollitik ez zela, bunbunak ba zituztela, eta gisa hortako ele alfer zombait ibili eta neskatoak mihise petik karkailaka. Azkenean, samurtuarena egiten hasi ziren:

– Kasu! Zuen ohearekin hunat tira zaitzaketegu!

Bainan neskak San Tomasen idurikoak: ikus eta sinets! Eta hor bada senditzen dute orga haga bat oherat heltzen zaiotela. Orga haga bat murruari kontra ahanztea debruaren mutil bilakatzea! Eta gero, matalaza bere lekuan ezin atxikiz, harekin batean zoazila ohartu ziren... Joan ba, bainan lurrerat, eta ez leihorat! Bulta bat solasean arizanik, leihoak beren gontzetan ezartzen ari zirela aditu zuten. Holako hai-

tada baten ondotik, nola lokar! Bulta baten buruko, zerri kurrinka samin batzuek gau ilunaren ixiltasuna urratu zuten.

Udako gau beroetan ez ziren zerriak barnerat sartzen. Beraz, etxe haren gibeleso sohopilan zerrama bat eta laur urde gosturik hoberenean masurdika ari ziren. Haieri ere bakea ezin utz! Bat beharritik eta bestea buztanetik lotu zitzaizkiolarik, zerramak bazter guziak kurrinkaz eraman zituen.

Gaixo Manez! Andreak otoizturik, makila bat hartu eta etxe ingurua egin zuen ba, sohopilaraino ere izan; bainan hura harat heldu orduko, zerriak bake osoan masurdikan! Barnerat sartu eta berriz kurrinkak! Andreaki erran zion:

— Beldur nuxu ez dabilzala baitezpada zerrien ondotik!

Gazteen gauazko balentriak ez ziren beti hoin airoski bururatzen, eta Josep izeneko bati pollita gertatu zitzaion. Merkatu arratsalde batez, Mattin bere adixkideari erran zion:

— Gaur lagundu behar nuk. Holako neskatoarekin hitzartua nuk. Gaineko gelan etzaten duk, eta ikusiak ditiat zurubiak murruari kontra utziak. Norbait behar nitek, zer gerta ere, haien oinetan, barrandatzeko!

Mattinek baietz ba! Holako zerbitzu bat ez zita-keela errefusa.

Dupan bezain ilun zen eta, zurubiak itsumanduka hatzemanik, Josep brixta brixta igan zen, Mattini erranik:

— Norbait aditzen balin baduk, hixtu egin zak.

Eta leihoan jo zuen pollikiño... Bainan nehor ez heldu idekitzerat.

— Idekaxu, otoi! Josep duxu hemen!

Bainan leihoa elkor. Ez bait da holakoetan berehala amor eman behar, bulta handi bat iraun zuen haren arratseko otoitzak. Eta horra nun iduritzen zaion norbaitek zurubiak higiarazi zituela. Bainan hixturik ez bait zuen aditu:

— Zer ari haiz, Mattin? —erran eta —oi, ama gai-xoa!— ortzantzaren pareko botz batek harritu zuen:

— Jauts hadi!

Berehala ohartu zen Mattinen ordain zurubien oinetan bere urtxo pollitaren aita zuela: Petan! Biho-tza tanpaka ari jautsi zen.

— Haugi enekin! —erran eta Petanek sukalderat sarrarazi zuen.

Mattin, urrats batzu aditu eta, hixtu egiteko arte-rik ukan gabe, ixil ixila eskapatua zen, eta bide bazte-rreko hesian zagon. Holakoetan minotak berak zoin luzeak ez dira! Azkenean, oren bat hartan beha zago-la iduritu zitzaion. Eta hor ezkaratzeko atearen krix-keta aditzen du. Bere baitan egin zuen:

— Josep dukek.

Eta hura zen. Bere parrean senditu zuenean:

— Zer egin dauk? —galdegin zion.

Eta Josepek:

— Zer egin dautan? Nahiagoko nikean muturreko bat eman balaut! Ogi ta gasna eta botila bat arno atera dazkiak eta eni so janarazi eta edanarazi diak!

Mattinek ez zion deus ihardetsi, bainan bere bai-tan egin zuen:

— Gaizkiago ere iragan zitakean!

Zer adin ederra!

IDIAK ANBALATU

Behin ikusia nuen Behitegiko nagusiaren zaldia anbalatzen. Karrikaren pentze zolako erregebidean, Heletako merkaturat zoalarik, bat batean zaldia lauhazka abiatu zitzaion. Beharrik ez zitzaizkion oinak estriboetan kokatu, ezen hala gertaturik norbait meskaratu zela jada entzuna nuen. Izialdura eder batekin kito, erregebide bazterrean xutitu zen zaldun dohakabea. Bainan idi bat anbalatua nihork ikusia ote zuen?

Aitak bazaukan idi pare bat xarmanta: ezkerra zuria eta eskuina ogi bihi kolorekoa, laneko paregabeak. Hainbestetaraino ziren gozoak, nun buztarria haien beha ikusi eta gustu hoberenean berak heldu baitziren buztartzerat. Karrikako lanen egiteko bazen haien beharra!

Beraz, egun batez, iluntze aintzinttoan, Irisarritik heldu ziren aita idien aintzinean eta ene anaia orgetan.

Iholdi Antsoineko parrean idi zuriari zer gertatu ote zitzaion? Zerek hunki edo xixtatu ote zuen? Zerek

izitu? Harrigarriko jauzia egin omen zuen, lauhazka abiatu eta idi gorria berekin eraman!

Aitak baztertzeko suertea doi doia ukan zuen. Bainan jauzi hartan, anaia orgetarik erori eta orga errota gainetik iragan zitzaion. Beharrik ez zuen ondorio gaixtorik ukan.

Aitari iduritua zitzaion idi zuriak gibleko zango eskuina timoietik bestalderat iraganarazi zuela, eta beraz ez zitazkeela lauhazka urrun joanen. Lasterkal-di bat ederra eginik, Landdaburuko patarraren buruan hatzeman zituzten, arras kexu, idi zuriak belauneraino ixterra larrutua, odoletan, sudurretik haguna zariola. Desatelatu eta, zango kolpatua timoiaren ezker alderat iraganarazirik, ahal zuten bezala etxeraino heldu ziren.

Izialdurarekin begitarreak arras zurituak zituzten.

—Zer gertatu zaitzue? —amak galdegin, eta aitak erran zion:

—Jainkoari esker, ez gituxu kolpatuak. Iholdin iragaitean, idiak anbalatu zaizkiguxu. Erregebidean ez baita nehor gertatu, beharrena hori duxu.

Idi zuria aitak berak artatu zuen. Egun oroz zango larrutu itsusi hura zertaz perekatzen zuen ez naiz oroit, bainan gure idia hamabost egunen buruko sendatua zen.

Haatik, gero aitak halako beldur batekin zuen buztartzen. Behin anbalatua berriz anbala zitakeelakoan, idi zuri maitagarria saldu zuen.

BATTITTA ETA GEAXINE

Ez ziren Armendaritzen sortuak. Ene ustez, Battitta Heletan eta Geaxine Iholdin.

Battittak airos aire bat bazuela iduritzen zitzaitan, bainan zoin bihotz oneko gizona! Nik ezagutu nuen, ez zen gazte gaztea, bainan andrea bera baino hogoi eta zombait urte zaharragokoa zuen. Alta, ene gisa, ez zen ederren haietarik. Bestalde, arras izokorra. Uste gabetarik demendreneko arrabots bat aditu edo urrats bat senditu orduko, harrigarriko jauzi eta oihuak egiten zituen.

Udako gau batez, leihoak zabal zabala eta sukalde argi bezain kanpoa ilun zagoelarik, Geaxinek gatz untziaren alderat besoa luzatu eta leihoko barren artetik norbaitek eskua hartu zion. Gaixo emaztea! Ez zuen esku bat kanporat johan ikusteko epea baizik ukan, eta alditxartu zen. Hori kondatzean, balio zuen Battittari behatzea.

Beti, kartier berean bizi behar eta, har emanetan hasi ginen.

Behi betroin bat arras esneduna atxikitzen zuten; bainan behi hoberenak ere ezin urte guzian esnerik eman eta, antzutzen zitzaiotelarik, Geaxine esneketa Karrikarat zetorren. Amak dirurik ez hartu nahi, eta “har zaxu” eta “ez duxu deusik hori”-ka bulta handi bat artzen ziren.

Aldi batez amak igorri ninduen Geaxineri oilo koloka baten azpiko arroltze batzuen heltzerat. Battitta etxen gertatu eta gaixo emazteak bieri arratsaldeko askaria eginarazi zaukun: gasna, sagar jelera eta beste.

Ohartu nintzen Battittak, bere ahoa bezain xabal, xerritegia idekirik ahantzia zuela. Geaxine ere ohartu, bainan ene aintzinean ez zitzaion goratik zerbaiten erraiterat ausartatu. Bakarrik, haren parrean iragan aldi guziez sorbaldan ttunkako bat emaiten zion, eta ttunkako bakotxean Battittak, burua itzuliz, begi kezkatu batzuez andreari behatzen zion, bainan aldi batez ere ez ttunkakoaren segeretua zilatu. Ni handik jalgi eta gaizkiak aditu zituzkeen!

Battittak hatzeman zuen segidako lana auzoan, Etxebazterrean. Hango nagusi Jan Piarrek zango bat hamalaukeko guduka izigarrian galdua zuen, eta eremu handiko etxaldea bere bi anaiek ibiltzen zioten. Bainan bazuten lagun baten beharra, eta Jan Piarrek Battittari hitzeman zion udan han ibiliz neguan ere enplega zezakela. Alokant zabilan batentzat ez zen berri txarra. Haatik, Karrika ere arras eremu handiko etxea izanki eta Battittari ixilka aitaren laguntzeko nahikundeia buruan sartu zitzaion. Belarretan ari ziren egun batez, Jan Piarrerri gezurra sakatu zion:

— Heldu den astelehenean Donibanerat joan behar dizit faltarik gabe.

— Bon! Bon! —zion nagusiak ihardetsi.

Ondoko igandean, xoria bezain alegera etxerat etorri zitzaikun.

— Bihar jinen nuzu zien laguntzerat, bainan otoi ez Jan Piarreri sala!

Hain xuxen, astelehen hartan, Etxebazterreko aldean zen pentze batetako belarra ginuen sartu beharra.

Alta goizik zoan Battitta, xixpa bizkarrean, gordezka bezala, laharrek hartu xendra batzuetarik; bainan horra nun bihurgune batean Jan Piarrerekin buruz buru egiten duen. Zer gisaz zango motz hura bidexka hits haietan zabilan, ez du egundaino jakin. Laharrek makilaz baztertuz, ondoan iragaitean, botz idor batekin nagusiak bota zion:

— Ibil bedi gizona bide xuxenetik!

Ez zukeen Jan Piarrek bere baitan irri txarra egin! Ez zela gure langilea Etxebazterrerat berriz aisé agertu! Bainan haren atsegina, Jan Piarrek gezurra ahan-tziarena egin zionean!

Urte hartan berean, Armendaritzeko soinu mutilek buru hauste batzu, ez txarrak, jasan behar ukantzen zituzten. Bestetako lau musikari behar zituzten: klarinetari eta tronpetariak, atabalaria eta tinbalariak. Fauxtin ezin ukanez, lehenbiziko biak Baiona alde hortan aurkitu zituzten. Atabalaria berriz, Lekorneko xoko hortan. Bainan tinbalaria? Gisa hortako gizon arraro bat nun hatzeman? Nunbaitik tinbala bat ba bildua, bainan tinbalarik ederrenak ere zer balio du tinbalaririk gabe?

Azkenean, nor galdegin zutela uste ote duzue?

Battitta! Karrikan izan zitzaikun berriaren salatzeko; eta aitak erran zionean tinbala bati panpaka artzea ez zitakeela sorgingoa, horra zer ihardetsi zion:

— Ba, bainan pikoak behar baitira hatzeman!

Beraz, besta igandean, meza nagusiaren ondotik, airean nindagon Battitta bere tinbala handiarekin ikusi beharrez. Jakin zazue ez nintzala gisa hartan bakarra.

Lehenik, lau musikariek lau plaza inguru behar zituzten egin. Damurik, ez zen orai ikusten ditugun *kamera* horietarik bat! Hor abiatzen dira lau soinu mutil, bedera kadira buruaren gainean, ondotik klarineta eta tronpeta jo egileak, eta azkenik atabalaria eta tinbalaria.

Heldu zela heldu Battitta, bonetaren erdiak buru gibela gordetzen ziola eta beste erdiak lepo gibela, kopetaren gainean bilo ondo zonbait xut xuta, ahoa xabal xabala, tinbalari joka, mendi bati goiti joan izan balitz bezalako urratsean.

Soinu mutilek erraboteari kontra ezarri kadiretan jarri eta soinulariek eman zituzten dantza jauziak: hegi, xarmantina, mutxikoak, usaia zen bezala. Iduritu zitzaitan Battittak ez zituela dantza jauzien *pikoak* plaza inguruko martxa harenak bezain errexxi kausitzen; ezen, hari behatuz, klarinetariak burua ezker eta eskuin bihurtuz zerabilan.

Arratsaldean, musikariak Zopaxuritegiko aintzinean jartzen ziren, lau barriken gainean ezarri taula baten gainean. Pilota partida gelditzen zen aldi guziez, haurrak bazoazin punpeka musikarien aintzinerat. Urte hartan modako airea zoin zen? "*Valentine! Valentine!*". Balentinen bi ontasuntto haiek zer zitazkeen ez nuen ongi ulertu, bainan Battittak ere aire haren

pikoak ez zituzkeen errexki kausitzen, ezen klarinetariak atera baitzion:

— Tinbala hori belen haizatzeko etxerat eraman behar huke. Hi aditu eta ez litezkek gehiago arto landarat hurbil!

Ba, bainan soinu mutilen ohorea Battittak salbatu! Gora Battitta!

MAKILA MOTZ

Larrazkeneko arratsalde batez, eskolatik ateratu eta erregebidea betetzen zuen gizon tipito bati ohar-tu ginen. Heldu zen arma bizkarrean, bospasei zakur ihiztor aintzinean, dena oihu eta keinu, mehatxu eta sakre. Ene lagun batek jalgi zuen:

— Hori *Makila Motz* dela! Mehaindarra!

Eta halako beldur batekin hasi gintzazkon oihuka:

— *Makila Motz! Makila Motz!*

Ez zitakeen Armendaritzerat maiz agertzen, bainan arratsalde hartan egarri kaldak hartu zukeen, eta Elizetxeko edo Elizagaraiko ostalerrak haren sukarrak Mehainekoak baino errexkiago urrikalduko zirelakoan egina zukeen bi herrien arteko bide luzea. Zer gisaz bilduak ote zituen zakur ihiztor haiek guziak?

Elixabehereko bidetik plazari buruz abiatu zenean, denek, urrunto danik haatik, segitu ginuen ihiztari arraroa, beti oihuka:

— *Makila Motz! Makila Motz!*

Ikaragarriko oihuak bota zauzkgun, eta bere harma bizkarretik hartu eta begixtatzen hasi zitzaikun Laster ihes egin ginuenez, eta ahalaz gorde, batzu erregebide bazterretako arroiletan, besteak ilarrietan. ez dut erraitearen beharrik!

Gertakaria etxen kondatu eta aitak erran zautan bi mozkor mota bazirela, bainan haurrak ipurtik jarraitzen zitzaizkion hura zela urrikalgarriena.

Handik zonbait hilabeteren buruan, bezperen ondotik kukulauka hasi ginen eta mutiko bat, ongi baino hobeki gordetzea gatik, Serorategiko aterbe batean sartu zen, eta berehala lasterka handik atera zuriturik, erranez:

— Orgen azpian, lurrean zabal zabala etzanik, *Makila Motz* hila ikusi dutala!

Ez ginen guti harritu! Dudarik gabe ez jatzarrazteko oinen punttan ibiliz, ixil ixila, gure hilari hurbildu ginazkion. Eta *Makila Motz* han zabal zabala lurrean, mogimendu bat egin gabe, atorra papoa arno zirriñta batzuez zikindua! Begira eta begira egonik, hilak ez zirelakoan lanjerosak, solasean hasi ginen.

Batek jalgi zaukun hura bezalako kolore gorriko hilik behin ere ez zuela ikusi. Artetik erraiteko, hilen begitarte ez zitzaikun arrotz. Ez ginena kartierrean hil guzien ingururat biltzen otoitz egiteko? Beraz, nik ere, ez nuela ordu arte hil bati gisa hartako begitarterik ikusi.

Beste bati iduritu zitzaion hilari begi bat doi doia ideki zitzaiola. Bainan begiratuaren bortxaz ez zitzaikuna frangotan iduritu hil bati begia pixka bat idekitzen zitzaiola?

Beste bati oraino iduritu hilak besoa higitu zuela.

Apezetxea bi urratsetan izanki eta, ez ginuenez erretoraren xeka joan behar, behar bada absoluzionarentzat ez zela berantegi arizan ginen.

Ni baino ausartago bati ideia on bat jin zitzaion bururat: medikuari ikusia zion bezala, papoaren gainean beharria ezarri eta bihotzak jo egiten zion ala ez sendituko zuela.

Konkortzerat abiatu zenean, *Makila Motz* murmurikan ondoko makilari lotu zenean, asma bazterrak ez ginituenez laster hustu, gure hilen artetik piztua orgen pean loz ase zadin utzirik.

Urte bereko Iholdiko besten karietarat kusi batek bi anaiak gomitatu gintuen. Xoriak bezain alegera, meza nagusia entzunik, dantza jauziera beha egonik, tenoreko xuxen mahainerat bildu ginen.

Jainko maite gaixoa! Nor jartzen zait bisean bis? *Makila Motz!* Odola hozten ari zitzaitala iduritu zitzaitan. Begiratzerat bera ez nintzaiokeen mentura! Zoin gogotik ez nintzan mahain pe hartan gordeko!

Hain maite nuen Maia etxekandereak "aita" erran zionean, ez nintzan guti harritu. Nolaz halako perla arraroa *Makila Motz*-en alaba izan zitakeen bada?

Bazkaria aintzina joan arau, ene gizon izigarria arras gozoa zela iduritu zitzaitan: jale pollita eta irritea maite zuena. Eta gainerat ez ninduen haren ipurtik ibiltzaile gisa ezagutu, edo bestenez ez ezagutua-rena egin zuen.

Apairu ondoan Maiak erran zion:

— Kasu egin, otoi, aita! Ez sobera edan eta tenorez itzul gaur!

— Ba, haurra, ba —ihardetsi zion.

Elgarrekin gustu hoberenean pilota partidarat joan ginen.

Geroztik ez nuen *Makila Motz* egarri kurutzatu; bainan hala gertatu izan balitz, iduri zait hartaz urrikalduko nintzala.

ZOPAXURITEGIA

Armendaritzeko plazan dago, orai erditan ate leihoak hetsirik. Ene haur denboran ez zuen itxura bera. Epizeria atxikitzen zuten, eta gainerat bazuketen laborantza ttipi bat ere, ezen oroit naiz hango nagusia ikusirik, batean lur sagar eta beterrabetan, bestean belarretan.

Gizon luze lodi bat zela iduritzen zait. Bidean bazoan esku orgak beterrabez hanpatuak emeki emeki pusatuz. Noiz nahi gelditurik zagon hats beharretan. Ez zen, ez, maiz magasinan; bainan han gertatzen zenean, galdegin gauzen aurkitzeko zonbat harat hunat! Eta haien preziorik ez zuen galdegitea balio. Laster ihardetsiko zautzun:

— Gero pagatuko duzie!

Bainan Zopaxuritegiko berezitasuna enetzat hango bi behietan zagon, ezen ez nuen haien aztaparrak bezalakorik ordu arte ikusi: aztapar luzeak, harrigarri luzeak, hain luzeak, nun nekez kurritzen baitziren. Orai talazoterapian palmekin jendeak kurri ikusi eta iduri zait Zopaxuritegiko behiak bezelatsu doazila.

Gaixo behiak! Zoin gogotik aztapar punta haiek moztuko nizkieten! Aitak erran zautan beti barnean zaudela eta ez zituztela aztaparrak ez lanean ez kurri higitzen.

Egia erran, edan arazteko ere ez zituen bi behiak urrun eremaiten; eskola aintzineko arroila batetarat doi doa. Haieri begira luzaz egonik, emeki emeki barrukirat sarrarazten zituen.

Denboran bi mando ere atxiki omen zituen epi-zeriako puxken karreatzeko; bainan herriko puttiko zonbaitek asko miseria jasan arazten zizkiotelakoan, salduak zituen.

Geroztik, behar zituen salgaiak Erguyren autobu-sean ekarrarazten zituen. Hats-bahidura edo asma bazuela baitzioten, asmatikadun urratsean zitakeen aintzinamenduari segitzen.

Beharrik haren alaba Maiena ez zen llolo haietarik. Mutxurdin gelditua zen. Bere burua ttipiegia hatze-maneraz ote, kontoarraren gibeletik oinen puntan xutitzen zen, harrigarriko kesa, bidun, barila, paketa andanen erdian iduri galdua. Bazuen denetarik, eta bereziki bunbuna arraro zonbait, errekalizazkoak.

Eroslea bospasei aldiz agurtzen zuen, bai sartzean eta bai ateratzean. Mutxurdinaren berri jakiteko gutizia harrigarria! Osasun, burraso, haurride, kusien berri behar zinion eman, eta gero bazoan aro txar edo ederrerat. Dirua kondatzean, edo berdin jalgi eta ere, erosleari eleketa ari zitzaion.

Dudarik gabe, nitan konfiantza hartu zukeen, ezen bunbuna zonbaiten erosterat joan eta bi botoila xuri zaku batean ezarririk Elizetxerat igortzen ninduen:

— Galdegizkitxu bi pinta arno.

Ezetz erraiterat ez nintekeen mentura. Elizetxeko ostaturat heldu eta hango etxekandere zaharrak beti berdin erraiten zautan:

— Xauri, xauri, gaixoa! Beteko dauzkitxut ba!

Barrika baten errobinetaren azpitik botoila gorrituak jalgi eta, ohartzen nintzan gaineraino betetzen hagunak lagundu zituela, eta futxo, Zopaxuritegirat heldu orduko, haguna kasatuxea! Botoilak zakutik ateratu eta Maienak ahapetik bezala erraiten zautan:

— Sotoan argi dikexie!

Aitortu behar dut Maienak bere ezagutza gisa urtean bizpahiru aldiz erakusten zautala. Izertua, kaxkian artzeko artetik deitzen ninduen, eta gaixo emaztea ez zen ohartzen josteta debrua nekez uzten nuela...

Jan gelan ezartzen ninduen errege bat bezala, azieta koloretsu bat aintzinean. Estaia batetik irasagar edo kodoin jelera untzi bat jautsi eta kulleratraka emaiten zautan.

Gaixo herabe miserablea! Egundaino ez nion salatu irasagar jelera hastio nuela, eta etxen jan nahi ez nuena han nahi ala ez iresten nuen.

Gaixo Zopaxuritegia! Armendaritzerat joan aldi guziz begira egoiten natzaio!

SEN BLADIZ

Beila horri guk Sen Bladi erraiten ginion. Estekaturik ere, ez zinuten aita egun hartan Otsartiko kaperarat joan gabe atxikiko. Egia erran, otoitzeko gogo harrigarria zuen. Herenordenan sartua zen, beste ainitz armendariztar bezala; eta arratseko otoitza denek elgarekin egin eta hantxe zagon luzaz belauniko, negu eta udako lan dorpeenen ondotik, ordenako otoitzetan. Beraz, beilarat debozinez zoan dudarik gabe.

Bainan beste arrazoin batzu ere bazauzkan. Gazte denboran luzaz Iholdi Ameztioian mutil egona zen, eta handik ezkondua. Denbora hartan, etxe hortan Etcheberry deitu familia zagon, arras grado handiko jendeak omen. Hiru mutil eta neskato bat atxikitzen zituzten. Nagusiak biziki maitatu zuen aita, eta harek ere familia hura. Ameriketarat joan behar ukan baitzuten, hango semea Baigorriat itzuli zenean, aitaren ganat jina bere etxaldeentzat kontseilu galdegiterat ikusirik orroit naiz.

Ameztioian beraz etxeko seme donado bat bazen,

saindua deitzen zutena. Apaltasunean bizitzea gatik, mutilekin eta mutila bezala bizi zen, haien gelan etzanez, haien tenore berean jeikiz, haiekin janez. Bere dotea Otsartiko kaperaren berritzeko eskaini zuen.

Beraz, han arizana lanean eta aita kapera hari arras atxikia zen. Kondatzen zaukun nola beila egun batez armendariztar kantariak Iholdikoekin samurtu ziren. Alta Armendaritzeko parrokiak hiru saindu itxuren emaitza egina zion kapera hari. Bainan orok beren botz ederrak adiarazi nahi! Erretorak ere bakotxa bere artaldearen alde agertu eta holaxet zuten armendariztarrek beren elizan, Jauregitik ateratu arimen xedetarat egina zen kapera ttipia Sen Bladiren kapera bataiatu. Goity jaun erretorak han preparatzen gintuen kofesatzerat. Geroztik beraz Sen Bladiren beila Armendaritzen ere bazen.

Iholdiko etxeke jaun batek auzoari erran omen zion:

— Ez dakizu berri? Iholdiko Sen Bladik ume bat egin duela Armendaritzen?

Bainan egun hartan Iholdirat joaiteko aitag bazuen beste arrazoin bat ere oraino. Arreba gehiena Iholdi Uharterat ezkondua zen eta Sen Bladiz han egiten zuen bazkari. Ez daiteke erran izeba Maddik eta gero Geaxinek egiten zituzten kauserak zoin ederrak ziren. Ederrak eta onak.

Bainan izan zadin igande, besta egun ala Sen Bladi, aita beti iluna gabe etxerat biltzen zen. Zorigaitzez, urte batez beilarien artean gazte denborako lagun bat hatzeman zuen, eta harek besta egitea maite. Lagunak galdegin zion:

— Nola jina haiz?

Eta aitak:

– Oinez ba.

Eta lagunak, boneta itzulikatuz:

– Ez haizala oinez itzul! Karrosan eramanen haut.

Baietz ihardetsirik, hitzeman zion Uhartean bazkaldu eta bost orenetako Malgorrenerat helduko zela.

Hitza atxiki zuen ba gaixo aitak, eta bost orenetan bere laguna hatzeman arrallerian adixkideen artean. Haren handik xutiarazteko, gure idiak baino azkarra-
goak behar zitazkeen. Ilundu orduko, ama hasia ginuen:

– Jes! Zer gertatu ote zaio?

Oren erdi baten buruko berriz:

– Ez ahal duk nunbait erori!

Zortzi orenetan aita ez oraino etxen sartua.

– Jainko gaixoa, zerbait gertatu zaiok!

Gaixo ama! Sobera untsa usatua zen... eta gu ere ba. Xifritua, sukaldetik ezkaratzeko aterat, handik kontrabortarar, haren harat hunatak, eta nehor ez agertzen.

– Dupan bezain ilun duk, eta zilo zombaitetarar erori dukek!

Ama hola kezkatua ikusi eta asma gu nola ginen. Supazter xokoan ixil ixila, sua kitzika eta kitzika, oherat joaiteko gogorik ez...

Bederatziak... hamarrak... hamekak... eta aita ez ageri. Ama otoitzean hasi zitzaikun. Gauerditan, etsiturik, auzorat joaitekotan izan ginen, bainan gau beltzean nor mentura etxetik jalgitzerat? Hor, bada, goizeko oren batean, sartzen zaiku aita, hasarretua. Sartu orduko, amari erran zion:

– Ez nixi, ez, berriz hatzemanen! Iholdin hatzeman dixit Kadet, eta karrosan eramanen ninduela bost orenetako Malgorrenerat hitzartu gituxu. Lehe-

nik handik ezin xutiaraz, gero ostatu guzietan gelditua, batean holakoa ikusi behar eta bestean halakoa. Aldi guzietan: “Ago ixtant bat! Berehala heldu nuk!” erran eta sekulan ez ageri gibelarat. Ostatuetarik jalgi eta ez dezakexut erran zonbat etxetan gelditu zaitan.

Gaixo aita! Laguna ez zitakeen hoztua, baina hura hormatua. Beharrik su eder bat atxikia ginuen.

Kadetek ez zukeen guti irri egin! Etxerat berant aire sartu eta aditzen omen baitzuen:

– Ez haiz hi Domingoren arrazakoa!

Aldi batez bederen erran zezakeen:

– Domingorekin ninduxun!

LARRE MEDIKUA

Irisarriko Larre, mediku xaharra deitzen ginuen. Sortzez Uharte Garazikoa zen, euskaldun garbia, Irisarriko auzapeza eta kantonamenduko kontseilu orokorra.

Amak bere haur guziak haren laguntzarekin ukanak eta gure adinak bazazkien xuxen. Erran dezaket gutaz arta handia hartzen zuela. Hezurren azkartzeko, zonbat *histogenol* flasko ez dugu haurrean iretsi?

Ez zen haatik, orai bezala, ez deus batentzat medikurik galdatzen. Orduko etxekandereek eritasunari zoa-kion belarra edo ostoia edo erroa hesian edo oiha-nean aurkitzen zuten, hala nola: tillura ostoa, intzaur ostoa, leizar ostoa, sahuka ostoa, gramena belar, mehul aldaxka eta nik dakita zer. Kolpe gaixto batzuentzat, *tiranta* ixtant batez prest zuten.

Egun batez, katiximatik etxerat itzultzean, harri-garriko eroriko txarra egin nuen. Belaunaz harri mutur zorrotx bat jo eta hezurra ageri, ahal nuen bezala etxeraino heldu nintzan. Hesi bazterrean eta oiha-

nean belar batzu bildurik, urean egosarazirik, ezko eta gogorat heldu ez zaizkitan beste asko ekaiekin nahasirik, gantzugailu horasta bat egin zautan; eta, ongi ikuzi ondoan, kolpea harekin lotu. Hiru egunez higitu gabe egonik, mediku eta erremediorik gabe sendatu zitzaitan.

Halere ez zitakeen beti medikurik galdegin gabe egon. Ez zen mediku xaharrarekin botikarioa aberastu. Eria artoski miatu eta, berekin zerabiltzan erremedio batzu uzten zizkion.

Amari jateko onxkoak manatzen zizkion. Sukarra jautsi orduko, esne deitzi berria arroltze gorringoa barnean, oilasko haragi xuria eta holako.

Anaiak meninjita, haurren herbaildura eta errefria bildu zituenean, zonbat bisita egin ote zizkion? Eta aldi guziez, kokotserat bildu belaunak zoin eztiki lekuratzen zizkion!

Bospasei urte nintuelarik, zaldizko karrosan zabilan eta Landdaburuko gainbeheran urrunetik ezagun zen. Haren larru dirdiradunarekilako zaldi ederra!

Karrosa eta zaldiaz arta hartzeko, mutil bat atxikitzen zuen, eta haien artean joko egile zonbait ere gertatzen zitzaizkion, bereziki ukan zuen azkena. Mediku xaharrak beribila erosteaz geroz, 1923'an, mutil ohia oihal saltzen etxez etxe abiatu zen, eta amari kondatu zion ateratu aintzin nagusiari egin zion joko.

Larre Irisarriko plaza zolan bizi zen. Hango baratzean baziren mota guzietako fruituak: mertxika, udare, gerezi, sagar eta beste. Xoxoak partida zituen, bainan ere xoxoak ez ziren ohoin batzu. Ontzerat eman orduko fruituak ebasten!

Mutilari manatu zion behi joare andana bat este-

ka zitzan arbolen aldasketan, haiek entzutearekin tiro bat airerat tiratuko zuela. Mutilak ezarri zizkion ba joareak... Bainan ere piru bat haiek bere gelatik jo arazteko gisan; eta ere lastoz hanpatu mamu bat, bere gelatik erorrarazteko gisan.

Gauerditan hasi zen joare haien guzien joarazten eta mediku xaharrak leihoak ideki eta, *pam!*, tiroa tiratu. Eta mutilak mamua lurrerat erorrarazi. Orduan mutilari nagusia oihuka hasi omen zitzaion, jeiki zadin laster, ohoina izitu eta arbolatik erori zela, eta lurrean zabal zabal zagola!

Egia jakin eta zer erran ote zion mutilari? Nago ez ote zuen bere baitan irri egin, ezen noiztenka bederen arralleria laket zitzaion.

Gogotik kondatzen zuen zer gertatu zitzaion gure auzoan. Legartoan, Jakes harat ezkondu aintzin, Bara-xtartekoek etxetiarra atxikitzen zuten. Egun batez, hango azken etxetiarra etortzen zaio Irisarrirat, behor eder baten gainean, baizik eta andrea eri zuela.

Berak zaldia arras maite ukanki eta mezulariari erran zion:

— Zer behor ederra duzun!

Eta harek:

— Ba, jauna, ba! Nahiago nuke okerra balitz!

— Zer erran duzu?

— Nahiago nukela okerra balitz!

Irisarritik Legartorat artino bere baitan arizan zen:

— Emaztea eri duela? Bera ere ez duk haatik hain ongi!

Legartoko eria artatu eta Etxeberrian gelditu zen, nagusi xaharrari bisita baten egiteko; eta harek bere-hala galdegin zion:

— Nola doa Legartoko Janamari?

— Ba, arras eri da, bainan nago senarra ere ez denez izpi bat joa.

— Zertako?

Eta kondatu zion behorraren ixtoria. Bestea irriz karkailaka hasi... ezin ixildua.

— Zertako irri egiten duzu? —galdegin zion medikuak. Eta harek:

— Okerra balitz nahiagoko zuela... aise erran dautzu ba! Aspaldi itsutua du!

MEDIKU GAZTEA

Larre mediku xaharra deitzeaz geroz, bixtan da bazela ere mediku gaztea, eta hau Mendy deitua, Irisarri Larranbordako semea; eta, denbora hartan bakan ikus zitakeena, laborari semea.

Armendaritzen ere haren familia ongi ezagutua zen, ez bakarrik Larranborda etxalde ederra zelakoan, baina ere hango nagusia hagin ateratzailea eta ahoko faltsuen ezartzailea zelakoan.

Xaharra eta gaztea ez ziren bakarrik adinez desberdinak; xaharra herabetsu bezain gaztea ausarta. Baina biak zoin artatzaile onak! Denbora hartan begi eta beharri onak behar zituztela! Mendy, aita bezala, aho artatzailea ere zen; eta, ziotenaren arabera, zinkurinak nekez jasaiten zituena. Egia erran, gogoan zuen hura ahoan bilorik gabe botatzen zuen, eta holaxet zirtolari baten omena bildua zuen.

Bere bizi guzia feiros eramana zuen Jakes izeneko baten bisitatzeko, noiztenka auzoan gelditzen zen. Mia eta mia ari zitzaion aldi batez, Jakes arras kezka-

tua zagon bihotzari ez ziolakoan kasurik egiten. Beste guziak ongi ukanik ere, bihotza irriskuan izanez, zertan liteke gizona? Beraz, ezti ezta galdegiterat ausartatu zen:

— Eta ene bihotzño hori zertan da?

Ez zuen ihardespena luzaz igurikatu:

— Zer du zure bihotzak? Zuk bezainbat iraunen du, ba!

Hiltzeko lanjerrean zen baten salbatzeko zer ez zuen eginen! Holetan eta omen andana bat erabiliz, jenden artean bazabilan haren balentria harrigarri baten ixtorioa. Bidarraiko mendi zoko batetarat deitu omen zuten, eta eria gaizki aurkitu zuen. Baresare minarekin gizona oinaze izigarrietan zagon.

Orgetan plazarat jautsirik, eritegi batetarat heldu aintzin hilen zelakoan, mediku ausartak erabaki zuen han berean eta berehala operatuz baizik ez zitakeela salba. Beraz, mahain gaina eta sukalde gaina mihisez estalirik, mediku lagun bati dei eginik, eria hantxet operatu zuten.

— Sukarra ez balinbazaio jausten, mezulari bat igorrazu Irisarrirat —etxekandereari erranik, gibelerakoan lagunari Mendyk erran zion:

— Ez dikek, ez, ihardokiko, bainan guk egin ahala egina ukanen diaguk.

Handik zombait egunen buruan, mezularirik ez ikusi eta berriz Bidarrairat jo zuen. Zaldia galdegin behar zuen etxean, etxekandereak atera zion:

— Ori! Kontent da zutaz! Arranjatuko zaitu!

Lauhazka harat heldu eta sukaldearen erdian jarririk eta manta handi batez belaunetik sabeleraino gorderik zagon eriak erran zion:

—Zu ofizialea! Ez zira, ez, ofizialea!

Manta baztertu eta josturatik kanporat agertu oihal mutur bat erakutsi zion.

—Gaizo gizona! Horrek salbatu zaitu! —zion ihar-detsi, usua oihal haren bidez kanporatua baitzuen.

Bidarraitar hura xaharturik hila “omen” da.

LANDAETXEBERRIA

Hurrek denak jakin behar! Jakina ginuen aita Armendaritze Landaetxeberrian sortua zela, eta futxo nehor ez etxe hartaz mintzo. Nun zen ere nehork ez erraiten.

Mixterioa zilatu beharrez, arrats batez, supazte-
rrean, amaren kitzikan hasi ginen. Bainan ixtorioa
guk asmatu baino zonbatez hunkigarriago ez zitzai-
kun agertu!

Beraz, amasoren burrasoak ehuleak ziren, eta
Armendaritze Arrainpean bizi. Denbora haietan jen-
dea ez baitzabilan orai bezala jo harat eta ho hunat,
erosgailuak esku menean aurkitu behar ziren, eta
herri gotor guzietan ehuleak ba omen ziren.

Bere bederatzi ehun arimekin, Armendaritze ere
ez ote zen herri gotorra? Haatik, iragan mende erdi-
tsutan, industriak ofiziale ttipi guziak, eta bereziki
ehuleak, errautsi zituen. Geroa ilun aire iduriturik,
arbasoek beren lan bidea despeditu zuten, eta Behasi
deitu kartier pollitean Landaetxeberria erosi.

Ene ustez segurik, Armendaritzeko lurretan aurkitzen zen Behasiko etxe bakarra zen, beste etxeak Donamartiriko lurretan ekarriak baitira.

Beti amaso harat ezkondu eta haurrideak, bixtan dena, kanporat. Aitaso Donoztiri Urrixeko semea zen, eta bere dotea etxea bezain luzeko aterbe baten egiteko utzia zuen. Zorigaitzez, ez zuen ez irakurtzen ez izkiriitzen ikasi. Han sortu ziren Maddi, Benat, Frantxixa, Dominika, Jan Piarre eta, azkenik, Domingo, ene aita. Ene aitaren ukaitetik ez zen amaso ongi jalgi, eta bi urteren buruko hil zen. Asma aitaren eta sei haur ttipien bihotz ximikoa!

Zorigaitz bat ez dabilala bakarrik, egia handia! Arranjamenduak ez baitziren eginak, aitasori amasoren haurrideak jatzartu zitzaizkion. Haatik, onez onean baizik ez zezaketen familia etxetik kanpo eman, aitak adinak bete arte. Eta hor bada bi lekuko eta paper batekin etxerat etorri eta notariak aitasori sinetsarazi zion, paper haren zolan kurutze bat ezarriz, bere bizia Landaetxeberrian eramanen zuela. Gaixo gizona! Etxetik jalgitzea zuen sinatu, eta biharamunean uxerra ukan! Holakorik izan daitekela ere gogor da sinestea!

Beharrik Donamariak bazaukan etxe bat hutsik, Etxartea deitua, eta han jarri ziren ahal zuten bezala. Donamarian bazen larru apaintzeko lantegi bat, bainan ere laborantza pixka bat, eta hango nagusiak galdegin zuen aitaso laborantzako. Asteko bost egunez, goizetan goiz jeikiz eta arratsetan berant itzuliz, hazten zuen bere familia. Bost egunez erran dut, ezen larunbatetan, garbitasunaren egiteko, asteko ogia atzarki azpiarekin labean erretzeko, etxen gelditzen

zen. Ortziraile arratsetan, irabazi zilarrezko sosen soinuaz, supazterrean lokartu sei haurrak jatzarrarazten zituen.

Bainan ene aitak adinak bete arte, nihor ez zita-keen jar Landaetxeberrian; eta ximenei gabeko etxeek ez zutelakoan zergarik pagatzen, norbaitek ximeneia lurrerat aurtiki zuen.

Egun batez, hameka urte nituelarik, pietunak eka-
rri zaukun letra bat, “*recommandée*” gainean emana, Baionako kadastratik igorria, zointan ezarria bait zen aita, adinetarat heldua zelakoan, etxearen jabe zela, 1877-tik 1929 arteko zergak pagatuz! Hogoï ta hama-lau urte bazuen aita “adinetarat” heldua zela! Kadas-tra hartan ez zitazkeen biper gorritz perekatuak! Letra irakurtu eta aitak erran zaukun:

— Ez zazuela ihardets! Laharren artean etxea ez dukek ezagun ere. Nahiago diat ez dezazuen Landae-txeberria gehiago aipa ere.

Denbora jin, denbora joan, 1955-ean, notari eza-gun bat etorri zitzaitan etxerat:

— Ene kondu egilea eritu zait. Otoi behar dauzki-dazu bi hilabetez ene liburuak atxiki.

Egun argiz ezin eta gauaz lagunduko nuela hitze-man nion. Eta ohartu nintzan paper bat Landaetxe-berriko ixtorio bertsuaz mintzo zela. Biharamunean notariari erran nion:

— Kasu bera gertatua da gure familian.

Ixtorioa kondarazi eta notaria jauzi zaitan:

— Zer zarete zozotuak afera hortan uzteko! Era-manen zaitut Baionako kadastrarat.

Izan ginen ba kadastran, eta berehala Landatxe-berria gainean zaukan ostoa handi bat ezarri zaukuten

begien aintzinean. Landa bat bazen holakoak erabilia; pentze bat beste baten eskuetan; lur peza bat bi aldiz saldurik izana... eta hola. Etxeaz eta inguruko lur poxiaz bakarrik zitakeen jabetu. Aitaren erranaz orroitu eta:

— Utz, otoi, paper horiek lo egiterat! —erran nioten.

Halere, etxea zer xokotan zagon ikusi beharrez, duela hamar bat urte jo nuen Behasirat. Emazte xahar bat ari baitzen baratze jorran, galdegin nion:

— Erraiten ahal dautazia nuntsu den Landaetxeberria?

Zer behako bitxia egin zautan, eta azkenean atera:

— Oi, oi! Iragan astean barreatua dugu azken pareta, xerritegi berrien egiteko!

Halere, ikusi ahal ukan nuen zoin xoko pollitean izana zen Landaetxeberria!

HARMARIK EZ!

Urriko goiz batez, sekulan egiten ez zuena, aitak goizik jatzararazi gintuen:

— Zatozte laster eta ahal bezain ixilki.

Gelatik laster jautsi ginenez ez dut erraitearen beharrik. Aitak ezkaratzeko atea doi doia ideki eta zer ikusgarri miresgarria! Dena betetzen zutela, zonbat urtxo ote ziren samatserat bilduak?

Nolaz edo zertako harat jautsiak? Egia erran, denbora arras nahasia zen. Gaixo urtxoak! Aldizka hegala idekiz, jauzi ttipika zabilzan. Bere uhain gris xuhailekin, samatsa itsaso laño baten pare bilakatua ginuen.

Alta xoratuak eta ixil ixila ginauden, baina zer-bait gisaz guri ohartu zitezkeen eta... *brau!*, harrigarriko burrunba batean denak betan hegaldatu zitzaizkigun.

— Harma bat ukan baginu bederen! —nik erran behar ukan, eta aitak berriz:

— Ez harmarik etxen atxik!

Asko etxetan, bi edo berdin hiru harma ximinei paretan ikusiak ukanki eta gure etxean zertako ez harmarik behar?

Oraino aipatua ez zaukuna, Etxartean haren anaia Jan Piarreri gertatu zitzaiona kondatu zaukun.

Ama galdua, aita egun guzia Donamarian, haurrak handitu doi etxetik airatu ziren: batzu sehi hirirat, besteak auzo herrietarat.

Elizalarrean zapatain aprendizgoan zabilalakoan, Jan Piarre zen bakarrik etxen gelditu. Arras mutiko gisakoa omen zen, aitaren arabera saildua. Etxerat sartu orduko, bere aitari egin ahal lan guziak egiten omen zizkion. Hots, hura bezalako zerbitzu egilerik ez omen zen.

Igandetan eta astia zuenean, aitaso ihizirat joaiten omen zen, eta gero ez omen zuen sekula harma desarmatu eta ontsa garbitu gabe uzten. Igande batez, astirik ez ukanez, harma garbitu gabe utzia zuela ohartua zen Jan Piarre. Beraz, aitari plazer egiteko, demendreneko beldurrik gabe, muturra sabelari kontra finkatuz, harmaren garbitzen hasi zen.

Zorigaitzez, harma kargatua zen. Tiroak sabela eta hertzeak zintzilikatu zizkion. Zortzi egunez azkar-ki pairatu omen zuen. Azkenean, bi korroken artetik, doi doia entzun zitakeen *Salve, Regina* kantatuz, jauzi batean azken hatsa bota zuen.

Ez nion aitari gehiago galdatu nolaz ez zuen harmarik ximinei paretan.

ENE AITATXI

Bederatzi urte nituelarik, Parisetik hilabete baten iragaiterat etorri zitzaikun izeba Dominika, aitaren arreba. Bazuen hogoi eta zombait urte ez zela Euskal-Herrirat agertu, eta beraz guretzat ez zen gertakari txarra.

Gaizo emaztea! Haurtasunean Iholdi Etxotobordako ahideekin egona zen; eta gero, hamabost urtetan, irakurtzen eta izkiriatzan ikasi gabe, frantses hitz bat jakin gabe, Toulonerat sehi joan zen, amiral baten etxerat. Amiral hura nolaz jin zen gisa hartako neska baten galdatzerat, ez dut jakin ahal ukan.

Beti, ez zitakeen guti penatu, nagusiek galdatuak ezin ulertuz. Harat heldu orduko, igorri omen zuten komisioneketa etxondoko magasin batetarat. Iduritua zitzaion baratxuri eta paper latza zituela ekarri behar. Zakutik mahain gainerat haiek hustu eta... zer irri karkailak!

Nunbaitetako hala beharra, paregabeko nagusi etxekandereekin eroria zen, eta itsutuki maitatu zuten.

Kozinatzen erakutsi zioten. Kondatu zaukun nola familia hartako sei hurrek, ezkondu ondoan ere, *nunu* deitzen zuten. Hiruetan hogoi urtetarat heldu zenean, erretreta eder batekin utzi zuten.

Karrikarat sartu zelarik, ohartu nintzaion galdeeri biziki nekez ihardesten zuela. Joaitan frantsesik ez jakin eta orduan euskaraz ezin ihardets! Mihia ahoan dantzan, bainan elerik ez ezagun! Guri behatzearen bortxaz, biharamuneko euskalduntzen hasia zen.

Gau batez, afaltzeko mahainaren inguruan jarri ginelarik, aitak erran zion:

— Benatek, zer fortuna egiteko hoin denbora laburrez!

Hori aditu eta izebari kopeta eta sudur muturra zimurto zitzaizkiola ohartu nintzan.

— Zer kondatu dauk? —zuen ihardetsi.

Benat anaia zuten, aita baino hamar urte zaharragokoa, eta ene aitatxi; edo, hobeki erraiteko, lehenagoko katixima liburuxkan ezarria zen bezala, ene aita-bitxi. Besta egitea arras maite omen zuen, eta hemezortzi urtetan Argentinarat joitea erabaki zuen.

Harek ere irakurtzen eta izkiriatzen ez ikasi, eta joanez geroztik berririk igorraz gabe, hogoi eta hamar urteren buruan aitari etxe aintzinerat etorri zitzaion, erranez:

— Hire anaia Benat nuk!

Hura Ameriketarat joan zelarik ene aitak zortzi urte baizik ez eta bere anaia ez zuen ezagutu. Halere gure etxean kokatu zen.

Beraz, aita bere arrebari hasi zen Benaten ixtorio

luzearen kondatzen, eta nik ere hola jakin nuen zer gizon nuen aitatzizat:

— Etorri zaitanan apaindua, zigarroa ahoan, barneko motxetik muntra kadena dilindan. Itxuren arabera dirua burrustan bazerabilanan. Lehenik, mutil egoenez, ainitz irabazi; eta gero bere gain jarri, ehun bat behi esnadun eta abere andana batekin. Ordukotz, behiak deitzi eta ziterna beribil batetarat mutilek esnea bota, eta harek Buenos Airesen sal. Mutil eta neskatu andanarentzat oilaskoak *lazo* deitu azotearekin bil eta dupiñarat bota. (Hori haatik handixkoa botatua zuen!). Bizi ederra eramana omen zinan, nahi zuena jan eta edan. Han koñaka maitatua zuelakotz, Donibaneko merkatutik ekarri nionan hiru izarreko botoila bat! Goiz batez, ate aintzinean haur bat hatzeman zinan, eta hura altxatu jeneral bat ateratu arte. (Hori handiagokoa oraino!). Beste amerikano guziak bezala, Iholdi Lohitegian hamabost egun pentsionean iragan zitinan, eta gero berriz etxerat itzuli. Orduan karrosa eta zaldi bat erosiko zauzkula hitzeman. Eguerdi batez nor etorri zitzaikula uste dun? Irisarriko jandarmak! “Holako amerikano bat bada hemen?”. Baizik eta berrogoi ta zortzi urte baizik ez zituela, eta beraz soldadogoa egin gabe joanik, *insoumis* ekarria zela; urte bat gehiago Argentinan egonez, libro izanen zela; bainan galdea ukana zutela *Fort du Hâa* Bordeleko presondegirat eramaiteko. Eta preso joan zitenan. Hiru egunen buruko, Benat berriz etxe aintzinean: “Diruarekin nahi dena ardiesten duk! Ekarri guziak utzi dizkieiat, eta beraz Argentinarat joan behar diat. Bainan laster itzuliko nuk, eta ez ditiat ahantziko hitzeman karrosa eta zaldia. Eta ez baitut oraino

semeatxirik, sortuko den lehen mutikoarentzat aitatxi hauta nezazue”. Baietz eta baietz... eta ondoan sortu bigarren mutikoa, horra Beñat. (Ene fortuna!).

Ixtorioa bururatu arte, izebak ez zuen deus jalgi. Bainan orduan:

— Debru gizon urdea! —bota zuen, eta gu denak harritu—. Ez zakian, ez, irakurtzen, bainan ni nunbaitik Parisen hatzeman nik. Ez zian pilik! Soineko atorratik hasirik, denak nik pagatuak nizkioian, ez zinezaten ahalgerik jasan: soinekoak, oinetakoak, muntra, Lohitegian egoiteko dirua, sakelakoa eta beste!

Zerua lurrerat erori balitz ere, ez ginen naski gehiago harrituko. Aitak galdegin zion:

— Bainan dirurik gabe, nola debru jina zen Argentinatik?

— Untzietan lan eginez, ikatza bapurrerat botatuz, *Le Havre* deitu portuan jautsia zian, eta berriz handik gisa berean harat itzulia.

Komunione handia egiteko eguna etorri zitzaiteanean, amak erran zautan:

— Ez dixi aitaxiren ganik deus igurikatzea balio. Halere izkiriatu behar dioxu. Bizi balinbada, atsegin hartuko dixi.

Izkiriatu nion, beraz, utzia zuen helbiderat, eta ihardesprenaren beha egon egunak, asteak, hilabeteak... Ezin sinetsezkoa! Sei hilabeteren buruko, Argentinatik etorri zitzaikun letra bat bitxia, gainean *retour à l'envoyeur* ekartzen zuen letra bat, estalgiaren gainean bospasei helbide, giblean beste hainbeste, estalgi haren pean beste estalgi bat helbidez betea, eta haren azpian hirugarren estalgi bat beti helbidez betea, eta azkenean nik igorri letra!

Geroztik ez erran eni Argentinako postak ez direla zintzoki ari lanean! Ene aitatxi zer mirakuilu arizana ote zen hiri haiek guzietan?

Horiek hola, nun ere ehortzia baita, ene aitaxik badu egun guziez ene otoitzñoaren segurtamena.

HIRU NESKA URRIKALGARRI

Bere etxetik noiz nahi eskapatua, bazabilan bidez bide, Jainkoak baitaki nola bezi, biloak sasi baten pare. Gaixo neska! Burrasoak galdu eta ahizpa batek emaiten zion jaterat, bainan nehork ez zuen gehiago urrats bat egiten haren ondotik.

Erortzeko minak errautsia zagon. Ilundu eta nun ere aurkitu eta han berean zuen lo egiten, hala nola arbola baten azpian, erreka bazter batean edo berdin sasi baten barnean. Otoizturik ere ez zitakeen handik xutiaraz. Mezako liburu bat, mantalina eta arropa zahar batzu papoari kontra tinki tinkia zauzkan, eta haieri lotzerat nihor ez zadila mentura! Nun nahi erortzen zen, ahotik haguna zariola zalapartaka, eta artatzerat nihor ezin hurbil. Orgabidetan trebes hatze-man eta hura hunkitu gabe orgak iragan ziten, nolaz-peit baztertzen zuten.

Etxe gibealeko mendixkan kurutzatzen nuenean, jakin zazue ez nintzala sobera fida! Geroztik egon

naiz frangotan nolaz ez zuten ospitale batetarat eramaiten.

Ez hura bezain dohakabea iduriturik ere, herrian baginuen beste neska urrikalgarri bat. Haren izenaz ez naiz oroitzen, denek *Zozoa* deitzen baitzuten. Hogoi bat urte zituzkeen, eta Olaenean, beraz auzoan, sehi egona baitzen, askotan Karrikan ikusia nuen. Ez zitzaitan iduritzen arras zozoa, bainan sei urteko haur baten arrazoinamenduarekin gelditua.

Begitartetik ageri zuen ez zela besteak bezalakoa. Begi nahasi batzuez begiratzen zuen, eta irri ergel batekin ahoa zabalik so egoiten zitzaizun.

Urriko ortzegun batez, mendian iragaitean, iratze espalkatzen hatzeman nuen, eta ixtant bat egon nintzaion begira: bi espal itxuraz arras bitxiak egin eta haien gainetik dantzan zabilan. Dudarik gabe, harek ere senditzen zuzkeen iguzkiaren edertasuna, haize freskoaren perekua edo hegoaren harrotasuna.

Dударik gabe ere, gisa hortako egun batez, norbeitek esperantxetan ezarri zuen. Hitz horrek zer erran nahi zukeen gogoetatua egonik, nunbaitik jakin nuen haur beharretan zela. Gertatzen ez denik ez haatik!

Hartaz eta haren haurraz zer egin zuten ez dakit. Bainan ele xuxen edo makur ainitz herrian ibili zirela oroit naiz. Mendekatzeko holako gertakari hitsetaz baliatzen direnak ere ba!

Larunbat arrats batez, Karrikaraino entzun zituzkeen arramantza batek bazterrak inarrosi zituen. Ez zen, ez, musika goxo bat! Bertz zaharrerri, bost pintako petrola untziera joka, azkonen haizatzeko baliatzen ziren tutak joz, behi joareak panpalaka ibiliz,

Armendaritzeko zakur guziak erausika hasiarazi zituzten.

Haurrek jakin nahi zertako zuten gisa hortako kalapita bat piztu, bainan gure aintzinean burrasoak ez garbiki mintzo. Halere pixka bat gora behera sujeta zer zuten zilatu ginuen.

Etxe batean, auzo herritik sehi etorri neskato bat esperantxetan gertatu zen. Holakoetan agertzen azpitik joko egileak! Deus xuxenik jakin gabe, “holetan” hau edo hura akusa, mutiko gazteak beroarazi... eta horra tutak!

Emazte ohatzelariari harriak botatu nahi zituztenen erdian bezala, Krixto agertu balitzaiote eta galdatu: “Hobenik gabekoak jo diezaiola lehenik tuta”, ez zuketen nehor jatzarraraziko.

Beti, herri guzia nahasarazi zuten. Akusatua ez baitzen nor nahi, afera jandarmen eskuetan ezarri zuen.

Irisarriko jandarmak lezafinak bezala ibili ziren hau kitzika, hura xixta. Gauaz hesiz hesi berdin, ezen ilargi xuritarat kaxketa puntta bat ikusi orduko, barrandan zaudenek bazterrak laster asaldatzen zituzten, eta orduan nun gorde hesi baten barnean baino errexago? Azkenean, hesi batean gazte batetaz jabetu ziren, eta dudarik gabe mehatxatuz mintzarazi zuten. Bainan beti ihardespen bera zuten entzuten.

—Afera hortaz zerbait xuxenik ba ote dakizu?
—galdegin eta:

—Nik ere bester aditua dut.

—Noren ganik?

Eta gaztiguaren beldurrez:

—Holakoaren ganik.

Beraz, jandarmek jo izendatuaren etxerat.

Batetik besterat, nork errana zion atera ez zezakeen emazte bat aurkitu zuten. Azpitik akulatzailea nortsu zitakeen holaxet agertu zen, eta laster tutak jo egitetik gelditu.

Gaizo neska! Estatu hartan, haren hutsaz gisa hortan baliatzeak egin ziezaiokeen minaz, zonbat tuta jo egile axolatu ote ziren?

HERRIKO BOZKAK

Tuta haiek herri guzia nahasi zutela jada errana dut. Horra nun Barberaineko Petanek Bestaberri eder bat muntatzen duen.

Lehenik jantzi berriak erosi zituen, eta gero zahar-rak eta gazteak beztiarazi. Armendaritzen bizi baitziren oraino bost ehun eta laueta hogoi arima, asma dezakezue herriak ezagutu Bestaberri ederrena ikusi ahal ginuela.

Ordu arte, grado handiena kapitaingoa izana zen. Petanek grado handiago bat sakatu eta bera jarri zen *komenant*. Ez zen lanik gabe. Hemezortzi urtetarik berrogoi ta hamasei urte arteko maingu ez ziren guziak beztitu ziren. Oihanburuko osabarekin aita "oilar" ginuen.

Besta horren karietara jende alde gaitza bildu zen, eta Armendaritzek ukan zuen lehen aldikotz Francis Jammes deitu olerkari aipatuaren bisita. Haurren artean, haren bizar luzeak eta zango sagarretan estekaturik zauzkan galtzek ukan zuten arrakasta!

Haatik arras jende gutik baizik ez zuten senditu gatu horrek bazuenez beste buztanik. Bozkak hurbiltzen ari baitziren, zombait hilabeteren buruan hedatu zen berri handia: bi lixta izanen zirela, eta Bestaberriko komenantak herriko komenangoa ere begixtatzzen zuela.

Jada aipatua dutan Salenave errienta Armendaritzerat izendatu baitzuten, Goity jaun erretorak ixil ixila Herriko Etxeko idazlaritza utzi zion. Harek senditua zukeen herria bi alderditan jartzerat zoala eta hobe zuela guduka hortarik urrun egoitea.

Eta hasi zela guduka! Oro har, herri gizon eskola-tuenak Donamari auzapez zaharrari leial egon zaizkion. Bainan Petanek bazuen dirua eta astia. Laster jakin ginuen gure osaba Manez Petanen lixtan izanen zela.

Lixta hortan bazen ere bere izena izkiria ez zezakeen bat. Berrikitan ikusia dut kurutze bat ezartzen zuela izenaren ordain deliberamenduen liburuan. Horrek ez du erran nahi ez zela gizon zintzoa.

Ez dut uste, orai zombait lekutan ikus daiteken bezala, bat bestearen kontra ele gaixtoka artzen zirela. Okasioneaz balia, zombat ateraldi pollit ez zen han hemenka entzuten?

Kartierreko armendariztar gizon luze beltzaran batek iholdiar adixkide propi bat aurkitu zuen auzoko etxe batean. Irriteko iholdiarrak hasi zen mementoari eman zitzaizkion sorjeskeria zombaiten ateratzen. Armendariztarrak lañoki, adixkideen artean erran daiteken bezala, bota zion:

— To! Urde bat ederra haiz!

Hori entzun orduko, iholdiarrak berriz:

— Hi ere urdea haiz, bai, bainan ez ederra!

Botz eske zabiltzanen sino-minoak ziren ohargarrienak. Botz eskatzea ez baitzen haatik lan goxoa, eta zonbait aldiz ez errexa ere! Arotik aberetarat, zonbat solas alfer, zonbat itzuli mitzuli, bihotzean zaukatena erakusterat eman gabe! Iduritzen zitzaitan haien plazan nekeenetik edo nekezenetik hasiko nintzala, behar bada hura nuelakotz lehenik aditu nahi.

Kartierrean lau kontseilari gai baginituen: Etxeberri, Oiloki eta Mendiri, auzapez zaharraren lixtan; eta Etxebazter, Petanen lixtan. Arratsalde batez, lau gizon, lixta bakoitzetik biga, botz galdez etxerat etorri zitzaizkigun. Kolpu bat edanez, sekulako berri andana ibili zituzten, eta noizbait batek atera zaukun:

— Zoinek behar du lehenik botz galdeka hasi?

Aitak ahoa tapatu zion berehala:

— Ez dik balio botz galdeka akitzea. Heldu den igandean ene eginbidea beteko diat.

Gure etxetik ateratzean, ez zuten lauek jo Legartorat, bainan lixta batetako biek bakarrik. Legartoaan Karrikan baino minberago ausartatzea, ezen Jakesek bazuen anaia bat lixta batean, eta koinat bat bestean. Zeiharkako bidea hautatua zuten, galdea zuzenean egiteko orde:

— Ez du balio zuri botzik galdegitea. Zutan konfiantza osoa dugu. Badakigu gure lixtaren alde zirela.

Ez baitzen pikaren azken umea, Jakesek ihardetsi zioten:

— Ori! Beste lixtakoek ere berdin berdina erran dautazie.

Handik jalgi eta eskale haietarik batek atera zion besteari:

— Sorgina behar dizi izan, noren alde diren jakiteko.

Arrats batez berriz, gauerditan norbait atean pan-paka hasi zitzaikun. Botz galdez zabilan kontseilari gai bat zen. Tenore hartan jendeen jatzarraraztea botz biltzeko biderik hoberena hautatua ote zuen? Mainkuxko izana gatik, bere makila lasto metari kontra ahantzirik, bere etxerat itzuli zen.

Bozkatze bezperan errientak errana zaukun, on ginuela bozkak nola iragaiten ziren ohartzea. Kurios-tasuna nagusiturik, elizari datxikola zagon Herriko Etxean, edo hobeki erraiteko Herriko Gelan, zonbat sar jalgi ez ginuen egin! Ari ziren ari kondutan, izerdia zariotela. Ene aita guti edo aski barne hortan eskolan ibilia baitzen, lehen aldikotz han sartzeak halako bat egin zautan.

Zazpiak irian, Jan Battitt, Petanen anaia, jalgi zen begitarte alegera batekin, erranez:

— Petan bere lixta guziarekin nagusitu dela!

Biharamunean, paperak ez baitziren bulegoko begiratzaile guziez sinatuak, errientak igorri ninduen etxez etxe. Oroit naiz lehen aldikotz Urrutian izan nintzala, eta azkenik Donamarian. Hango sukalde ederra eta salda usain ona!

Ondoko igandean, Petan auzapez izendatu zuten.

Astia eta aberastasuna zauzkan gizonak, hatze-man zuen bere bihotz eta borondate onen enplegua. Kontseilu barnean ere, nor bihur halako gizon erne bati?

Baionatik Armendaritzerat zoan aldi batez, Etxebazterreko ondoan, ahate bat bere dotzena ahattoak *ttil... ttil... ttil...* gibeletik, erregebidearen erdian gerta-

tu zitzazkion. Beribila geldi arazi eta, haieri beha, bere beribil gidariari atera omen zion:

— To! Armendaritzeko kontseilua!

Erran daiteke Petanek Armendaritze maite zuela eta armendariztarren zerbitzatzea zuela bilatu.

ONBRELINOA

Bozka ondoko Bestaberriz ezagun zen Armendaitze inarrosia izan zela. Ez zen usaian bezala bezti-turik, eta hori haurrentzat huts handia.

Nork sarrarazi zaukun buruan hurrek behar zute-la egin Bestaberri? Ez dezaket erran. Orai ikus daite-ke Iholdin Bestaberri ttipia handien aintzinean, bai elizan eta bai prosesionean. Bainan gure denboran ez zen holakorik oraino nihun gertatu.

Haiek lagunduko gintuztela erranik, neskato gazte zonbaitek beroarazi gintuzten. Ez dakit batere nun-dik bildu zituzten oilar, lanzier, zapur, makilari, sol-dadoek behar zituzten jantzi xingola, kuxkulak.

Beti, Arrainpeko dendariak beztitzen lagunduz, hogoi eta hamar bat haur, gure xirulari atabalariekin, plaza inguru zonbaiten egiterat menturatu ginen. Eta gero egin, handiek bezala, Apeztegiko, Errientaineko, auzapez eta axuant etxeetako itzulia. Ez zaukuten guri arnorik eskaini, bainan edari eta fruitu goxo

batzu. Ez uste ukan jaun erretorari galdegin giniola elizan eta prozesionean aurkitzerik!

Bainan egun eder hartan gertatu zen zonbaitek igurikatzen ez zutena.

Plaza inguruko prozesionean, pabillunaren itzalean erretorak sakramendu saildua onbrelino deitu parasoil eder baten azpian erabiltzen zuen. Elizatik jalgi aintzin, erriaz keinu egin eta gizon batzu galerietarik jautsarazten zituen, bai pabillunarentzat eta bai onbrelinoarentzat.

Aspaldi hartan Donamarik zuen onbrelinoa atxikitzeko kargua, eta azken bozkak arte aspaldi hartan Donamari herriko auzapeza ere zen. Hortarik egina zuketen zonbaitek onbrelinoaren erabiltzea auzapezaren eskubide bat zitakeela. Eta jaun erretorak Donamari zuen hautatu!

Auzapez berria eta beste zonbait harekin arras koskatu ziren. Bertsu zonbait ere agertu ziren *Eskualduna* deitu astekarian, zonbaitek ziotenaren arabera bertsu arras minkorrek.

Hainbeste ele makur ibili zen jendeen artean, nun Goity jaun erretor sailduak prediku aintzinean gauzak haxean ezarri nahi ukan baitzituen, eta bere ateraldia bururatu erranez:

— Araiz ez baitakite zer erraiten duten!

Handik bi urteren buruan hedatu zen berria Petan, auzapezaren semea, *Jojo* deitzen ginuena, Baionako *Saint Bernard* ikasetxean supituki hil zela, kaniketan ari zelarik.

Zer bihotz zimikoa familiarentzat, eta oroz gaineetik Eugénie deitu amarentzat! Gaixo emaztea, ez zen

errexki jalgi ateka gaixto hartarik. Bainan hersturetan gertatzen ziren guziek bezala, jaun erretor saildua baitan hatzeman zuen otoizlari eta kontsolatzaile bat ona.

BI IXTRIPU

Ordu arte hain uros izana eta horra nun bi ixtripuk haurtasuna histen dautaten.

Lehenik, aitari uste gabekeria bat, ez txarra, gertatu zitzaion.

Ekaineko goiz batez, sabaian belar xaharra ttipituxea eta berria ez oraino etxerat bildua, laukada bat belar behar zuela epaitu, etxondoko pentzerat joan zen.

Laukada bizkarrerat altxatu orduko, xixtako xorrotx bat senditu zuen, eta ondotik odola hotzarazi zion beste xixtako bat. Zer debru zukeen partida ikusteko, laukada lurrerat botatu eta... suge bipera bat marregatik erdia kanporat ateratua! Sega eskuratu eta sugea erditik moztu zuen.

Bainan gero, zer egin? Amak eta arrebek medikua deitu behar zela; aitak, berriz, ez zuela balio. Arreba bat oroitu zen eskolan andere Bube errientsak errana ziotela, holakoetan esne ainitz eta ainitz edan behar zela.

Beraz, aita behiak deitz eta esnea edan arizan zen. Eguna arras errexki iragan, bainan biharamuneko hesola bezala gogortu zen. Beharrik ez zuen gehiagokorik bildu, eta bizpahiru egunen buruko berriz lanari lotu zen.

Ordu arte sugeen beldur nintzan, bainan asma gertakari horren ondotik nolakatu zen ene beldurra! Pentze zolako zubi txar haren gainean, suge luze batzu noiz nahi bidean trebes hatzemaiten nituen. Urrunetik hixtuka eta oihuka hasten nintzaioten, bainan ene hixtu eta oihuek lillurarazten zituzketen, ezen ez ziren higitzen ere. Azkenean, harrika haizatzen nituen.

Auzoan ere zer nahi suge bazen, eta berrikitan jakina dut, gerla denboran, han egon behar eta, aleman soldadoek beribiltra bat pozoin hedatu zutela. Ez dakit pozoinaren ala alemanen gatik, bainan geroztik ez Legartoan, ez Karrikan, ez omen da suge bat ere ageri.

Bainan handiena gibeletik zagon. Zertifikata baino hiru egun lehenago, ezkaratzean Bestaberriko airetan dantzan ari nintzalarik, bazterrik gabeko sabaiko eskalaren burutik ama erori zitzaitan, hiru metra baino goragotik, eskorga batzuen gainerat. Zer izialdura!

Beharrik aita etxondoko alorrean zen. Ene arreba Dominikarekin, ahal bezain eztiki ohean ezarri zuten. Elerik ez ziron garbi, eta hatsa biziki nekez baizik ez zezaken har. Biziki gaizki zela iduritu zitzaitan.

Hezur zombait hautsirik bazukeela erranik, aita medikuketa joan zen. Hainbestetaraino izitua nintzen, nun etxetik eskapatu bainintzen, gogoan erabili gabe norat nindoan.

Jauberriko Kattalinek, geldiarazi eta galdegin zautan:

— Norat xoaxi?

Eta futxo nik ezin erran norat nindoan. Atera ahal nuen noizbait:

— Ama eskaleretarik erori zaikuxu!

Eta berriz galdegin zautan:

— Bainan xu norat xoaxi hola izertia?

Nik ez deus ihardestearekin ohartu zitakeen burua pixka bat galdua nuela, eta ezti ezti erran zautan:

— Ez dixi balio hola lasterka ibiltzea. Etxerat itzul-
tzea hobe duxu.

Norbaitekin elekatzeak berak pixka bat apazegatu ninduen. Bainan etxerat itzuli eta amak egin intziriek bihotza urratzen zautatela iduritzen zitzaitan.

Biharamunean goiz alderat medikua etxen sartu eta, eskalerei begira egonik, amaren kolpeak luzaz miatu zituen:

— Ederretarik eskapatua da. Sahets hezur guziak hautsiak ditu, bainan bihotza ez du hunkia —erran eta oihal batzuez ongi inguratu zuen.

Erremedio zombait utzi eta biharamun goizean berriz etorriko zela hitzeman zuen. Bihotz oneko medikua ginuen, ezen ni eskolarat heldu gabe, errientari zer gertatu zitzaikun salatzen izana zen.

Errientak perekatu ninduen, “gaixo haurra!” erranez. Nahiagoko nukeen entzun “gaixo ama!”. Bainan errientak zertifikata zukeen gogoan.

Hiru egunen buruan, zertifikateko paperñoa eta irabazi liburua zoin gogotik ekarri niozkan amari ohe aintzinerat!

Saritzat, arrebarekin, Fabianen autobusean Irisarriainoko piaia pagatu zautan. Iholdi Haixtoiko Petan

kusiak ere zertifikata orduan iragana baitzuen, gurekin eraman ginuen.

Orai halako sari bat irringarri liteke. Bainan denbora haietan, beribilez ibiltzea zer atsegina!

AROSZTEGIA

Eskolatik jalgi eta egun batez, bide bazterrean, kanibet eta haixtur xorroxten ari zen gizon bat hatzeman ginuen.

Xamar urdin bat haizeak hantzen ziola, errota handi bat zangoaz itxulikaraziz, ura eta pindarra nahasiz, begiak lanetik baztertu gabe ari zen.

Noiztenka, xorroxtu kanibet aho bat erriaz perekatatu eta bilo ondo hori bat errotik ateratzen zuen, bi errien artean atxikiz inguruan zauden haurreri erakusten, erranez:

— So egizue huni!

Eta... *brixt!*, kanibetaz bilo ondo mozten.

Holako ikusgarri bat bakan gertatzen zitzaikun, baina eskola bidean ez nuen abusagai eskasik: eskola ondoan Elixabehereko aroztegia, eta hango hiru aita-semeak ari behi ferratzen edo errota ferratu bati ur botaka.

Urruntxago segeria, eta segariak ari lanean *zirrun-*

zarrun, errautsaren erdian, egin sega-zahi metaz aban-txuño gordeak.

Berrogoi metra urrunago, Bidarteko Mañez, maix-turia, makinaren burrunba nekagarrian taula batekin borrokan.

Eta erregebidean kurutzatzen nituen behi, ardi, antzara taldeak?

Bati eta besteari begira, gorenetik oren laurden bat iraun behar zukeen bideak berdin oren erdi bat ere iraun zezakeen.

Bainan dudarik gabe, Elixabehereko aroztegiak nin-duen gehienik bereganatzen, ezen bidetik, nehoi bai-menik galdegin gabe, behi eta orga errota ferratzeak ikus nitzazkeen. Suan zuritu arte berotu burdinak zurezko errota beretzean hedatzen zuen erre usain goxoa!

Bainan iduri zait orga errota baino behi gehiago ferratzen zutela.

Goiz batez, hango korralean aita aurkitu nuen behi batekin jina eta aldiaren beha egonki, eta beraz aroztegiari hurbiltzerat ausartatu nintzan.

Gure behiaren aldia etorri zenean, hiru aita-seeek lau paldoi biribilen erdian ezarri zuten, eta adar ondoe-tarik buztarri tinko gisako bati burua estekatu zioten. Gero zingilla batzueri esker altxatu eta zangoa pal-doiari estekatu. Ez zuela handik ihes egiteko lanjerrik!

Noiztenka behi gaixoak zalaparta entsegu zombait egin zituen, hiru arotzak “Ho! Ho! La! Ho!” oihuka hasiarazi arte.

Debaldetan ari zela indarka ezagaturik, amor eman zuen eta begi trixte batez begiratu zautan. Muturrari

kontra, ixurtzerat utzia zuen uliz emokatu nigarra erriaz xukatuz, ahapetik erran nion:

— Ez dik balio behar gabe akit hadin! Hiru arotz horien beso-ondoak ikus bahitza!

Arotz nagusiak, larruzko taulier bat aintzinean ezarririk, behiaren aztaparra miatu zuen, eta trukes batzue azkazal bakotxa zimikatu. Ikusiz behia ez zela daldaratu, ferra bat entseatu zion, paxamanta bat marteiluaz joz mutur batzu moztu, aztapar zola berdindu. Ingudearen gainean zombait marteilu ukaldiz xuxendu ferra seme batek behatzaz zapatur lekuan atxiki eta buru karratuarekilako bost itze ondoratu zizkion. Azken itzea sartu zuenean:

— To! Horra orai hire behia oinetako berriekin! —erran zautan.

Armendaritzen bazen beste aroztegi bat ere, baina hura ez baitzen ene eskolako bidean! Iratxipiko hiru aita-semeak ofiziale hautak zirela eta uli bat ferra zezaketela, jendeeri erraiten aditua nuen.

Behin, aitzur eta jorrai batzuekin, aita Iratxipirat igorri ninduen. Beñat nagusia, Battitta eta Marzel bi semeak, ari zirela lanean arralleriarik gabe!

Ene aintzinean, Battittak hartu zuen hausko handien giderra, eta ikatza ufatu. Gar perde-hori bat jauzi zenean, burdin mutur bat sartu zion barnerat. Izerdia purpurika lepotik johan zitzaiola, burdina sutik kendu eta ingudearen gainean marteilu ukaldika moldatzerat entseatu zen; eta horitik gorrirat iragan zenean, berriz suan sartu zuen. Battitta nola ez zen burdin mutur harekin borrokatu!

Eta hari begira egoiteko artean, zombat jende ez zen aroztegian sartu esku ukaldi baten galdez: belar

epaitekoa ez haxean! Gakoz hetsi armairua ezin idek!
Eta holako!

Primaderako eta udako goizetan oheraino heltzen
zitzaitan Iratxipiko ingudearen musika paregabea!
Herrian beste soinu batek baizik ez zezakeen ezez-
ta... Armendaritzeko zeinuaren soinu ederrak!

ETXEA SUTAN

Elixabehereko hiru arotzak eta Mañe giltzaina aipatu ditut... Eta hango Añeta utz ote dezaket aipatu gabe?

Esku bat makilaren gainean eta bestea taulier aintxinekoaren barneko aldean, aldi batez huts egin gabe, eta beti tenorez, egiten zuen elizarainoko bidea zeinuaren jo egiteko. Etxe bakotxetik ukan gaitzuru bat ogitan truk, zeinu jo egite guziak haren gain ziren: argi, eguerdi, eta ilun zeinuak, meza eta bezpera deiak, eta zeinu berezi guziak, hala nola su zeinua, agoniako zeinua, hil zeinua, bataioko eta ezteietako zeinuak.

Orai eletrikaz joarazi zeinuek gertakari guzientzat mintzaira bera daukate! Ene haurrean, iduritzen zait jo bakotxak bazaukala bere mintzaira berezia, guhaur ohartu gabe ere bihotzaren barnerat sartu zaikun mintzaira, eta funtsean bakotxak ezarri hitzekilako mintzaira.

Sua nunbait nagusitzen zenean, ez zinuen hirieta-

ko orro basa itsusia adituko, bainan zeinuak tarrapat-
tan salatuko zautzun:

— Zaitte laster! Etxea sutan duk!

Jendeak lanetik geldiarazi eta otoitzean hasaraz-
ten zuen agoniako zeinuak berriz:

— Herritar bat mundu huntarik joaiteko ponduan
da. Ez zazula ahantz!

Pentzeen artetik zoan ahokiaren lagun adiarazi
zeinuak aldiz:

— Gorputza lurreko da! Ez ahantz hil hunen arima!
Eta bataioko zeinu alegerak:

— Adi zazue eta bozkaria zaitezte! Girixtino ttipi
bat gehiago zuen artean baduzue!

Ezteietako zeinu agintzez beteak zer zion?

— Herriaren geroa espos berri hauien eskuetan
dago! Aurki dezatela esker on eta laguntza!

Eta ene aitak bere bizi luze guzian aipatu 1914-eko
zeinu hura?

Ortzegun arratsalde batez begien aintzinean nuen
dorreko zeinua jo egiten hasi zitzaitan egundaino
aditu ez nuen gisan. Ixtant batez berria hedatu zen
herri guzian:

— Etxeparean su! Etxeparean su!

Lusuila eskuan edo besoan, etxe guzietarik jalgi
gizonak lasterka bazoazin Etxepare alderat. Ke beltz
batek, zeru urdina emeki emeki beretu zuen. Zei-
nuak ixtant bat ixildurik, berriz jo egiten hasi ziren,
sua ez zela oraino bentzutua erran nahi ukan balute
bezala! Xipildu usaina Karrikaraino ezagun zela idu-
ritu zitzaitan, eta aita itzuli arte izialdura batek hartua
egon nintzan. Haren bihotz mina Etxepareko familia-
ren nahigabea kondatzean!

— Deus guti salbatu: muble batzu, abereak... bainan etxea dena erre!

Hango haurrak zitzaizkitan bereziki urrikgarri: teilaturik gabe, oherik gabe, eta oroz gainetik... sukalderik gabe. Sukaldea zen enetzat etxearen bihotza; eta, beraz, sukaldeaz gabetzea ikaragarriko zorigaitza zitzaitan. Ez zituena denak sukaldeko suak argitzen eta berotzen? Ez ginuena han nigar eta irri egiten? Han eskolako ikasgaiak eta katixima ikasten? Han elgarrekin arratseko otoitza egiten? Han haur ttipia lehen urratsen egiterat ausartatzen? Han ere xahartuek, zizeluan jarririk, suari so, azken egunak bakean eramaiten...

Doi doia menturatu nintzan gogoan erabiltzerat, Karrika erre balitz nola izanen ginen.

Handik aste baten buruko, bi gizon etorri zitzaizkigun familia dohakabearentzat eske. Ez zezakeen familia bat zorigaitz batek jo, herritarrek beren bihotz ona erakutsi gabe. Laster Etxepare berri bat altxatu zuten. Agur han dagon familiari!

JAUREGIA

Elhina zolan dago, orai ondamendi baten pare. Haatik, ene haurrean oraino itxura ederra zaukan, eta mixteriozko etxe batentzat naukan. Gisa hartako etxe alimale bat zertako zagon bada hutsik? Iduritzen zitzaitan armendariztarrak hura izan ez balitz bezala bizi zirela, hartaz batere axolatu gabe.

Bainan, egun batez, hamekak eta eguerdi arteko katixima denboran, lau jaun xapeldun elizan sartu zitzaizkigun. Goity jaun erretorarekin solastaturik, ezker aldean dagon Sen Bladiren kapera ttipirat jo zuten; eta han, paretari kontra dauden hil-harrien miatzen hasi ziren.

Zer xekatzen ote zuten ginauden. Harri haien gainean irakurtu izenak izkiriatu eta gehiagokorik gabe elizatik jalgi ziren. Laster jakin ginuen Baionatik etorriak zirela eta lehenago Jauregian bizi izan zirenen ixtorioaren ondotik zabiltzala.

Igande batez, bezperetarik landa, guk ere egin ginuen gure ikertze gisa, ordu arte begi kolpe bat

bera eman ez ginioten harri haiek zer zioten jakin nahiz. Han ehortziak zirenen izenak? 1787-an hil François de Sales eta Benoit d'Artillon eta d'Ureta kaperan ehortzien izenak... Eta gero hemeretzigarren mendean hil Eugénie de Barraute eta d'Armendaritz, Claude d'Armendaritz, Marie Vilhemine Havoine de Vergueanak. Bainan horiek baino lehenago Jauregitik ateratuen izenik ez. Alta Jauregi hori hor zagola hamabigarren mendeaz geroz baginakien. Ez ginen biziki aintzinatu gure ikertzean.

Jadanik aipatua dutan bezala, Dalès jaun errientak astean aldi batez kurri ibilarazten gintuen, eta astezken batez Jauregirat eraman gintuen. Bazela han zer ikus eta zer ikas! Herriko labe zaharra, ximinei alimale bat, kapera ttipi pollit bat, gela andana bat eta arras gustatu zitzaitan erloi berezi bat, iguzki orratza deitua. Iguzki zenean, orratz horren itzalak tenorea salatzen zuen.

Orratz xoragarriari begira, lagun batek beharritat erran zautan:

— Zer mirakuilua hori! Ene aitak ere murru izkina batek egin itzaletik tenorea nunbait han erran dezakek!

Azkenean, gure errienta Jauregiaren iragan denborako ixtoriorat lerrarazi ginuen.

Jauregi hori egin zutelarik, Armendaritze ez zen frantses erresuman, bainan bai Nafarroakoan. D'Armendaritz izenekoak, omen handiko jendeak holtan, Iruñako edo, hobeki erraiteko, Oliteko erregeekin arras josiak. Bainan hego aldeko Nafarroa Española eta ipar aldekoa Frantziari josi zituztelarik, Jauregiko abarra arras ahulduz joan omen zen, eta Luis hama-hirugarrenak zuen horien ahide bat, de Montreal

deitua, horko baru gisa izendatu. Familia hortako barutsa batek, Claude de Montreal deituak, zuen 1652-ko ganderailuz Armendaritze Elizagaraian sortu Beñat ttipia nerhabe —page— gisa gazteluan hartu, eta bere hurrekin eskolatu. Trixtan Elizagaraiko eta Mari Gilendegikoen bosgarren horren ixtorio miresgarria! Bainan Beñat Elizagaraikoa gaineko puntarat igan bazen, de Montreal familiarentzat egun hitsak etorri ziren: 1789-eko Iraultzak ontasunak kendu zizkion, eta emeki emeki behehituz joan zen. Haatik, Espainiako gerra galdu eta Don Carlos zonbait denbora hor egon omen zen.

Aitak erran zautan, haren hurrean —1875-ean sortua zen—, omiasainduz, jaun bat etortzen zela, eta apeztegiko galerietarik hurreri sos xehe andana bat botatzen ziotela, Jauregitik ateratu arimentzat otoitz bat egin zezaten.

Eta orai Jauregi xaharra lurrerat johan! Eta harekin, nahi ta ez, Armendaritzeko ixtoriko izkin bat!

ELIZAGARAİKO BEÑAT ARMENDARIZTAR AIPATUENA

Ez izanik ere ene haurtasuneko oroitzapenetarik, ez dezaket utz Beñat Elizagaraikoa aipamen bat gabe. Ene irakurgaietan ikasiak laburzki bada laburzki hemen ezartzen ditut.

Beñaten haurtasuna: 1645-ean, Trixtan etxeko semea eta Maddi Gilentegikoa Elizagarairat ezkondu ziren. Paperrek diote Trixtan Ostatuberriko nagusia zela. Hortarik ageri da ezkontza horren karietarat ostatu berri bat ideki zutela. Beraz, 344 urte dauzka Elizagaraiko ostatuak.

1652-ko Ganderailuz sortu zitzaizoten bosgarren haurra, eta bataiatzean Beñat izendatu zuten. Beste hiru anaiak, Petan, Gillaume eta Manez, eta arreba Maddi deitzen ziren. Manez Behauzeko erreter higitu zen; eta Maddi, Garaterat ezkondu.

Beñat gorputzez arras txarra omen, eta aitamak beldurturik egon ziren ez ote zen ñaño geldituko. Bainan ez; biziki ttipia balinbazen ere, ontsa egina zen; eta adimenduz, aldiz, paregabekoa.

Zazpi urtetarat heldu zenean, Suharteko Piarrex Iholdiko bikariaren eskuetan ezarri zuten, eskola pixka bat bil zezan.

Denbora haietan ez zen oraino erretorik Armendaritzen, eta hango zerbitzua Iholdiko bikariaren gain zagon.

Piarrex apeza berehala ohartu zen zoin ixpiritu xorrotzekoa zuen bere ikasle ttipia. Ezin beretzat atxikiz, berria hedatu zuen bere inguruan. Armendaritze Jauregiko barontsak, Claude de Montreal deituak, hori jakin eta gogoan erabili zuen bere haurren eskolan sustatzeko hain hartze oneko muttiko bat baliagarri zitakeela. Badoa, beraz, Elizagarairat, Beñat nerhabe gisa galdegiterat. Bere haurrak bezainbat maitatu zuen, eta haiekin batean eskolatu.

Claude de Montreal hura, Biarnon den Arbus herri ttipiko de Gassion kontesaren adixkide mina izanki; eta, hau zonbait egunen iragaiterat Jauregirat etorri zenean, gogoan erabili zuen harek ere beren haurren artean Beñat bezalako izpiritu erneko baten beharra bazuela. Barontsak bihotzean ximiko batekin baimena eman zion. De Gassion andere hori ez zen nor nahi. Ezkondu aintzin Colbert du Terron deitzen zen, eta Luis XIV-garrenaren minixtro famatuaren lehen kusia zen. Aita, untzietako aintzindari handienarik zen. Bere alabarekin zonbait egun iragaitea gatik, Arbuserat etorri zen, eta Arbuseko gazteluan ez ziren *Petit Renaud*-ez baizik mintzo. Artetik erraiteko, izen goiti hori Beñati Arbusen emana zioten. Armendariztar mutiko koxkorra aintzindari handiari ere arras gustatu zitzaion, eta berekilan eramaiteko gutizia erakusterat eman zuen. Alabak ez zion baietz

gogotik erran, bainan aita bati errefusatzerat nola mentura? Beñatek ere ezetzik ez erraiten, eta hiruek jo zuten Armendaritzerat, burrasoen baimenaren bila.

Beñat Rocheforten: Luis XIV-garrenak Colbert aintzindariari galdegina zion La Rochelleko ondo haie-tan gerlako portu azkar bat munta zezan, eta hunek Rochefort deitu xokoa zuen hautatua.

Denbora laburrez, ez portu berriak ez itsas untziek ez zaukaten Beñatentzat segeturik. Liburu bat ideki gabe, harrigarriko jakitatea bildu zuen, eta inginadore etsamina airez aire iragan, hogoi eta bi urtetan.

Colbert du Terron gerlako beharren gatik portu batetik bestera baitzabilan, portu berriaren bururaztea Beñaten gain utzi zuen. Hunek zituen, beraz, egun guziez igortzen erregeari berak izkiriatu eta sinatu ageriak. Ageri horiek lehenik itsas minixteriorat heltzen; eta hango aintzindarietarik bat, Colbert minixtroaren semea, Seignelay deitua, agerietarik ohartu zen zer gauza miresgarriak Beñatek bazazkien. Frantziako armadaren aintzindari handienak, Vermandois deituak, kontseilari bat behar eta, Seignelayek Beñat izendarazi eta igorri zion Versailles hirirat. Alabainan jende handieria hori han bizi zen erregearen inguruan, arima salbu eta pulindak puloiaren inguruan bezala.

Beñat Versailles hirian: Ez zen, ez, erregearen korrale hartarat hurbildu, bainan kontseilu handian aintzindari eta minixtro handien erdian zagon. Eztabada frango pitzarazi zituen, ez baitzen haatik beti aintzindariak ateratuen alde. Duquesne eta Tourville hartaz trufan ere hasi, bainan Vauban, Colbert, Seignelay eta erregea alde agertzen zitzaizkion.

1680-an, Luis XIV-garrenak Europa bentzutuxea zuen, bainan Mediterrane itsasoan gertatuek arras kexarazten zuten. Algereko buruzagiak, Dey deituak, itsaso hartan zabiltzan frantses untziak lapurtzen edo erretzen zituen, mariñelak esklabo gisa eramaiten, eta emazteak aldiz asma dezakezue zer bilakatzen ziren. Hauietarik zonbait bazituen saldurik ere. Eta futxo, orduko untziak ezin Algereko porturat aski hurbil, obusak kanoiez tiratzeko. Bonbak behar eta beraz *mortierak*; eta *mortier* horien gibel jokoak untziak suntsitzen. Orduan Beñatek asmatu *galioite* deitu zuten untzia, hogoi eta zortzi metro luze eta zortzi metro largokoa, *mortier* haren gibel jokoa jasan zezakena.

Erregeak manatu ziozkan bost, hiru Le Havre eta biga Dunquerque portuetan egiteko. Handik laster *instructeur de la fabrication des vaisseaux* izendatu zuen. Duquesne eta Tourvillek, jelosiak janak, *galio-teez* trufan bazter guziak ba zauzkatzen, bainan bost *galio-teak*, “*Brulante*”, “*Menaçante*”, “*Bombarde*”, “*Foudroyante*” eta “*La Cruelle*” izenekoak, bururatu ondoan, untzi andana batekin entsegu bat egin zuten Ipar aldeko itsasoan. Galerna izigarri bat jasanik, bost *galio-teak*, minik gabe, Flessingues deitu portuan sartu. Beñat irabazle ikustearekin, trufak ixildu ziren; eta, erregearen manuz, hameka untzi handi, hamazazpi arteko eta bost *galioitek* Ibizako porturat jo zuten.

Beñat Algeren aintzinean: Algeri buruz badoatzi *galio-teak*, untzi handieri hiru kilometroko hari batez estekaturik. Beñat bera *La Cruelle* hartan zagon. Eta agorrilaren 20-an, bere patroinaren besta egunean, Algereko parrerat heldu zirenean, etsaiak obus tiraka hasi eta berrehun bonba igorri zituzten Algeren gai-

nerat. Zorigaitzez, aintzindari batek, Camelin izenekoak, karkuletan enganatu eta bonba bat *La Cruelle*-en gainerat igorri zuen, Beñat kolpatu eta beste untzi zombait andeatu. Hori ikusi eta armada Touloneko porturat itzuli zen. Han erregeak bi *galiote* berri eginarazi, "*Fulminante*" eta "*Ardente*", eta 1682-ko ekainaren 26-an berriz badoazi Algeren parrerat. Zazpi *galiotek* ehun eta zazpi bonba igorri Dey haren gazteluaren gainerat; eta harek, arras iziturik, bakea galdatu zuen. Bainan bere peko zituen aintzindariek gaina hartu zioten, eta guduka berriz pizarazi. *Galio-tek* 3193 bonba bota zizkieten, eta haiek ere amor eman eta bakea sinatu.

Beñat eta Jansenismoa: XVII-garren mende buruan, katolikoen artean hasi zen haitada bat, ez txarra. Jansenius heretikoari, Pascal idazle handiaren eta Port-Royal deitu komentu famatuaren ondotik, katoliko andana bat jarraiki zitzaizkion. Sortu bazen sortu, kalapita ez zen berehala ixiltzekoa.

Haatik Janseniusi eta Pascali Aita de Malebranche jazarri zitzaioten, eta guduka hortako laguntza Beñati eskatu zion. Pascal ari balinbazen izkiria eta izkiria, armendariztarra ez zagon lo. Egia iduri zitzaionaren alde arras bipilki lotu zen. Guduka pixka bat eztitu ondoan, berriz piztu zen XVIII-garren mende hastean. Bainan Aita Saindu Clément XI-garrenak 1713-án Jansenismoa kondenatu zuen. Aita Malebranchen laguntzeko, itsas guduketarik urruntzeaz baliaturik, Beñatek izkiriatu zuen liburu aipagarri bat: *Théorie de la manoeuvre des vaisseaux*.

Beñat, Vaubanen lagun: Algereko balentria haren ondotik, ez zaukaten Beñat liburu izkiriartzen uzte-

koa. Vaubanek Flandres deitu eskualderat galdegin zuen, hango portu eta hiriak, Baiona eta Donibane bezala, murre pareta handi batzuek inguratzen laguntzeko. Eta horra nun Colbert minixtroa hiltzen zaioten. Erregeak berehala Seignelay izendatu zuen itsas minixtro, eta hunek bere ondorat Beñat deitu. Gênes, Holanda, Ingalterra eta Kataluniako guduketan nor mentura Beñaten kontseilurik gabe?

Gauak egun eginez ari zitakeen, ezen bere lan guzien artetik atera zuen Frantziak denbora hartan ager zezakeen untzirik handiena: *Le Soleil Royal*. Ondotik Seignelayek izendatu zuen *inspecteur général de la flotte*, hamabi mila liberako pentsionearekin, ez bait zen batere gutiz baztertzekoa. Bainan izendatze hori sinatu gabe, minixtroa beste munduratu! Eta gainerat haren ondokoak ez ezagutuarena egin. Ixil ixila badoa gure Beñat berriz Vaubanen ganat. Erregea, aldiz, laster ohartu gerlako kontseilu handian *Petit Renaud* ez zela gehiago aurkitzen. Jakin eta zer iragaiten zen, berehala deitu zuen Beñat berriz Versailleserat, eta Seignelayek hitzeman guziak ardietsi zituen.

Beñat Espainian eta Armendaritzen: Espainiako errege Charles II-garrenaren hil berria heltzen da Pariserat, eta haren ordain Luis XIV-garrenaren seme ttipia hautatu zuten. Hunek Philippe V izena hautatu zuen; eta, harrigarri ere ez bada, Beñat gabe ez joan nahi ukan Madrilerat. Aitasoren baimenarekin, hango itsas portu guzien berritzeaz *Petit Renaud* kargatu zuen. Gaixo Beñat! Aintzinetik jakinez zer gertatuko zitzaion, ez zukeen zangorik sartuko Espainian.

Berehala lotu zen lanari; eta, Gibraltar zaindu nahi balinbazen, Cádizetik hasi behar zela erranik,

hango lanak manatu... Bainan dirurik ez ageri! Lehen despendioak bere sakelatik pagatu behar ukan, ezen espagnol aintzindariak jeloskeriaz ez baitzioten dirurik heltzerat uzten. Odol gaixto asko eginik, zainetakoa bildurik, Arnegin gaindi Armendaritzerat jo zuen, eta sei hilabete bake osoan Elizagaraian eraman. Osagarria ttipitzen hasia zuelakoan, notariari ordenua egin arazi zion: bere hiru anaieri bi mila liberako arranda, eta Maddi arrebari bost ehun liberakoa. Galdea ukantik, berriz Versailleserat joan zen.

Beñat, Jakintzako Akademian: Bazuen zonbait urte Akademia hortarat izendatua izana zela. Bainan izkiriari zuen liburu berri bat: *La Mécanique des liqueurs*, eta berehala erregeak Akademiaren buruzagi ordain gradorat altxatu. Orduko jakintsunek zila ez zezaketen problema bat argitaratu zuen. Denek errecki uler-tuko duzuelakoan, horra zer zen jakintsunen buru hauste hori: *“Trouver deux grandeurs telles que soustrayant l’une de l’autre, il en vienne un reste, lequel étant soustrait de la petite, il y ait un reste, lequel étant soustrait du premier reste, il y ait un nouveau reste, et ainsi de suite jusqu’à l’infini, sans qu’aucun reste ne puisse mesurer la dernière quantité de laquelle on aura fait la soustraction!!!”*

Zertan iragaiten zuten haatik denbora!

Eta horra Beñatek asmatu gakoa:

“Par des triangles semblables décroissant à l’infini pris dans un cercle où est tracé un pentagone.”

Zer puttikoa!

Errege handienek ere tenorea etorri eta mundu hau utzi behar! 1715-ean Luis XIV-garrena hil eta bost urteko haur txar bat zuen bere ondoko utzi.

Errege ordain norbait behar eta Philippe d'Orleans ezarri zuten erresumaren buru. Asma ote dezakezue hunek Beñat zertaz kargatu zuen? Zergak biziki gaizki biltzen baitziren, sistima xuxenagoko bat behar zuen asmatu. Hatzeman zuen ba sistima berria: ontasunaren araberako zerga! Zer kurrinkak! Zer zalapartak!

Beñat, eriturik, joan zen uretarat, *Pouques-les-Eaux* deitu *Nièvre* departamenduko herrixka batetarat, eta 1719-an hil. Azken hatsa bota aintzin, inguruan zagozineri erran zioten:

— Ilunbetarik argirat noala sendi dut.

ENE ZERTIFIKATA

Enetzat, 1928-ko urria nolako bihurgunea ez zen izan? Courtade jaun errienta joan eta Salenave etorri zitzaikun. Handik goiti eskolako lana... lana... lana! Adio kaxkia, pilota eta Margerit!

Dalèsekin ez ainitz ikasi, Courtadekin gutiago, eta lehen egunean, zein gibela ginen ikusiz, errient berria harritu zitzaikun. Halere ikerketa ttipi baten egitera menturatu zen, eta biharamunean burrasoen ikusterat Karrikaraino jin:

— Beñatek, heldu den ekainean, zertifikata iragan behar du.

Hori aditzearekin, ez gauza handirik konpreniturik ere, aitamek senditu zuten hameka urte orduan beteak eta gehiagoko jakitaterik gabe ez nintzela gai izanen. Bainan gure errienta hartan gogortu! Aitortu behar dut ikasteko gutizia bat gaitza sortarazi zautala. Iribarnerat etorri Mendiburu izeneko mutiko batekin, beste haurrak etxerat despeditu eta, berriz lanean hasarazten gintuen, eta oraino etxen egiteko ariketa andana bat emaiten. Nik lan eginago eta harek ema-

nago arizan ginen. Behiak zaintzean, belar epaiteko mekanika lamaren xorrotx errota itzulikatzean, arasetan supazterrean, ikas eta ikas arizan nintzan.

Nik nahi baino lehenago etorri zen etsamina eguna. Errieta erdian, bide guzia ginakala, oinez heldu ginen Iholdiko eskolaraino. Pixka bat etxekotzeko, beharrik han hatzeman nituen Iholdi Haixtoiko Pettan, ene kusi maitea, eta Eiheraberriko Kaiet, Karrikan eiherazaingoan ibiltzen zena. Beti Mendiburu eta biak etxerat itzuli gure paperñoa sakelan, eta irabazi liburu ederra beso pean!

Handik laster, Goity jaun erretorak amari erranzion:

— Ez baitut nahi Beñat joan dadin herritik komunione handia egin gabe, urriaren azken igandean eginen du.

Eusèbe Aita kaputxinarekin erretreta segitu eta, harrigarriko denbora txarrarekin komunione handia egin nuen. Erran behar dut ez ninduela batere “ttipiak” bezainbat inarrosi: ez ginuena hilabeteko lehen ortziraile guzietz jada komuniatzen?

Horra orai ene haur denborako oroitzapenen bururat heldua! Urte bat oso osoa berriz Armendaritzeko haur bilakatua nintzela. Maite dugun norbait uztean, hitzak nekez jalgitzen... Orduan ixiltasuna solasak baino sarkorrago! Beraz, gehiagokorik gabe, agurtzen zaituztet, herri eta herritar maitatuak; eta haietan bereziki hain goxoki errezebitu ninduen auzapez anderea, herriko kusi maiteak, eta norbait ahantz beldurrez izendatuko ez ditudan eskolako eta komunione-ko lagun paregabeak.

Deneri goraintzi, eta gora Armendaritze!

URTEAK JOAN

(Airea: *Dama gazte xarmant bat*)

Ene urteak joan firu firurika,
aldiz oroitzapenak etorki jauzika.
Agurrak pentze, alor, ur eta mendixka,
zuen denen altzoan hor dago Karrika.

Atera jalgi eta zoin zen miresgarri
etxeak han hemenka agurka elgarri!
Elizako dorrea bihotz altxagarri,
aspaldiko Elhina denen ikusgarri.

Adina jin orduko soiteko kanpora,
ozartu zitzaizkitan bihotz beratzeraz.
Gero zonbat alditan etorri gogora,
ez naiz menturatuko xuxen kondatzeraz.

Zer zuten bada nitan hoin barna sartzeko,
edo ene ondotik hola ibiltzeko?
Umezurtzen artetik bat fagoratzeko,
berex nezake bertan Armendaritzeko!

AURKIBIDEA

| | |
|-----------------------------|----|
| Beñat gure adixkidea | 9 |
| Herri maitatua | 13 |
| Errabotea | 15 |
| Bardotx | 18 |
| Adorazionea | 21 |
| Buru-xabala | 23 |
| Bestaberri | 25 |
| Zertifikata | 28 |
| Amasoren heriotzea | 30 |
| Andere errientsa | 32 |
| Irakurtzen ikasi | 37 |
| Katixima eta otoitzak | 39 |
| Omiainsandu | 41 |
| Kaxkia | 43 |
| Uhaldea | 45 |
| Amidalak | 48 |
| Iratxipiko Leoni | 50 |
| Buhameak | 53 |
| Juvenal fraidea | 55 |

| | |
|------------------------------------|-----|
| Elixabehereko Mañe | 58 |
| Dominika Haixtoi | 60 |
| Bi gertakari trixte | 63 |
| Ogi joileak | 66 |
| Bestak | 68 |
| Besta astelehena | 70 |
| Errienta | 73 |
| Olerkari eta idazlari | 75 |
| Komunione ttipia | 78 |
| Zobat | 80 |
| Xedarri | 83 |
| Margerit | 86 |
| Xuriko | 89 |
| Lunetak | 92 |
| Sua | 95 |
| Uztailaren hamalaua | 97 |
| Itotsemaitea | 99 |
| Larruzko pilota | 102 |
| Mende berria | 104 |
| Misioneak | 106 |
| Basa marexala | 111 |
| Amañoa eta herriko mutila | 113 |
| Mutikoak neskatoen leihoetan | 117 |
| Idiak anbalatu | 121 |
| Battitta eta Geaxine | 123 |
| Makila Motz | 128 |
| Zopaxuritegia | 132 |
| Sen Bladiz | 135 |
| Larre medikua | 139 |
| Mediku gaztea | 143 |
| Landaetxeberria | 146 |
| Harmarik ez! | 150 |

| | |
|--|-----|
| Ene aitatxi | 152 |
| Hiru neska urrikalgarri | 157 |
| Herriko bozkak | 161 |
| Onbrelineoa | 166 |
| Bi ixtripu | 169 |
| Aroztegia | 173 |
| Etxea sutan | 177 |
| Jauregia | 180 |
| Elizagaraiko Beñat, armendariztar aipatuena. | 183 |
| Ene zertifikata | 191 |
| Urteak joan | 193 |

ORAINDAIÑOKO LIBURUAK

117'garrenetik aurrera.


- 117-118: *B. Enbeita*: Nere apurra.
120-121-122: *A. Zavala*: Mendaro Txirristaka.
123-124-125: *A. Zavala*: Zapirain anaiak.
126: *A. Zavala*: Ustu ezin zan ganbara.
127: *M. Arozamena*: Nere aldia.
128: *A. Zavala*: Amodiozko penak bertso berrietan.
129: *A. Zavala*: Afrika'ko gerra (1859-1860).
130: *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (I).
131: *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (II).
132: *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (III).
133: *A. Zavala*: Arrantzaleen bizitza.
134: *J. M. Arrizabalo, A. Zavala*: Baso-mutillak.
135: *A. Zavala*: Jaiok bizi nai.
136: *A. Zavala*: Noe'ren ontzia.
137-138: *Ataño*: Txantxangorri kantaria.
139: *A. Zavala*: Soldaduzkako bertsoak.
140: *A. Zavala*: Nekazariak bai miseriak.
141: Bertsolari-txapelketa nagusia, 1980. (*Aitua*)
142: *A. Zavala*: Txabolategi, Elkoro eta Leunda bertsolariak.
143: *A. Zavala*: Nork bere bidea, I. (*Aitua*)
144: *A. Zavala*: Nork bere bidea, II. (*Aitua*)
145: *A. Zavala*: Nork bere bidea, III. (*Aitua*)
146: *A. Zavala*: Berridi eta Kuxkullu bertsolariak.
147: *Ataño*: Txori. (*Aitua*)
148: *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak, I. (*Aitua*)
149: *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak, II. (*Aitua*)

- 150: *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak, III. (*Aitua*)
151: *Mattin Treku*: Etxe xokotik kantari. (*Aitua*)
152: *Xalbador*: Herria gogoan. (*Aitua*).
153: *J. K. Zapirain, Ataño*: Zure Pasio Santua.
154: *A. Zavala*: Jan-edanaren bertsoak I.
155: *A. Zavala*: Jan-edanaren bertsoak II.
156: *F. Artola «Bordari», R. Artola*: Aritz beraren adarrak.
157: *Elkarlanean*: Lexoti bertsolaria.
158: *Mari Treku*: Mattin, nere gizona. (*Aitua*)
159: *Txomin Garmendia*: Denbora pasa.
160: *Txomin Garmendia*: Bizitzaren arian.
161: *A. Zavala*: Kuba'ko gerra.
162: *J. M. Arrieta*: Nere ondar alea. (*Aitua*)
163: *J. C. Arrosagaray*: California-tik kantuz.
164: *A. Zavala*: Mixioetako bertsoak, I.
165: *A. Zavala*: Mixioetako bertsoak, II.
166: *M. Manterola*: Lore apal bat.
167: *J. M. Lertxundi*: Baso tarteko oiua.
168: *P. Lazkano, A. Zavala*: Tiro tartean bertsotan.
169: *Basarri*: Kezka-giroan.
170: *Txomin Garmendia*: Bordaberri'ko gozo-mikatzak.
171: *Txomin Garmendia*: Bertsolari-kurpilla.
172: *S. Salaberria*: Nere soroko emaitzak.
173: *I. Olea*: Otemotxeko arnasa.
174: *A. Zavala*: Kristaubidea bertsotan, I.
175: *A. Zavala*: Kristaubidea bertsotan, II.
176: *A. Zavala*: Ameriketako bertsoak.
177: *Txomin Garmendia*: Erririk-erri.
178: *Basarri*: Bertsolaritzari buruz.
179: *Ataño*: Espetxeko negarrak.
180: *A. Zavala*: Euskal jokoak bertsotan, I.
181: *Ataño*: Zigorpean.
182: *M. Ostolaiz*: Oroipen-kutxa.
183: *A. Zavala*: Euskal jokoak bertsotan, II.
184: *A. Zavala*: Esaera zaarren bilduma berria, I.
185: *A. Zavala*: Esaera zaarren bilduma berria, II.
186: *A. Zavala*: Neska-mutillen arteko bertsoak.
187: *A. Zavala*: Ezkondu bearreko bertsoak.
188: *Txomin Garmendia*: Beltzak eta zuriak mendian ardiak.
189: *Ataño*: Eltzaorra.
190: *Pablo Zubiarrain*: Ia kantatuz bezela.
191: *Basilio Pujana*: Egi batzuek aixetaratzen.
192: *Ataño*: Odol-kutsua.
193: *Ataño*: Maitasunaren lanak.

- 194: *Pablo Zubiarrain*: Gaziak eta gozoak.
- 195: *Bartolo Ayerbe*: Nere mundualdia.
- 196: *Ataño*: Etorkizuna.
- 197: *Ramos Azkarate*: Ijitoen kontratuba eta abar.
- 198: *Erramun Etchebarne*: Erramun harginaren oroitzape-nak.
- 199: *Jose Maria Etxaburu*: Neure lau urteko ibillerak.
- 200: *Jose Azpiroz*: Arbol zarraren kimuak.
- 201: *Ataño*: Maite itzazute etsaiak.
- 202: *A. Zavala*: Frantziako Iraultza eta Konbentzioko gerra.
- 203: *Jose Azpiroz*: Gogoz kontrako pausoak.
- 204: *L. Rezola «Tximela»*: Bakardadeko ametsak, I.
- 205: *L. Rezola «Tximela»*: Bakardadeko ametsak, II.
- 206: *J. Lete «Ibai-Ertz»*: Orrela ziran gauzak.
- 207: *Ataño*: Aztia usnari.
- 208: *F. Etxebarria*: Nor garan azaldu.
- 209: *B. Barandiaran*: Zartu gabe ezin bizi.
- 210: *Beñat Karrika*: Armendaritze haur begiez.



1051047
G-128/69



AUSPOA
LIBURUTEGIA